

# XABIER AMURIZA



Zu ere  
bertsolari

# ZU ERE BERTSOLARI



Xabier  
Amuriza

**egin**

**Biblioteka**



© Xabier Amuriza

© ORAIN S.A. - Edizio honetarako.

ISBN: 84 - 89077 - 23 - 1

L. G. SS 191 / 95

Bilduma eta azalaren diseinua: Borja Goitia

## Aurkezpena

Bertsolaritza gure herrian ematen den fenomeno berezi bat dugu, eta hizketaldi luzeak eta idazlan ugari izan eta izango dira gai honen, bertsolaritzaren idiosinkrasiaren, inguruan. Batzuek artzainen kultura bizi-bizirik zegoen garai haietaraino eramaten gaituzte atzera haren jatorriaren bila; beste batzuek, berriz, fenomeno hau musikaren dodekafonismoarekin alderatzen dute, edo euskal pentsamoldearen adierazgarritzat hartzen latinetiko hizkuntzen "koherentziaren" aurrean. Ez dugu teoriarik falta, ez horixe, denbora labur-laburrean, ia-ia une beran esango nuke, bertso bat asmatzen, eratzen eta azaltzen duen inprobisazio izugarriaz blai dagoen literatur estilo honen berri emateko.

Duela hogeita bat urte, eta Xenpelar, Bilintx, Txirrita, Basarri, Xalbador eta beste askoren urratsei jarraiki, Xabier Amurizak berrikuntzaren astindua eman zion genero honi. Hortxe ditugu lortu zituen txapelak, erakutsitako trebetasunaren lekukoak guztiak, eta diskoak ere bat baino gehiago izan dira kantatzeko modu monotono samar eta azaldutako bertsoen itxura formalari gehiegizko arreta eskaintzen ez zion hari amaiera eman zioten tonuak jasotzeko. Ez dut uste gezurretan ari naizenik Amurizaren lanaz geroztik bertsolaritzak bultzada bikaina jaso eta aire berriak inguratu zutela esaten badut.

Hala ere, eta aurrekoarekin artean asetu ezinik, Amurizak, *Zu ere bertsolari* lanaz, zaletu eta gaiaren ikerle guztien eskutan jarri zuen hitzaren kirol nazional honen eskuliburu ezinbesteko bat. Liburu honen sei kapitulutan zehar bertso desberdinak, koplak txikia, koplak handia, zortziko txikia eta zortziko handia alegia, eratzeko bidean erabiltzen diren teknika aldetiko baliabideak azaltzen dizkigu zehatz-mehatz. Neurriak, erritmoak, errimak eta doinu desberdinak, guztiak dira benetako aditu honen lumak ukituak, eta guztien azaltzeko genero honek dituen klasikoetara jotzen du. Material didaktikoen ondoan beste zerbait ere aurkituko dugu, lan honi begiratu bat ematen dion orori ikasitakoa egiazko lan bihurtzeko egileak egiten dion gonbite garbia hain zuzen.



# ZU ERE BERTSOLARI



Xabier  
Amuriza



**BAT**

**NORA**



## DOINUA, ERRIMA ETA NEURRIA

## GALAI BAT

- 1) Galai bat etorri zait prestuaren gisa bertso berri batzuek para al banitza. Arrazoiaren bidez nai duela mintza saiatuko nintzala eman diot hitza.
- 2) Aita bati bezela esan dizkit hitz bi hoién despreziuak goguan daukazki. Kontrariua pranko izandu du noski tontua izan balitz etzeguen gaizki.
- 3) Dama gazte eder bat hain gustagarria berez naparra zan da honuntz etorria. Benta polit batian zerbitzen jarria eta Astigarraga deitzen da herria.
- 4) Dizdiz egiten zuen izar baten gisa bihartu nuen eta eman zidan hitza. Esanaz beste danak alperrik dabilta zuk dadukazu nere zarrailaren giltza.
- 5) Etxian ta kanpuan tabernan ta elizan bi urtez zaitu zaitut zu nola zabilta. Beste aitzakiarik ez dezu deus izan pixka bat mudakorra gaur askoren gisan.
- 6) Lenengo erromeria Astigarragan zan beste mutil batekin bertara juan zan. Alkar bilatu degu berihala plazan beste sobrate hori han zebilen saltsan.

- 7) Bentako tabernatik  
lenengo auzua  
han eztu mutil batek  
jenio gozua.  
Bihotz gogorrekua  
ta eskandalosua  
harretzek tira zion  
neskari basua.
- 8) Zer pikardi izan zan  
nua esatera  
hautsi ziran basua  
ta hiru platera.  
Neskatxa erne zegon  
makurtu zan bera  
gaxua justutikan  
eskapatu zera.
- 9) Hori da izatia  
jenio torpia  
mostradorian tira  
zenion kolpia.  
Harrek deitu bazinu  
bihar dan tokia  
seguru zan luzaro  
preso egotia.
- 10) Beste bat auzokua  
sujeto zuzena  
ni hil bihar nauela  
askotan esana.  
Neskatx horren nobio  
lenago izana  
harrua ta koraje  
gutxiko gizona.
- 11) Bentako iturrian  
ilunabar batez  
neskatx hori ikusi det  
aspaldiko partez.  
Hizketan egon ginan  
biak borondatez  
ez degu ezer esan  
inorentzat kaltez.
- 12) Bide baztar batian  
han zegon gordia  
makila motz batekin  
hain zan kobardia.  
buruan jota kendu  
nai zidan kordia  
neroni ere lotan  
ez negon, ordia.
- 13) Hitza eman bazizun  
horri egin kaso  
ez neri kulpa gabe  
makilarik jaso.  
Nola izandu geran  
lagun eta auzo  
barkazen dizut baina  
gaizki dago oso.
- 14) Beti guri segika  
baserri ta kale  
beste lagun batzuek  
bazituen alde.  
Bi kolpe eman dizkat  
ukabilak dale  
handik aurrera etzan  
okasio zale.
- 15) Ni baino larriago  
ezkontzeko bera  
zorrotz galdetu zidan  
noiz egingo gera?  
Oraindik lazuz hortan  
ez nua sartzera  
nai dezun martxa hartu  
presaka bazera.
- 16) Horra Migel Altunak  
haunditsua lertu  
ojala izar hori  
ez balitz agertu.  
Badaezpada ez nintzan  
aurreregi sartu  
oraindik libre dago  
nai duenak hartu.



Bertsoaren azalak edo teknikak hiru gauza eskatzen ditu: KANTATZEA, ERRIMATZEA eta NEURTZEA. Hiru osagai, beraz: DOINUA, ERRIMA eta NEURRIA. Goazen banaka.

## DOINUA EDO MUSIKA

Bertsogintzako doinuak zailak ala errezak al dira? Zenbat musika behar da bertsolari izateko?

Aski da belarri normala edukitzea. Bertso doinuak errezak dira. Edonork daki dozena bat gutxienez. Oso belarri txarra behar da bertso doinua ez kantatzeko. Txarra ez ezik, txar-txarra. Horrelakoak ere tarketa izaten dira, zaunkaka ez dakiten zakurrak bezala. Baina ez dira kontutan hartzekoak, oso salbuespen berezizat baizik. Ez al duzue sinesten? Egin dezagun aproba. Hona hemen Xarmagarria deritzan doinua.



Nor ez da hau kantatzeko gai? Hona hemen beste bat, koplak txikikoa:



Zaila al da hau? Pare bat eskolatan doinu hau kantatutakoan, belarritik kendu ezinik ibiliko zarete.

Lehenengoa zortziko txikia zen. Bigarrena kopla txikia. Geroago azalduko dugu bien berri. Orain goazen aurrera.

## **ERRIMA**

Bigarren egitekoa errimatzea da. Bi hitz azkenean hoskideak izateari errimatzea deritza. Hoskidea edo hots berdina edo oso antzekoa edukitzea, baina hitzaren azkenean. Hitzekin ari garenez gero, har dezagun **HITZA** bera. Ea honen hoskidez zenbat luzatzen duzuen zerrenda goitik behera. Segi!

### **HITZA**

**giltza**  
**bizitza**  
**haritza**  
**bitsa**  
**gabiltza**  
**bortitza**  
**murritza**  
**langintza**  
**bertsolaritza**  
**deritza**  
**sasitza**

Eta abar. Zerrenda honetan hiru bertso egiteko aina daukagu. Koplak berriz sei. Beraz, bat egiteko, hainbeste sobra.

Hona beste hitza bat: **LABURRA**. Segi zuek:

**zakurra**  
**egurra**  
**bildurra**  
**haitzurra**  
**makurra**  
**gezurra**  
**elurra**  
**hezurra**  
**zimurra**  
**samurra**  
**apurra**

Beste bat:

## ZABALA

hala  
dala  
brehala  
argala  
makala  
magala  
tamala  
bala  
naturala  
apala  
zitala

Nor ez da gauza hitz bat eman eta gutxienez beste hiru edo lau lagun topatzeko?

Esan orain zuek hitz bat.

*Demagun MOZKORRA esaten dutela.*

Mozkorra  
egoskorra  
lehorra  
satorra  
konkorra  
zekorra  
gilborra  
gogorra  
alorra  
danborra  
behorra

Esan beste bat.

*Demagun TXORIA esaten dutela.*

Txoria  
gloria  
historia  
eroria  
ogia  
kategoria  
agonia  
lodia  
memoria



Sinesten al duzue errimatzea ez dela hain zaila?

*Irakasleak dena ikasleei esan erazi behar die. Oin zerrendan segi zortzi edo hamarren bat lortu arte. Orduan moztu, gehiago emateko gai balira bezala. Ikasleei harrokeritxo hori utzi. Noizbait atera ezinik gertatzen badira, ez gehiegi tiratu. Dozenerdira heltzea gehienez oso erreza da. Isiluneak badatoz, moztu, aski eta gehiegi dela adierariz.*

*Hasieran, oin zerrendetan, errima abula agertuko da gehienez. Horri ez jaramonik egin, oso gaizki edo hatere errimatzen ez duena ez bada. Errima lana geroago etorriko da.*

Kantatzeko gai bazarete. Errimatzeko ere bai. Hiru gauzatatik bi egiten badakizue. Martxa honetan ikastaroa berehalaxe amaitu behar dugu. Har ditzagun orain elkarrekin errimatzen duten hitz horietariko lau. Adibidez:

Lapurra  
Zakurra  
Egurra  
Bildurra

Orain hitz hauekin zerbait esan behar dugu. Bakoitzarekin zerbait asmatu behar dugu. Zer? Ea! LAPURRA. Esan zerbait hitz horrekin eta berdin besteekin:

Ni naiz lapurra  
Zu zara zakurra  
Hartzen dut egurra  
Horrek ematen dit bildurra

Ederki. Orain ea nik nola kantatzen dudan hori:

Ez baldin badakizu  
ni nauzu lapurra  
baina okerragoa  
zu zara zakurra.  
Aspaldion ugari  
hartzen dut egurra  
horrexek ematen dit  
benetan bildurra.

Zer egin dut nik? Neurtu bakarrik. Hitzak zuek eman dituzue. Zeresana ere zuek asmatu duzue. Nik neurtu besterik ez dut egin. Kantatu ere bai, jakina. Baina kantatzea erreza dela esana dugu. Ezetz? Kanta dezagun denok batera.

*Orain irakasleak arbelean idatz beza leben buruz kantatua. Hitzez hitz ez hada ere, berdintsu. Gero denen artean kantatu, Xarmagarria doinuz beti.*

## NEURRIA

Beraz, neurria bakarrik falta zaizue. Erreza al da hori? Horixe da zailena, hastean behintzat. Neurria zehatza da. Gehiena eta gutxiena bat dira. Ez dago bien bitarterik. Erriman gutxiena edo minimoa erreza da. Bai eta gehiago ere.

Esate baterako, era guztietako zuhaitzez beteriko oihan bat. Sua egiteko, aski duzue oihan muturretik egur batzu ekartzea. Alde horretatik, nahi ainaugarri ekar dezakezue. Hala ere, oihan osoa eta zuhaitz mota guztiak ezagun dituenak su hobia egiteko modua dauka beti ere. Hori beste gauza bat da.

Neurrian, ordea, ez dago goi-beherik. Zehazki neurtu ezik, gaizki neurturik egongo da. Bi eta bi lau dira eta hor ez dago bien bitarterik. Horixe da hain zuzen gure lehen helburu nagusia: neurtzen ikastea. Neurrian sartzen ikasi. Ba al da horretarako ikaspiderik? Horretaraxe goaz.

## II

# TERMINOLOGIA

### MARKESAREN ALABA (Iturrino)

- 1) Zeruak eta lurrak egin zituena memoria argitzera atoz neregana. Esperantza badaukat zedorrek emana kunplituko dedala desio dedana.
- 2) Amoriozko penak bertso berrietan publika al banitza Euskal Herrietan. Enteratu naiz ongi enkargu hoietan San Jose arratsaldeko hiru t'erdietan.
- 3) Markesaren alaba interesatua marineruarekin enamoratua. Deskubritu gaberik bere sekretua amorioa zeukan barrera sartua.
- 4) Egun sinalia zan goguan hartzeko esan ziola arren etxera joateko. Deseo dedan hitz hau manifestatzeko zurekin, Antonio nago izateko.
- 5) Zer esaten didazu Joanita hitz hori? Tentatzen ai zerala trazak badirudi. Etzait zure gradurik tokatutzen neri ez burlarikan egin marineruari.
- 6) Iduki dezakezu ongi sinistua aspaldian nagola zutaz gustatua. Etzaitut nik utziko desanparatua hala egiten dizut gaur juramentua.

- 7) Konformatu ziraden  
alkarren artian  
ezkonduko zirala  
hurrengo urtian.  
Eskola ikasteko  
bien bitartian  
beraren herritikan  
guztiz apartian.
- 8) Hala disponiturik  
jarri ziran biak  
kartaz entenditzeko  
alkarren berriak.  
Formalidadiakin  
jartzeko egiak  
baina etziran lo egon  
amaren begiak.
- 9) Alferrik izango'ira  
hasarre guztian  
ez naute mudatuko  
eternidadian.  
Esposatu nai nuke  
kariño onian  
Antonio Maria  
etortzen danian.
- 10) Ezin egon zan ama  
hitz hori sufritzen  
berihala hasi zan  
kartak detenitzen.  
Intentzio guztiaz  
ezkontza galdutzen  
Joanitak halakorik  
etzuen pentsatzen.
- 11) Amaren malezia  
korreora joanda  
Antonio hil zala  
egin zuan karta.  
Joanitaren tristura  
maitia esan ta  
engainatu du bestek  
gezur bat esanda.
- 12) Amak esaten dio:  
Joanita neria  
galdu da diotenez  
Antonio Maria.  
Nik bilatuko dizut  
beste bat hobia  
maiorazgo interes  
askoren jabia.
- 13) Ama, ez esan neri  
horrelakorikan  
ez det nik bestengana  
amiorikan.  
Ezin alegra leike  
nere barrenikan  
kontzientzia ona  
egonagatikan.
- 14) Utzi alde batera  
horrelako lanak  
ez ditut nik ikusten  
zu bezela damak.  
Nai badituzu hartu  
onrak eta famak  
giatuko zaituzte  
aitak eta amak.
- 15) Denbora kunpliturik  
galaia abian  
zer pasatu ote zan  
haren memorian.  
Kartarik hartu gabe  
juan dan aspaldian  
inozente sartu zan  
jaio zan herrian.
- 16) Hau da lendabiziko  
esaten zuena:  
Zer da musikarekin  
onratzen dutena?  
Markesaren alaba  
kalian barrena  
esposario zala  
hark bihar zuena.



- 17) Desmaiatu egin  
zuen ordubete  
gero nobia eske  
hitz bi egin arte.  
Inguratu zitzaien  
makina bat jente  
bigarren ordurako  
hilda derrepente.
- 18) Gaba pasatu eta  
hurrengo goizian  
entierua zuen  
bigarren klasian.  
Markesaren alaba  
guzien atzian  
zer pena izango zan  
haren bihotzian.
- 19) Penarekin lerturik  
Antonio hil zan  
akonpainatu zuen  
Joanitik elizan.  
Naitasuna bazion  
esan dedan gisan  
geroztikan etzuen  
osasunik izan.
- 20) Erremedio bazan  
sentimentu hori  
bitarteko bat jarri  
Jesus maiteari.  
Orazio eginaz  
Birjina Amari  
zeruan gerta dedin  
Antonio Mari.
- 21) Alkarren konpainian  
guk ere nai degu  
Birjina egiozu  
Jaunari erregu.  
Kristau guztiongatik  
baldin al bazendu  
Iturrinok horrela  
desiatutzen du.

Aurrerago jo aurretik, azal ditzagun etengabe erabili beharko ditugun hitz batzuk.

Bertso neurriari buruz, erabilienak eta hemen ere erabiliko ditugunak hauek dira:

KOPLA TXIKIA  
 KOPLA HAUNDIA  
 ZORTZIKO TXIKIA  
 ZORTZIKO HAUNDIA

Kopla txikia sortziko txikiaren erdia bezala da. Kopla haundia zortziko haundiaren erdia bezala. Hona zortziko txikiaren egitura:

1	2	3	4	5	6	7
I	-tu	-ren	-go	ha	-ro	-tza
E	-rra	-mun	JO	-A	-KIN	
Ha	-se	-rre	o	-men	zau	-de
ze	-ren	du	-gun	JA	-KIN	
san	-tu	-rik	ez	lai	-te	-ke
fi	-a	-tu	ZU	-RE	-KIN	
San	Kris	-to	-bal	ur	-tu	-ta
jo	-a	-ri	-ak	E	-GIN	

Zortzikoa da zortzi lerro dituelako. Eta txikia, beste bat haundia dagoelako. Zortzi lerroak binaka doaz. Lau bikote, beraz. Bikote bakoitzari PUNTUA deritza. Puntu bakoitzeko bigarren lerroko azken hitzari OINA deritza. Elkarrekin erimatzen duten hitz horiei oinak deritze.

Puntuko lehen lerroak zazpi silaba daramatza eta bigarrenak sei. Beraz zortzi lerro, lau puntu zazpi-sei silabakoak eta lau oin.

Zortziko haundia gauza berbera da, baina zazpi-sei silabako puntuak eduki beharrean, hamar-zortzikoak.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Bai	-etz	us	-te	-ko	de	-zu	-te	bai	-nan
ez	na	-go	o	-so	LA	-SAI	-A		
Zal	-du	-ni	-o	-te	e	-gu	-ne	-ra	-ko
sar	-din	za	-rra	-ren	U	-SAI	-A		
A	-ni	-ma	-ren	-tzat	me	-se	-de	-rik	ez
gor	-pu	-tza	-ren	-tzat	E	-TSAI	-A		
ez	-ta	ho	-rre	-la	kos	-tun	-bra	-tu	-a
I	-zu	-e	-la	-ko	AR	-TZAI	-A		

Beraz, zortzi lerro, lau puntu hamar-zortzikoak eta lau oin.

Kopla txikia zortziko txikiaren erdia da:

1	2	3	4	5	6	7
As	-to	-a	sal	-du	e	-ta
man	-do	-a	E	-RO	-SI	
la	-rru	-a	ken	-du	e	-ta
gal	-da	-ran	E	-GO	-SI	

Eta kopla handia zortziko haundiaren erdia:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Hil	kan	-pai	hoi	ek	ne	-gar	e	-gi	-ten
du	-te	mu	-si	-ka	ta	GU	-ZI		
O	-rain	-go	-e	-tan	li	-bre	naiz	e	-ta
hu	-rren	-go	-e	-tan	I	-KU	-SI		

Kopla txikian badira hiru puntu eta hiru oinekoak, kopla haundian ere badiren bezala. Hemen axola zaigunerako, aski da esanik duguna.

Hona, beraz, zer diren ondo gogoan hartzeko hitzak: **KOPLA TXIKIA, KOPLA HAUNDIA, ZORTZIKO TXIKIA, ZORTZIKO HAUNDIA, PUNTUA eta OINAK.**

### III

## DOINUA

Doinuan ez dagoela problema haundirik esaten genuen, erremediorik gabeko belarri txarren bat izan ezik. Kasu hori izatekotan, ez dago balio izango dion ikaspiderik. Zorionez, ordea, bertso doinuak kantatzeko gai ez den belarririk ez dago.

Ikaspide honetan bost doinu erabiliko ditugu: **kopla txikia, kopla haundia, Xarmagarria** eta bi **zortziko haundi**. Gure helbururako ez da besterik behar, eskolan bertan behintzat.

Doinuak ehundaka dira. Horiek ikasteko ez da aparteko ikaspiderik behar. Noizean bat hartu eta ikasi. Eskola bakoitzaren hasieran datozen bertsoak bakoitzean doinu desberdinez kanta daitezke, bide batez doinuak ikasiz. Irakaslearen esku dago hori, taldean zenbat doinu dakiten eta abar kontutan edukirik. Baina eskolako ariketetan doinuak aldatzen ibiltzerik ez da komeni. Karneta ateratzen ari denari egunero auto berria ematea bezala litzateke. Utziozu auto batean ibiltzen ikasten eta gero aisa moldatuko da besteetara.

Dena dela, doinu ikastea ere taldean egin liteke eta ederki ematen du. Gainera bestela bakarka egingo ez litzatekeen lana egin erazteko akuilua da taldea. Liburu honetan zehar sarturiko bertsoak zortziko txikiak edo haundiak dira denak. Badira hamarreko txikiak eta haundiak ere, baina kasurako berdintsu da, horien neurria zortzikoak bezalakoa baita, puntu bana gehiago dutelarik. Ikaspide honetan, bai kopla eta bai bertso, neurri horien barruan gabiltzanez gero, bertso jarriak ere halakoxeak hautatu ditut. Beste neurrietara pasatzea geroago egin litekeen lana da eta ikaspide berezirik behar ez duena noski.

Eskola bakoitza kantatuz hastea komeni da. Edo hasteko era on bat da behintzat. Horretarako daude bertso jarriak. Kantaldi horretan doinu ezagunak erabiltzeko edo berriak ikasteko aukera ona dago bide batez. Hor doinuak aldatzea egoki da, aspergarri bihur ez dadin. Zenbat eta nolakoak, irakaslearen eta taldearen esku dago. Baina gero, eskola barruko ariketetan, liburuan ematen diren doinuetatik irteterik ez da komeni, ikastaroa aurreratu ahala, ikasleek oso ondo menderatzen duten beste doinuren bat ez bada.



BI  
KOPLA TXIKIA

## IV

# GILTZAK

### ARDOAREN AZAINAK

- 1) Hogei bertso berriak  
horra Tolosatik  
ilia urdinduta  
fabrika zarretik.  
Inprentan ere ongi  
moldez paraturik  
mozkorrak gelditzeko  
eskarmentaturik.
- 2) Ardoaren bentajak  
noa esatera  
milagro haundiagorik  
munduan ote da.  
Hasi baino lenago  
inor edatera  
zenbat konbeni zaion  
kontuak atera.
- 3) Ezta filosoforik  
ez teologorik  
ardoari neurria  
hartuko dionik.  
Gizon haundiak ere  
ikusi ditut nik  
beren mozkorra ezin  
disimulaturik.
- 4) Gizonak galdetzen du:  
Non da ardo ona?  
Ardoak erantzuten:  
Hemen nago, jauna.  
Zu nai zinduket hartu  
nerekin laguna  
beldur gabe pasatzeko  
gaba ta eguna.
- 5) Preso para ninduten  
kupela batian  
geroztik hemen nago  
sei hilabetian.  
Nik lagunduko zaitut  
amorio onian  
begira izan ez dedin  
zuretzat kaltian.
- 6) Peleatzera nator  
ardoa, zurekin  
zenbat fuertza dituzun  
behar nuke jakin.  
Betor matsaren kasta  
bere adarrakin  
ez naiz ikaratuko  
harren indarrakin.

- 7) Ardoak esaten du:  
 Begirauk tontua  
 ez badek ateratzen  
 hobeki kontua.  
 Laster jarriko zaizu  
 mingaina lotua  
 burua makurturik  
 oso zorotua.
- 8) Ardoak ematen du  
 berak aditzera:  
 Aski edan dezute  
 zoazte etxera.  
 Zertara etorri zera  
 guri agintzera?  
 Oraindikan nerekin  
 nagusi etzera.
- 9) Gizonak hobe luke  
 ez jaio mundura  
 ardoak galdutzekoz  
 bere ezagura.  
 Noiz nai amildu eta  
 erreka edo ura  
 igual sartuko da  
 sukaldeko sura.
- 10) Batian arrastaka  
 bestian erori  
 nolabait etxera da  
 gizon eder hori.  
 Gero maldezioka  
 andre gaxoari  
 txapela kendutzeko  
 taberneruari.
- 11) Gizona etzan zaitetz  
 pakian oihera  
 eguna argitziaz  
 konponduko gera.  
 Txapela prenda utzita  
 etorri al zera?  
 Kreditu ederren bat  
 badegu zartzera.
- 12) Ardoak etzuela  
 zenion indarrik  
 txapela batengatik  
 ez egin negarrik.  
 Ez det ikusi nai nik  
 horrela senarrik  
 ez du buru galduak  
 txapela beharrik.
- 13) Esaten dizut bada  
 beti alferrikan  
 etzaitala gustatzen  
 gizon mozkorrikan.  
 Beti txapelik gabe  
 zu tabernatikan  
 hondatuko zenduke  
 Leongo fabrika.
- 14) Halako gizon txarra  
 mozkortzen danian  
 lengo pentsamentuak  
 ditu mingainian.  
 Ez perdonarrik egin  
 gaurko egunian  
 ardoa geldi dedin  
 kreditu onian.
- 15) Aski da ikustia  
 andre bat hordia  
 edanago naiago  
 beti egarria.  
 Nonbait legorra dago  
 haren eztarria  
 hori da bizo bat  
 etxe galgarria.
- 16) Halako familian  
 bada sobra neke  
 negandikan beintzat  
 urruti nai nuke.  
 Burdeosko kaia ere  
 berea baluke  
 hiru urte baino len  
 tragatuko luke.

- 17) Edari gustozkoa  
matsaren zumua  
horrek enredatzen du  
galanki mundua.  
Gutxi izana dute  
batzuek damua  
naiz egin dezatela  
non nai alderua.
- 18) Andria ezin altxa  
senarra ari da  
parrez itotzen dago  
jendia begira.  
Altxatu dolorez ta  
berriz erori da  
zikintzeko beldurrak  
loiaren erdira.
- 19) Horiek ikusita  
mozkortzen danari  
pozik emango nioke  
frasko bat edari.  
Ez naiz ikaratuko  
esatiaz hori  
sekulakoz harekin  
eskarmenta bedi.
- 20) Hau da errematia  
gure ardoarena  
ia nor hasiko dan  
mozkortzen aurrena.  
Bizio guzietan  
hori da txarrena  
mandamentu guziak  
galtzen dituena.

Egin dezagun oin zerrenda bat. Adibidez: IKUSI. Segi orain zuek:

**Ikusi**  
**Nagusi**  
**Itxusi**  
**Erosi**  
**Biluzi**

Aski. Oin zerrendak egiten badakizuela frogaturik dago. Kopla bat egiteko, bi behar dira. Zeintzuk hautatuko ditugu? Ea, ba:

**IKUSI**  
**ITXUSI**

Oinak baditugu. Orain zer esan hitz horiekin?

Asma zer bait IKUSIrekin:

**Zerri bat nuen atzo ikusi**

Ederki. Orain ITXUSIrekin:

**Muturra zeukan itxusi**



Beraz:

Zerri bat nuen atzo ikusi  
Muturra zeukan itxusi

Orain esaldi bakoitza bi lerrotan banatu behar dugu. Zergatik? Esaldi bakoitzarekin puntu bat egin behar delako eta puntu bakoitzak bi lerro dituelako. Nola erdibitu? Lehen esaldia:

Zerri bat nuen atzo  
ikusi

edo: Zerri bat nuen  
atzo ikusi

Bigarren esaldia: Muturra  
zeukan itxusi

edo: Muturra zeukan  
itxusi

Har dezagun era bat. Adibidez:

Zerri bat nuen	-2
atzo ikusi	-1
Muturra zeukan	-2
itxusi	-3

Hau honela kantatzerik ez dago. Gaizki neurturik dago. Zenbaki horiek lerro bakoitzari falta zaizkion silabak dira. Ondo kantatzekotan, beraz, lerro bakoitza HORNITU egin behar da.

Hona orain hitz zerrenda bat, hornilan hori egiteko balio duena:

- 1) Bai, ez, ba, ba-, gaur, lehen, hain, txit, han, hor, maiz.  
Ni-nik, gu-guk, hi-hik, zu-zuk, hark, haik, hoik.
- 2) Aizu, beraz, otoi, noski, arren, segur-zihur, oso-gutziz-arrunt-arras, aurki-nonbait, zinez-egiz, hortaz-hortan, orain, gero, egun, ongi-ondo-ontsa, gaizki, aisa, behintzat, berriz.

Hura, bera, berak, haiek, hoiek, hauek, zuek.

Nire-ene, gure, zure, hire, zuen, haren-bere, haien-beren.

Hala, hola, hemen, handik, hortik, hona, horra, hara.

Gizon, mutil, andre, neska, lagun, jauna, jaunak, gazte.

- 3) Bederen, akaso-agian, beharbada, segurki-seguru, erabat, osoki-biziki-zeharo, batipat, behinik behin, horratik-tio-tino, benetan-egitan-egiazki, horretan-horretaz, funtsean, orduan-beraz, oster-a-ordea, nolana, nolabait, sarritan-askotan-frankotan, ederki, poliki, alegia, dirudienez.

Gizona-k, entzule-a-ak, adiskide-a-ak, mutila-k, laguna-k, anaiak, jaunandreak-ok.

ONA-ONAK: lagun, jaun, entzule, jende, adiskide.

MAITE-MAITEA-MAITEAK: lagun, jende, jaun, entzule, anai, adiskide.

Neroni, zerori, herori, berori, neronek, herorrek, zerorrek, berorrek, horiek, zeroiek, beraiek.

- 4) Hain zuzen, hain suertez, dena den, dena dela, gaur egun, bihar, etzi, hitz batez, hitz batean, hitz bitan, segur asko, sarri askotan

DENEZ: agi, antza, itxura.

Hona hemen, horra hor, hara han, hona ba, hona bada, horra ba, horra bada, hara ba, hara bada.

ERE: Inoiz, inola, inor, inon, ezer, deus, deusik, sekula.

Beti ere, hemen ere, nolana ere, nolabait ere, noiznahi ere, nonbait ere.

Zerrenda hauek **Bertsolaritza 1 - Hitzaren Kirol nazionala** liburuko kapitulu baten laburpen hautatua dira. Ikus han osorik, 180garren orrialdetik aurrera.

1. sailekoak silaba bakarrak dira. 2.koak silaba bikoitzak. 3.koak hiru silaba edo gorakoak. 4.koak azkenez bi hitzez osaturiko adberbioak. Ea orain zerrenda horiekin nola hornitzen duzuen goiko koplak gaizki neurtua. Bi falta diren erroetan bikoei begiratu eta hiru behar direnetan hirukoei. Beste konbinapenik ere egin liteke noski:  $1 + 1 = 2$ . Beraz, bi falta diren lekuan bi silaba bakar.  $1 + 1 + 1 = 3$ : hiru silaba bakar.  $1 + 2 = 3$ : silaba bakarra eta silaba bikoitza.

Dena den, hiru silaba bakar ondo sartzea ez da erreza, itxusi geratzen baita gehiengan. Gainera silaba bakarrak izan ere ez dira asko, sailean sartzeko. Bi falta diren lekuan bikoak eta hiru falta direnean hirukoak ondo ematen badu, horixe da

biderik laburrena. Bat falta den lekuan argi dago silaba bakarrez hornitu behar dela. Ea, ba, nola hornitzen eta ondo neurturik uzten duzuen. Bakoitzak amaitu ahala, eskua jaso.

*Tarte bat eman. Baliteke jendeak amaitu eta eskurik ez jasotzea. Norberak tiratu.*

Zer? Amaitu al da? Batek bai. Bi. Hiru. Aupa, mutilak! Lau. Bost. Sei. Zazpi... Aski! Ea! Kanta dezagun orain.

*Demagun, adibidez, norbaitek honela osatu duela:*

**Zerri bat nuen noski  
nik atzo ikusi  
Muturra zeukan berak  
benetan itxusi.**

*Ahalik gehienei kanta erazi. Baina kontuz. Lehenengotan ez gehiegi tiratu. Joango dira animatuz eta jokoan sartuz.*

*Beste gauza garrantzitsu bat: bat, bi, hiru, lau... horretan noiz esan nahikoa dela? Bi gauza kontutan eduki behar dira. Lehenbizi zenbat ikasle diren. Hirutatik batek edo horrela egitean, hasi kantatzen. Talde txikia bada, erdiak inguru. Hamarretik bost, hamabostetik sei edo zazpi, hogeita bostetik zortzi-hamarren bat eta horrela.*

*Denei eragitea ez da on, azken geratzea ez baitu inork maite. Amaitu ez dutenak taldean utzi behar dira, multzotasun horretan lasai ibil daitezten. Gainera denei eragitea aspergarri litzateke, luzeegi baita.*

*Eta irakasleak nahi lukeen einera iristen ez badira edo asko kostatzen zaiela ikusten badu? Orduan irakasleak argi ibili behar du. Ezinean dabiltzala pentsatzeko aukerarik ez eman. Luzeegi eta nekezegi badoa, disimuluan moztu eta aurrera. Jendea joango da jokoan sartuz, ariketa batean inor desanimatu gabe. Tiratu, baina arrastatu gabe. Bultzatu, baina berak doazela pentsa eraziz.*

*Hirutatik batek jasotzean amaitzea, denei aukera ematea da. Ariketa batean ez bada bestean, jende desberdina sartuko da. Beti izango dira batzuk, lehen samar dabiltzanak. Hauek dena akapara ez dezaten kontua behar da. Beste batzuk ere beti izango dira gutxiago parte hartzen dutenak, nekezago egiten dute edo, egin arren, kantatzen ausartzen ez direlako. Hauek, derrigortu gabe eta besteen aurrean ager erazi gabe, jokoan sar eraziz joatea, horra irakaslearen trebetasunari dagokion lan bat. Talde giroa eta taldeko konfidantza lortzea ez da egun bateko lana. Inor atzeratu gabe aurrera egitea, horra irakaslearen sena. Horretarako ikasleak taldean eta banaka ezagutuz joatea irakaslearen eginkizunik haundienetarikoa da.*

Kopla bat egina duzue. Goazen beste batera. Orain hitz zerrendatik hasi beharrean, hori erreza baita, bi oin bakarrik jarriko ditugu. Adibidez:

## **ATEA**

Eta?

*Demagun KATEA esaten dutela.*

Lehen urratsa emana dugu:

**Atea**  
**Katea**

Bigarrena: ATEArekin zer esan? Adibidez:

**Zabalik dago atea**  
**Baina gainean daukat katea.**

Hirugarrena: Zabalik —4  
                  dago atea —1  
                  baina gainean —2  
                  daukat katea —1

Laugarrena: Orain hornitu. Baina iso! Gorago emaniko zerrenda horretatik bakarrik izan behar du. Zerbaitegatik jarri ditugu hitz horiek klabetzat. Hornitzeko beste era asko ere badago. Baina orain zerrenda horrexek bakarrik balio du. Hasi, lehen bezala. Amaitzean, jaso eskua. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost. Sei... Aski! Kanta dezagun.

*Demagun norbaitek honelaxe osatu duela:*

**Jaun-andreak, zabalik**  
**dago hor atea**  
**baina gainean zinez**  
**daukat nik katea.**

*Hiruri edo lauri kanta erazi, inor derrigortu gabe.*

Beste bat: 1) **Beti**  
              **Hobeki**

2) **Gerra bila gabiltza beti**  
      **Bakea genuke hobeki**



- 3) Gerra bila —3  
 gabiltza beti —1  
 Bakea —4  
 genuke obeki —0

- 4) Nolabait gerra bila  
 gabiltza gu beti  
 bakea ala ere  
 genuke obeki

- 5) Orain kantatu. Hiruk edo lauk.

Lehenengo aprobatik hirugarrenera denbora asko laburtu duzuela ohartu al zarete? Ez al duzue hirugarren hau askoz erreziagi egin? Orain azter dezagun eginiko lana. Zer kostatu zaizue gehien?

*Hemen zerbait erantzuten dutenen artean, gehien batez lau gauza hauekiko bat esango dute:*

- 1) *Esankizuna. Oin bakoitzarekin zer esan?*

- 2) *Esaldi bien arteko lotura. Koherentzia. Bi puntuak banaka bai, baina nola elkarrekin josi?*

- 3) *Neurtzea edo hornitzea.*

- 4) *Dena. Niri dena kostatzen zait.*

*Dena kostatzen zaiela esaten dutenei, hori ez daitekeela izan ohar erazi behar zai. Gehienez ikasleek koplak bat edo bertso bat egitea orokorki hartzen dute, lan bakarria baliatuz bezala. Lan orokor bakar horren barruko lan desberdinak alekatzen saiatu behar da. Zehatu eta horretaz ohartu. Ez dira berdinak gaia edo esankizuna, lotura, neurria, kantatzea eta abar. Desmuntatu egin behar da eta pieza bakoitza banaka aztertu.*

*Beste batzuk ez dute zer erantzun jakingo. Horiei ez gehiegi tiratu. Hala ere bozketa txiki bat egitea ez dago gaizki, norbaitzuk zerbait erantzundakoan.*

Ea! Hemen batzuk zeresana kostatu zaizuela gehien esan duzue. Beste batzuk lotura. Beste batzuk neurria. Beste batzuk dena. Jaso eskua zeresana gehien kostatu zaizuenok. Jaso orain lotura zailen egin zaizuenok. Orain neurria gehien kostatu zaizuenok. Orain...

1) Gaia edo zeresana ez duzue horren zaila. Oinak berak lehenen idarokitzen duenari tiratu eta aurrera. Hitz bakoitzak, esanez batera, zerbait dakar gogora. Beraz, hitzak edo oinak berak ematen duen gaiari heltzea ez da hain zaila. Laster egingo dugu aproba.

2) Lotuari oraingoz ez daukazue jaramonik egin beharrik. Gainera loturak eta koherentziak egiten diren bezalakoak dira. Eta zergatik ez gauza inkoherenteak edo ustez loturarik gabeak esan? Euskaraz ondo esana eta ondo neurtua baldin badago, aurrera.

3) Neurria. Hementxe dago gakoa. Hauxe da gure helburu nagusia. Ken beste eragozpenak. Oinak? Aurrez eman oraingoz. Esankizuna? Oinek ematen dutenari segi. Lotura? Ateratzen bada, ondo eta bestela aurrera. Hemen neurria da nagusi. Horretan ari gara eta horretara goaz. Hala ere hurrengo ataletan aproba batzuk egingo ditugu, oztopo horiek gaintzeko eta konfidantza hartuz joateko.

*Zenbait ohar, atal hau amaitu aurretik. Garrantzitsua da emaniko hitz zerrenda horretatik hornitzen irakastea. Batzuk beste era batera ere ondo neurtzea baliteke, batez ere ideia pixkaren bat baldin badaukate edo badaukatela agertu nahi baldin badute.*

*Zerrenda hori zerbaitegatik jarria dago. Ez gara nolnahi hornitzen ari, klabe batzuren bidez baizik. Horietaz jabetzen ari gara. Bestela gaizki egiten dutenik esan gabe, zerrenda horretara makurtzen irakatsi behar zaie, geroago beste zerrenda batzutara bezala. Egunean egunekoa.*

*Kantatzean, bizkorregi kantatzeko joera izango da gehienez. Irakasleak galdetzen eta astiroago eramaten saiatu behar du. Astiro eta sendoki kanta dezate-la, solemnitate pixka bat eman ez. Bizkor kantatzea ez al da astiro kantatzea baino zailago? Alderantziz gertatzen da, ordea. Erdi lotsaz edo bildurrez dabilenak agudo botatzen du daukana, ez baitu konfidantzarik. Hala ere, hori ez zaie esan behar, den baino zailago egiten dutela baizik. Meritua, beraz. Zailagoa egiten duenak ez ote lezake errezagorik egin? Eta horrelako arrazoiak.*

*Kopla txikia kantatzeko, bi doinu ditugu: Errepikaduna eta Xarmagarria. Bigarren honekin, bakarrak edo koplariak lehen erdia kantatzen du eta bigarren zatia denek batera, laralaratuz.*

*Doinu bata eta bestea txandaturaz erabili. Baina ez besterik sar. Karneta ateratzen ari denari ez egunero autorik alda. Lehenbizi auto batean ibiltzen ikasi behar du eta gero aisa hartuko die eskua besteei. Ez ekar behar ez den nahaspiderik, orain neurriarekin ari baikara.*

## GAIA EDO ESANKIZUNA

## POTAJIARENAK (Bilintx)

- 1) Egunaren izena  
ez dakit nola zan  
bainan seinalagarri  
partidu bat bazan.  
Pilotan jokatzeko  
Oiartzungo plazan  
nai det nere orduko  
gertaera esan  
hurrengoan beste bat  
eskarmenta dezan.
- 2) Partidua jokatzez  
bukatu zanian  
ostatura joan nintzan  
zuzen zuzenian.  
Maira jana ekartzen  
hasi ziranian  
apaiz bat zerbitzen zan  
aurren aurrenien  
sartu zan makina bat  
haren barrenian.
- 3) Nere ditxa guziak  
badute ajia  
noski naiz Jaungoikuak  
aztuta lajia.  
Gosiak egin nuen  
hango bi ajia  
kulpa zuen harentzat  
daukat korajia  
apaiz batek jan zuen  
nere potajia.
- 4) Zintzur ona zuela  
ondo sinaliak  
eman zituen apaiz  
babarrun zaliak.  
Dozenaka tragatzen  
zituen aliak  
maskatu ere gabe  
tripazai jaliak  
halako aisa nola  
antxoa baliak.
- 5) Tragatutzen zituen  
igar ta hezeak  
ez ziran haren dina  
zetozen klaseak.  
Agertu orduko zeuzkan  
tripara paseak  
kortesia gabeko  
txapela luzeak  
harek naikua janda  
ni berriz goseak.
- 6) Geroztik ostatuan  
sartu ordurako  
galdea egin gabe  
ez det nik faltako.  
Egun hartako apaiza  
ote dan harako  
ez apaizak guziak  
berdin diralako  
baizik batek bildurra  
sartu zidalako.

## JAI-JAI (Bilintx)

- 1) Bein batian Loiolan  
erronomia zan  
hantxen ikusi nuen  
neskatxa bat plazan.  
Txoria bainon ere  
arinago dantzan  
huraxe bai polita  
han politik bazan.
- 2) Esan nion desio  
senti nuen gisan  
harekin hizketa bat  
nai nuela izan.  
Erantzun zidan ezik  
atsegin har nezan  
adituko zidala  
zer nai nion esan.
- 3) Arkitu ginanian  
inor gabe jiran  
koloriak gorritu  
arazi zizkidan.  
Kontatuko dizuet  
guzia segiran  
zer esan nion eta  
zer erantzun zidan.
- 4) Dama polita zera  
polita guztiz ai!  
Bainan halare zaude  
oraindik ezkongai.  
Ezkon gaitezen biok  
esan zaidazu bai.  
Ni zurekin ezkondu?  
Ni zurekin, ja-jai!

Egin dezagun oin zerrenda bat. Esan hitz bat.

*Demagun norbaitek BURUA esaten duela. Arbelean idatziz.*

Segi orain:

Burua  
Zerua  
Purua  
Segurua  
Ingurua  
Aingerua  
Dirua  
Mirua  
Liburua

Oin hauetariko bakoitzez ez al da **zerbait** esaterik? Edozer, baina zerbait.  
Lehenen burura datorrena. Ea! Egin oin bakoitzez esaldi bana.

*Ikasle bakoitzak bere esaldi zerrenda egin dezala.  
Hona hemen adibide posibletariko bat:*

Soinean daramat burua  
Non ote dago zerua?  
Erreko nuke purua  
Hori ez da gauza segurua  
Polita da gure ingurua  
Ni ez naiz aingerua  
Aberatsek daukate dirua  
Txori gaiztoa da mirua  
Ekar ezazu liburua.

Hain zaila al da hau?

Har ditzagun orain oinak banaka eta oin berarekin esaldi posibleak egin:

### **BURUA**

Ederra daukak burua  
Galdurik dauka burua  
Gaizki dabil zure burua  
Nor da hemen burua?  
Haundia sabela, txikia burua  
Hil zuen bere burua.

Har dezagun orain **ZERUA**

Sukaldea katuen zerua  
Honek dirudi zerua  
Ederra omen da zerua  
Aspergarria omen da zerua  
Dirua da munduko zerua  
Lurrean nahi nuke zerua.

Eta hala besteekin.

*Ariketa honi zenbat ekin irakasleak neurtu behar du. Gehiegi luzatu gabe,  
aspergarri gerta ez dadin.*



## VI

### LOTURA

#### URZO XURI POLLIT BAT

- 1) Urzo xuri pollit bat  
bazen herri huntan  
aita amak utzirik  
joan zen airetan.  
Paregabia baitzen  
bere lagunetan  
ihiztariak zuen  
atzeman saretan.
- 2) Urzo xuri pollita  
kaiolan eritu  
eta ihiztaria  
tristezian sartu.  
Gaitza berri zueno  
nahi zuen saldu  
erostun tontuen bat  
harrapatu balu.
- 3) Aita ama gaixuek  
ez bide zakiten  
ihiztari zaharrak  
zer zuen egiten.  
Urzuak zituela  
kaiolara biltzen  
eta han inozentez  
ongi baliatzen.
- 4) Ihiztari zaharra  
gaizki usatua  
etzautzu baliatu  
aurtengo tratua.  
Gogoz saltzen zinuen  
urzo kolpatua  
izan balitz mundua  
arras lokartua.
- 5) Bertsuak eman tugu  
gauaren erdian  
hamar mutiko gaztek  
omore onian.  
Ez dugu ez emanen  
bakerik herrian  
urzoa sorlekura  
ekarri artian.

## URZAPAL BAT (Etxahun)

- 1) Urzapal bat badügü  
herrian tristerik  
nigarrez ari duzu  
kaloian barnetik.  
Bere lagün maitiaz  
beit'izan ützerik  
kontsola ezazie  
zuek, adixkidik.
- 2) Oi ene izatia  
dolorez beterik  
mundian ez ahal da  
ni bezan trixterik.  
Ni bezala maitiak  
traditu dianik  
habil, amodiua  
hurrun eneganik.
- 3) Traditu zutudala  
deitazut erraiten  
bata eta bestia  
gu biak bat ginen.  
Ene bihotza zaizu  
bizikoz egonen  
behar beitzutut utzi  
lotsaz etzekuen.
- 4) Oi ene traidorea  
zer duzu jaukitzen?  
Ele faltsu erraitez  
etzireia asetzen?  
Ene flaku izanez  
zira prebalitzen  
hortatik ageri'zu  
nunko seme ziren.
- 5) Maitia nahi zütüt  
segreki mintzatü  
arrazuez nitzaizu  
behar elestatü.  
Nik bihotz oroz zütüt  
osoki maitatu  
utzi behar beitzutut  
hiltzera nuazü.
- 6) Tunba bat nahi dit nik  
lürpian ezari  
ene korpitz trixtia  
gorde mündiari.  
Ene ixter-begiek  
egin dezen erri  
haieki zirate, bai  
zu ere han sarri.

Goazen orain loturara. Zorioneko koherentzia horretara. Bota dezagun oin zerrenda bat. Adibidez:

Gatza  
Saltsa  
Garratza  
Berakatza  
Baratza  
Orratza  
Ardatza  
Datza  
Latza  
Zehatza

Ez goaz lotura haundien bila. Ez goaz ideia haundien bila. Har ditzagun oinak binaka eta hona hainbat lotura posibleetariko bana bikote bakoitzarentzat:

Gehiegi bota dut gatza  
eta izorratu zait saltsa

Hauxe da gauza garratza  
dirudi dela berakatza

Lantzen ari nintzen baratza  
eta galdu nuen buruko orratza

Gurdiak behar du ardatza  
haren indarra hor datza

Hiltzea destino latza  
hori da arrazoi zehatza

Kasu hauetan lotura osoa dago. Horrek ez du lotura artistiko haundiak direnik esan nahi. Oraindik ez gara zuzenki arterik egiten ari, horretarako tresna manciatzen ikasten baizik.

Har dezagun orain oin bat eta harekin osaturiko esaldi bakar bat eta huraxe beste guztiekin konbinatuz joan. Adibidez **ARDATZA**.

## EUSKARA DA EUSKALDUNEN ARDATZA

Hona konbinapen posibleak:

Janariak behar du gatza  
Euskara da euskaldunen ardatza

Argituko al da darabilgun saltsa?  
Euskara da euskaldunen ardatza

Hizkuntza galtzea zer gauza garratza!  
Euskara da euskaldunen ardatza

Euskara da euskaldunen ardatza  
nahi ez duenari eman berakatza

Ikusirik Euskal Herriko baratza  
Euskara da euskaldunen ardatza

Dela haria edo orratza  
Euskara da euskaldunen ardatza

Euskara da euskaldunen ardatza  
etorkizuna hortxe datza

Euskara da euskaldunen ardatza  
hor daukagu eginkizun latza

Nahi baduzu arrazoi zehatza  
Euskara da euskaldunen ardatza

Hain zaila al da honela zerbait jostea? Ez dirudi. Baina zer, hain lotura esturik lortzen ez bada ere? Koherentzia mila eratakoa da. Zer axola dio inkoherentea izateak, euskaraz gaizki esana edo gaizki neurtua ez badago? Zergatik derrigor koherentzia mota batek agindu behar du?

Honetan haurrak askoz ere jareginagoak eta naturalagoak izaten dira. Haiek ez daukate nagusiek bezalako nahasmen mentalik. Orain gabiltzan mailako lotura arazoa gehienez nagusien buruko arazoa izaten da.

Egin dezagun zenbait aproba. Hona oin bikote batzuk:

Hotsa  
Bihotza

Musika  
Ikusita

Zabala  
Argala

Saia gaitezen bikote bakoitzean lotura gabeko esaldiak egiten:

Entzuten dut haizearen hotsa  
Zakurrak jan dit bihotza

Asko maite dut musika  
Pozten naiz zuek ikusita

Mundua da zabala  
Gure sorgina dago argala

Badirudi bikote hauetan ez dela lotura haundirik. Ez al dute horregatik batere balio? Jar ditzagun koplak txikian:

Oraintxe entzuten dut  
haizearen hotsa  
zakurrak berriz jan dit  
ederki bihotza

Bene benetan asko  
maite dut musika  
pozten naiz hemen zuek  
hola ikusita

Mundua, jaun-andreok,  
da oso zabala  
gure sorgina dago  
erabat argala

Kanta ditzagun orain.

Hain gaizki al daude kantatu eta gero? Euskaraz ondo esanak, ongi neurtuak, ondo erimatuak eta kantatuak. Gutxi al da? Gainera, horrela kantaturik, ez al dirudi lotura pixka bat ere badutela? Ez baldin badute, norberak iruditzen du eta kito. Irudimena ez al da, ba, lotura mota bat?

Bada, ordea, beste zerbait. Gehienez lotura gabeak egitea loturadunak egitea baino zailagoa da. Zergatik? Gure buruak bere funtzionamendua dauka. Gure burua zoritxarrez ez da hain anarkikoa, barne egituraz. Bi hitz esan eta buruaren bat bateko joera horiek jostea da. Berezko funtzionamenduari bere gisara utzi eta berehala sortuko da han zerbait loturarik. Bestela buruaren barne jokaera bortxatu edo aldatu egin beharko da eta hori zailagoa da.



Beste gauza bat da buru guztiak ez izatea berdinak eta batentzat lotura dena beste batentzat deslotura izatea. Irudimenak tartean dira eta horiek ez dira berdinak, irudimenak baldin badira. Horretan, lehenago esan bezala, haurrek apenas lotura problemarik izaten duten, haien buruak ez baitaude hain lotuak. Nagusien irudimenak ez dira hain irudimen. Zoritxarrez mugatuegiak eta berdintsuegiak dira, gizarteko muntaia mekanizatuak hala eragirik.

Hona beste zenbait aproba:

Zakurra  
Lapurra

Elurra  
Gezurra

Lorea  
Kolorea

Atean zegoen zakurra  
eta bildurtu zen lapurra

Zuria izaten da elurra  
Hori ere ez da gezurra

Ikusi nuenean lorea  
argitu zen nire kolorea

Gauza haundirik esatera joan gabe, zerbait loturaduna asmatzea ez da hain zaila. Sinesten al duzue? Ba, oraingoz horixe da nahikoa. Gauza haundiak eta politikak esateko garaia geroago etorriko da.

Jar ditzagun goiko hirurak koplak txikian:

Atean, jaunak, hantxe  
zegoen zakurra  
eta bildurtu zen, bai  
ederki lapurra

Zuria izaten da  
erabat elurra  
hori ere segurki  
ez da hain gezurra

Ikusi nuenean  
aurrean lorea  
argitu zen egitan  
nire kolorea.

Kanta ditzagun orain. Gaizki al daude?

## VII

### ESALDITIK KOPLARA

#### OTXALDE PRESO (Xetre)

1) Hazparden egin dute  
ganbera berria  
Bidarraitik jin zauku  
estreinatzailia.  
Gizon gazte kapable  
ontsa ikasia  
orok maite dutena  
bertsu emailia.

2) Merkatu arrats batez  
plazan eleketa  
jendez inguratua  
ari zen josteta.  
Debekatua baita  
tenora paseta  
polizak ereman du  
berekin har eta.

3) Etzanaz ez zen kexu  
sartu zutenian  
goarda zen usatua  
etzaten lurrian.  
Gau guztia pasatu  
hantxet otoitzian  
lagun hoberik ez da  
bakarrik denian.

XENPELAR ETA ARDOTX  
LEZON

*Xenpelarrek:*

Orain hasi biagu  
asunto berrian  
zer gertatutzen zaigun  
Lezoko herrian.  
Neska gaztiak daude  
hemen alegrian  
kantaren aitzakian  
mutilen erdian.

*Ardotxek:*

Emakume kontuan  
al zerade hasi?  
Gerenez konsidera  
dezagun lenbizi.  
Jendiari nai diot  
hemen adirazi  
ia zein joaten den  
neskatxen ihesi.

*Xenpelarrek:*

Ia, dama gaztiak  
entzun ondo, arren  
eta ez utzi sartzen  
nai dan bezain barren.  
Hasiko lirakenak  
Xenpelar baino len  
bizar haundi batzuek  
badirade hemen.

P. BAKALLO ETA  
XENPELAR

*P. Bakallok:*

Bertsoa botako det  
leihotik leihora  
bart gure etxe hontan  
alaba jaio da.  
Inork nai badu etorri  
horren bataiora  
haur horren gurasoa  
Patxi Bakallo da.

*Xenpelarrek:*

Beraz andria dezu  
hezur berritua  
hala eman didazu  
neri mandatua.  
Bankete bat eiteko  
badet desiua  
abisatu zaidazu  
noiz den bataiua.

## BI LERROTAN

Gorago esana dugu lau urrats zeudela: 1) Oinak. 2) Esaldiak. 3) Esaldiak erdibitu. 4) Hornitu edo neurtu.

Adibidez:

- 1) Zerria  
Bildurgarria
- 2) Hitz baterako hi haiz zerria  
Belarri bat duk bildurgarria
- 3) Hitz baterako —2  
hi haiz zerria —1  
Belarri bat duk —2  
bildurgarria —1
- 4) Hitz baterako, lagun  
hi haiz hi zerria  
Belarri bat hortxe duk  
txit bildurgarria

Lau jauzi horietarik bigarrena kentzen ikasi behar dugu. Oinetatik zuzenki bi lerroko esaldietara pasatzen, alegia.

Adibidez:

- 1) Txistua  
Piztua
- 2) Plazan entzun dut —2  
txistua —3  
gogoa jarri —2  
dit piztua —2
- 3) Plazan hortxe entzun dut  
ai gure txistua  
eta gogoa jarri  
dit arras piztua

Denboraz, laster noski, hiru hauetarik bigarrena ere jango dugu, oinetatik ia zuzenki koplara neurtura pasatuz. Oraingoz hiru urrats hauotan ibiliko gara.

Bi gauza garrantzitsu egin behar ditugu orain. 1) Lehen kolpean ahalik gehien hurbildu neurrira. 2) Zerbait esan eta puntu bat berehala kantatu.

## HURBILKUNTZA

Puntu batek hamairu silaba ditu: zazpi lehen lerroak eta sei bigarrenak. Zenbat eta esaldiak neurri zehatzera gehiago hurbildu, gero lan gutxiago izango da hornitzen.

Adibidez:

**Etxera noa**

Bi lerrotan jarririk:

**Etxera** —4  
**noa** —4

Hemen silaba asko falta da, neurrira heltzeko. Erdiak baino gehiago. Lan handia, beraz. Hona orain gauza bera luzeago esana:

**Hankak jasota** —2  
**etxera noa** —1

Hemen asko inguratu gara. Hornitzeko gutxi falta da. Hona orain beste hurbilkuntza bat:

**Hanka jasota orain** —0  
**etxera noa** —1

Hemendik neurri zehatzera berehala gaude:

**Hankak jasota orain**  
**ni etxera noa**

Bistan dago lehenengoan bezain labur utzirik, lan handia dagoela hornitzen. Hala ere nahiko errez egin liteke, esku artean darabilgun giltz zerrenda horrekin. Kontutan izan zerrenda horrekin bakarrik ari garela hornikuntza guztiak egiten.

Bigarrenean nahikoa hurbiltzen da. Hori hornitzea oso erreza da. Hirugarrenean berriz silaba bat bakarrik falta da. Hortik neurrira ber bertan dago.

Hurbiltzeko sena lantzean, pixkanaka zehazki neurtzeraino helduko gara. Batetik eta bestetik, horixe da izan ere gure helburu nagusia: neurria. Bertsolariak



ere silaba bat edo biren gorabeherak gehienez izaten ditu, martxan zuzentzen duelarik. Lerro bakoitzean askoren faltan edo sobran dabilenak gaizki behar du.

Hurbiltzen ez da hain zaila. Hamairu silaba dira guztira ere. Gainera ez dira hamairu kalkulatu behar, zazpi eta sei baizik. Hamairu metro bi harrikadatan egitea bezala. Lehen harrikadan zazpi metro eta bigarrenean sei. Lehen botaldietan baliteke harria behar den puntutik urrun geratzea, goitik edo behetik. Pultsu pixka bat duenak, ordea, laster lortuko du harria gehienetan zazpigarren metroan uztea eta gero seigarrenean.

Berdin edo berdintsu da neurrian ere. Gertatzen dena neurrian zehatz-zehatz jo behar dela. Silaba baten gorabehera gaizki neurtzea da. Lortuko al dugu gehienetan ondo neurtzerik? Bai noski.

## ESALDIAK KANTATU

Hurbilkuntzari ekinda gero, hona beste ihardun bat: esaldi bat berehala kantatu. Bertsotan, pentsatzea, esatea, neurtzea eta kantatzea lan orokor bera da. Bertsolariak laurak batera egiten ditu, gu hemen banaka ari bagara ere.

Hona puntu batean bakarrik lan orokor hori bi jautzitan egina: norbaitek esaldi bat esan eta beste batek hura berehala kantatu. Ondo kantatzeko, ondo neurturik egon beharko du.

Adibidez:

Esaldia: **Orain banoa etxera**

Kantaturik: **Orain banoa, jaunak  
hemendik etxera**

Esaldia: **Hemen ez dago zereginik**

Kantaturik: **Hemen ez dago ia  
bate zereginik**

Ez da derrigorra esaldiko azken hitza ointzat errespetatzea. Ariketa hau ordena aldaturik ere egin liteke:

Esaldia: **Hamaika lapur badabil munduan**

Kantaturik: **Hamaika lapur haundi  
munduan badabil**

Esaldia: **Sekula holakorik ez dut ikusi**

Kantaturik: **Holakorikan ez dut  
ikusi sekula**

Egin ezin litekeena da esalditik kantatura asko aldatzea, hitzak aldatuz. Are gutxiago ideiak. Adibidez:

Esaldia: **Irratia entzuten ari naiz**

Kantaturik: **Telebista ikusten  
hementxe nago ni**

Esaldia: **Ardoak animatzen gaitu**

Kantaturik: **Urak apenas inor  
animatzen duen**

Zergatik ez dago hori egiterik? Zentzurik ez daukalako. Edo gehienez ere alferrik delako. Bi fase horiek bertsolari berberak bere baitan egiten duen lan bakarra dira. Gauza bat pentsatu eta beste bat kantatzea zentzugabekeria litzateke. Bere buruari tranpa egitea bezala. Beste gauza bat da sarritan zerbait pentsatu eta nahi bezala neurrira egokitu ezin duelako, ideia bera aldatzea. Hori tarteka gertatzen dena da, baina askotan gertatzea ez da seinale ona bertsolari batengan.

Goazen aurrera. Nik esaldi bat esan eta zuetariko batek kantatu. Doinutzat **Xarmagarria**-ren azken puntua erabiliko dugu.

Irakasleak: **Musika da gauza gustagarria**

Ikasleak: **Musika da gauza bat  
txit gustagarria**

Irakasleak: **Pobreen ametsa goserik eza**

Ikasleak: **Pobreen ametsa da  
goserikan eza**

Orain gauza bera zuen artean. Batek esan eta beste batek kantatu:

**Batek: Nik jarri behar dizut puntua**

**Beste batek: Nik jarri behar dizut  
oraintxe puntua**

**Batek: Nigatik izorra hadi**

**Beste batek: Niregatikan hortxe  
izorratu hadi**

Batek esaldia jartzean, harria neurritik urrun uzten badu, besteari lan gehiago uzten dio. Baina berarentzat ere harria ahalik hurbilen uztea ariketa ona da. Segun zer gogoz egiten den, elkarri laguntzeko ala elkar aprobatzeko. Hori ere joko bat izan bailiteke. Hik txarra jarri didak? Oraintxe ikusiko duk nik nolakoa jartzean diadan.

Norbere buruarekin ere egin liteke ariketa hau. Hala ere binaka eta taldean biziago eta jolasgarriago gertatuko da. Ariketa honi ondorengo egunetan ere asko ekingo diogu.

## VIII

# KOPLA TXIKIAN AURRERA

### ITURENGO HAROTZA

- 1) Iturengo harotza  
Erramun Joakin  
haserre omen zaude  
zeren dugun jakin.  
Santurik ez laiteke  
fiatu zurekin  
San Kristobal urtuta  
joariak egin.
- 2) Harotzak erran dio  
bere andreari:  
«Urtu behar diñagu  
ekar santu hori»  
«Gizon, hago ixilik  
bekatu duk hori»  
«Etzionagu erranen  
sekulan inori».
- 3) Harotzak erran dio  
bere andreari:  
«Begira zaion ongi  
joare multzuari  
soinuan bilatu ta  
denak zeuden ongi  
salatu ez bagindu  
koñatak, ai Mari».
- 4) Kobrezko santurikan  
inun bazarete  
egoten al zarete  
hemendik aparte.  
Bertzenaz harotz hoiek  
jakiten badute  
joariak eiteko  
urtuko zaituzte.

### BELATEKO LAPURRAK

- 1) Gauza bat deklaritzen  
nik behar dut hasi  
denbora asko ez dela  
zer dugun ikusi.  
Enkargatu nauena  
orai ez da bizi  
lagunekin batian  
zuten galerazi  
horien bekatuek  
baitzuten merezi.
- 2) Bi urte bete dira  
erran zidatela  
batek partikularki  
lazki beldur zela.  
Aitzen baldin banuen  
galdu zituztela  
bertso berri batzuek  
para netzaiela  
orai abiatzen naiz  
oroitzen naizela.

- 3) Egun seinalatua  
zen Santa Barbara  
presente han ginenak  
oroitzen al gara.  
San Jose gloriosoak  
gaitzala anpara  
ailegatu gaberik  
munduan hartara  
egun hartan zituzten  
urkabeen para.
- 4) Anaietan zarrena  
joan zen aurrera  
garboz pasa zituen  
zenbait eskalera.  
Ailegatu zenian  
gero urkabera  
kontseilu onak ematen  
oihuz zegon bera  
hura egun hartako  
gizonen galera!
- 5) Bat orduko hila zen  
gero bigarnari  
korda lepotik sartzen  
zitzaizkola ari,  
tunika bat burutik  
zitzaion erori  
begira gelditu zen  
bere anaiari  
zer kontsolamendua  
bihotz altxagarri.
- 6) Bida hilak ziraden  
gero hirugarrena  
hark erakusten zuen  
damurik geiena.  
Lengo gaizki eginaz  
orai zuen pena  
ez zuelako bete  
jaunaren ordena  
zuzen ibiliko da  
munduan zur dena.
- 7) Laugarrena joan zen  
guzien atzean  
Jesus! erraten zuen  
korda paratzean.  
Salbea errezatzeko  
hartaz oroitzean  
hala eskatzen zuen  
hark heriotzean  
asko pena zeukala  
bere bihotzean.
- 8) Haien gaizki eginak  
ongi probatuak  
garraztasun haundian  
ziren zehatuak.  
Lauetarikan hiru  
han laurdenkatuak  
izugarriak ziren  
haien bekatuak  
hamar lekutan daude  
puskak paratuak.
- 9) Hainbertze beldurrekin  
jendiak Belaten  
uste dut pasanteak  
gusto hartzen duten.  
Bertzeren ondasunak  
ari ziren jaten  
pesalonbrerik baizik  
ez zuten ematen  
Peppek deskantsu ona  
paratu du aurtan.
- 10) Kalabozo batian  
bertsuen paratzen  
goseak hil hurrena  
hotzak akabatzen.  
Ez da enbusteria  
hala ari nintzen  
pasa baino errexago  
dirade kontatzen  
anima defuntuek  
naute anparatzen.



## TXABALATEGI ETA ZABALA

*Aizarnazabalgo Sakristauak:*

Txabalategi eta  
Zabala gaztea  
askok deseo zuen  
kantuz ikustea.  
Atsegin haundietan  
geldi da jendea  
bata adinbat egin  
behar da bestea.

*Fernandok:*

Ezin gentzake bada  
beste gauzik egin  
nik gogoan neukana  
zuk dezu hitzegin.  
Utzi behar ditugu  
biak berdin berdin  
Gipuzkoa guziak  
har dezan atsegin.

I) Goazen orain koplak txikian aurrera, hura menderatu arte. Igon bizikletara eta oldar bildurrik gabe.

1) Oinak: **Aurrera**  
**Aukera**

2) Asma bakoitzak oin horiekin zerbait, bakoitzari dagokiona bi lerrotan banaturik. Adibidez:

Nolabait bagoaz	—1
aurrera	—3
edonork dauka	—2
behar den aukera	—0

3) Orain hornitu. Hasi lanean, Amaitzean, jaso eskua. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost. Sei... Aski! Kanta dezagun.

Adibidez:

Nolabait bagoaz gu  
poliki aurrera  
edonork dauka hemen  
behar den aukera

Beste koplak bat:

1) Oinak: **Herria**  
**Berria**

- 2) Bertsozalea —2  
 da herria —2  
 gurekin laster da —1  
 harrobi berria —0

- 3) Oso bertsozalea  
 da gure herria  
 gurekin laster da, bai  
 harrobi berria

Orain galdera bat. Zer egin zaizue zailen? Zer kostatu zaizue gehien?

*Ikasleen erantzunetatik, irakasleak ahalegin nagusiak neurrian zentratzen saiatu behar du. Gaia, lotura edo honelako zerbait nabarmentzen bada, berriz ere aurrerago aipaturiko ariketa bereziak egitea pentsa lezake. Dena den, zailtasunen agerpena masiboa eta indartsua ez bada, segi aurrera. Ikasleek gehiengan zailtasunak haunditzeko joera izaten dute.*

II) Egin dezagun orain oin zerrenda bat:

Jai  
 gaia  
 alaia  
 garaia  
 anaia  
 amaia  
 zelaia  
 kanpaia

Eta abar.

Binaka hartu eta hasi bakoitza koplak txikiak egiten, bi fasetan. Bat amaitzean, jaso eskua eta segi bigarrena egiten.

Adibideak:

- 1) Eskola zelakoan —0  
 hau da jaiak —2  
 kantatzeko —3  
 bada gaia —2

- 2) Eskola zelakoan  
 hau da noski jaiak  
 nolabait kantatzeko  
 bada hemen gaia.

- 1) Hemen batu gara —1  
talde alaia —1  
dibertitzeko —2  
hauxe da garaia —0
- 2) Hemen batu gara gaur  
talde txit alaia  
ongi dibertitzeko  
hauxe da garaia.

*Honela beste oin bikoteak ere. Mordo batek bana amaitzean, hura kanta erazi batzuri eta segi hurrengora. Jendeak segun nola erantzuten duen, segi ala aldatu. Denen gainetik nekatzea eta aspertzea ebitatu. Ikaslerik ez dadila ezinean ibil.*

*Beti bezala, zer gehien kostatu zaien galdetu eta berriz neurrian zentratzen ahaleginak egin.*

III) Oin bakarra emanik. Orain denontzat oin bakarra jarriko dugu.

Adibidez:

### MAKILA

Bigarrena bakoitzak asmatu. Adibidez **HILA**.

- 1) Hartzera noa —2  
makila —3  
jota utziko zaitut —0  
bertan hila —2
- 2) Hartzera noa, jauna  
neronen makila  
jota utziko zaitut  
orain bertan hila

Beste oin bat denontzat:

### HARRIA

Asma bakoitzak bigarrena. Adibidez **BELARRIA**.

- 1) Zakur bati jaurtiki —0  
nion harria —1  
baita puskatu —2  
belarri —2

- 2) Zakur bati jaurtiki  
nion nik harria  
baita puskatu ere  
haren belarria

*Berriz galdeketa eta elkarrizketa eta aurrera.*

IV) Orain dena zuek. Oinak ere bakoitzak. Pentsa bi hitz, elkarrekin errimatzen dutenak eta aurrera. Ea zer ateratzen zaizuen.

Adibidez:

- 1) Katua  
Pekatua
- 2) Lapurra da gure —1  
etxeke katua —0  
estaltzen du —3  
bere bekatua —0
- 3) Lapurra da hai gure  
etxeke katua  
ederki estaltzen du  
bere bekatua.

Asma orain beste bi oin eta aurrera. Hasi eta ea dena zenbat denboran egiten duzuen. Beti bezala, amaitzean, jaso eskua.

Adibideak:

- 1 Gorri  
Etorri
- 2) Koloreak dituzu —0  
gorri —4  
odola al zaizu —1  
burura etorri? —0
- 3) Koloreak dituzu  
orain oso gorri  
odola al zaizu,  
ba burura etorri?

*Esan beharrik ez dago egiten diren kopla guztiak kantatzeko direla, denak ez bada ere, bakoitzean batzuk.*

*Beste hau ere bego argi, alegia, bi jauzitan egin beharrean, oinetatik neurrira zuzen pasatzen denak lan bat aurreratu duela. Bitarteko zubi hori gabe mol-datzen bada, hainbat hobeki.*

*Hala ere, zuzenki neurtzeko gai denarentzat ere, batzutan ez dago gaizki bi kolpetan egitea, horrela neurria hornitzeko balio berezia duten hitzetaz ohartuko baita.*



## IX

# GAIA JARRITA

### BIZKAIKO TXERRIARENAK (Uztarri)

- 1) Notizi bat nigana  
dago etorria  
publikatuko banu  
txit parragarria.  
Bizkaian egin dute  
prueba berria  
kutxilorikan gabe  
hiltzea txerria  
erakutsi diote  
istilu gorria.
- 2) Bi familiak zuten  
nolabait hazia  
erdi banan jateko  
kendu nai bizia.  
Abilak egundaino  
beti malizia  
ezin izandu dute  
egin justizia  
beintzat eskapatzeko  
izan du grazia.
- 3) Famili hori nor dan  
nai dezute jakin  
bi gizon ta bi andre  
beren izenakin.  
Gizona bat Pepetxo  
bestia Antolin  
emakumiak berriz  
Ana ta Katalin  
laurak ere bazuten  
naikua zeregin.
- 4) Naikua egin dute  
hoiek somatzeko  
bere odol ta guzti  
lastoz erretzeko.  
Zokor mazua zuten  
buruan jotzeko  
idiari bezela  
kordia kentzeko  
harakin beharrikan  
etzuten hiltzeko.
- 5) Mazuarekin jo du  
Pepetxok buruan  
txerria gelditu da  
hildako moduan.  
Erretzen para dute  
lastuaren suan  
polainak jaso ditu  
sutu dan orduan  
deabruak harturik  
igesi da juan.
- 6) Bizkarra erria du  
kolpia buruan  
Jaungoikuak badaki  
zer ikusi duan.  
Heriuan igesi  
bere enpeinuan  
kaminuan azpian  
sartu da kainuan  
gero bilatu dute  
kurrinka soinuan.

- 7) Txerri hori zeukaten barruan sarturik gorde leku polit bat beretzat harturik. Bilatu dutenian kontentuz beterik ez dauka len bezela igesi juaterik ustez gelditu ziran aseguratirik.
- 8) Zuek emakumiak egin hemen kargu abiatzen danian gogotikan heldu. Guk beste aldetikan saiatuko degu lastua len bezela sutuko diogu azaria bezela aterako degu.
- 9) Lastua len bezela sartu zutenian atsua bota ditu kainu baztarrian. Mokaurikan etzuan hartutzen larrian asko korritua da ez dago urrian pakea emango du Bizkaiko lurrian.
- 10) Adios egin die kainuko atian zuen bildurrik ez det aurtengo urtian. Bila ibili dira bolara batian egindako pausuak berentzat kaltian apenas gelditu dan Montaña artian.
- 11) Triste gelditua da familia dana batez ere gaxuak Katalin ta Ana. Zeinek ez du hartuko bihotzian pena gauza eskuratua igesi juana ezpainak koipatzeko buruz bide ona.
- 12) Eingo nuke apostu aditu dedanez eztirala antojatzen aurten urdai janez. Gaizki gelditu dira txerria hil gabez behatzak txupatzeko alibiorik ez oliua beharko koipearen ordez.
- 13) Garizuma santua izanagatikan ez daukate pekatu egin beldurrikan. Auzotik ez badator erregalorikan inola ezin hautsi bijiliarikan aurten ez dute hoiek bulda beharrikan.
- 14) Txerri hori omen zan kastaz soraiua pareta zar askori gainera iua. Litxarreriarako bere jeniua gorputzetikan ezta mamiz jariua sei duroz pagatzen da horren baliuma.

15) Artorik apenas du  
etxian ikusi  
egunian bi aldiz  
osinak egosi.  
Beste aziorikan  
etzuen merezi  
argala dan medioz  
juan da igesi  
hurrenguan hobeto  
gizenduta hazi.

16) Horra hamasei bertso  
bizkaitar hoieri  
motibo horrentzako  
eztira geiegi.  
Inork jakin nai badu  
gauza horren berri  
zein lekutan pasa dan  
komeria hori  
galdetu Azpeitiko  
Uztargiliari.

Kopla txikiaren helmugan sartzera goaz. Orain arte gaia ez beste guztia eginez etorri gara pixkanaka. Orain gaia jarri eta hortara jokatzen saiatuko gara.

**GAIA: Goizaldeko lauretan kalean zabiltza. Zer egiten duzu?**

Horixe duzue gaia. Hasi. Amaitu ahala, jaso eskua. Bakoitzak kopla bana. Arin amaitzen duenak egin dezala bigarrena ere, nahi badu. Dozena erdiren batek amaiturik duzuenean, orduantxe kantatzen hasiko gara. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost... eta Sei! Hasi gaitezen: Tralaralarala...

Adibidez:

Goizaldeko lauretan  
lo nengoen trankil  
etxetik bota naute  
eta hemen nabil

*Ekinaldia amaitzean, elkarrizketa. Zer moduz? Zaila? Uste baino erreza-  
goa? Zer kostatu zaizue gehien? Eta abar.*

*Gaia jarri eta lehenen amaitzen duena berehala kantatzen hasterik ez da komeni. Bestela hasi eta isildu eta horrela beti etenka aritzeko arriskua dago eta hori ez da batere ona. Jarraian kantatu behar da, erritmorik hautsi gabe. Nola lortzen da hori? Dozena erdiren batek kopla bana amaitu arte itxaronik. Orduan ekinaldi bat aseguraturik dago. Bien bitartean erdizka zeukatenen batzuk amaituko dute, lehenengok bigarrena egiteko tarte daukate eta horrela. Gurpilak geratu gabe itzulka ekin behar dio. Noiz arte? Hori irakasleak ikusi behar du. Gurpila errez samar aurrera badoa, utzi. Geldiuneak hasten direnean, moztu.*

*Irakasleak denen gainetik talde osoaren martxari begiratu behar dio. Beti izaten dira batzuk errezago egiten dutenak. Hauek oso onak dira gurpila mar-txan erabiltzeko. Baina oso kontuz ibili behar da, martxa guztia berek irents ez dezaten. Nekezago edo lotsatiago dabiltzanak animatzea, baina bortxatu gabe,*

*horra irakaslearen trebetasun nagusietariko bat.*

*Aurrerago edo atzerago dabiltzanen portaeraz gainera, denek edo gehienek kantatzeak taldetasuna asko finkatzen du. Taldeari eragin haundia sartzen dio.*

*Orain aurkitzen garen unean, gehienek zerbait kantaturik egon behar dute. Denek izan behar dute kopla bat paperean egiteko gai. Baliteke norbaitzuk kantatzen ez ausartzea, belarri txarra dutelako edo bildurriak direlako. Horiei ez gehiegi tiratu, ahal dela disimulatu baizik. Hemen batez ere gehiengoari begira gaude. Gauden unean gehienek zerbait kantatzea lortu ez bada, aurreargoko errepasuren batzuk egitea pentsatu beharko.*

Orain beste gai bat, baina denon artean hautatua. Ea! Bota gai posible batzuk. Nik arbelean idatziko ditut eta azkenean bat hautatuko dugu.

*Demagun gai zerrenda baten ondoren, hauxe hautatzen dutela:*

**Egun bat hondartzan.**

- 1) Gaia hartu eta nondik heldu kostatzen bazaizue, hauxe egin dezakezue:
  - Gai horretan ideiaren bat pentsatu. Ideia horretan hitzen bat derrigor izango da. Adibidez: **Gustora egoten da hondartzan**. Esaldi hau lau eratarantz antola liteke, segun zein oin nahi den:

**Gustora egoten da hondartzan  
Hondartzan egoten da gustora  
Hondartzan gustora egoten da  
Hondartzan gustora da egoten**

Laugarren esaldia hizketarako bortxatua da, baina kanturako ez du gaizki ematen.

- Orain esaldi hauetariko batekin puntu bat osatu. Adibidez:

**Hondartzan eguzkitan  
gustora egoten da**

- Orain bigarren puntuko oina bilatu behar da horren arabera. Adibidez:

**DENDA**. Eta puntua osatu:

**Hantxe jarriko nuke  
neure camping denda**

Orain biak elkarren atzean kantatzea besterik ez dago.

- 2) Beste urrats bat emanik, lehenen pentsatzen den puntu hori azkenerako uztea hobe da, geroago horretan saiatuko garen bezala. Demagun lehenen datorkiguna hauxe dela: **Gustora egoten da hondartzan**. Ideia edo esaldi honekin bigarren puntua osatu:

**Gustora egoten da  
etzanda hondartzan**

Orain lehen puntua betetzera goaz. Zein oin? Adibidez **MARTXAN**. Honekin lehen puntua bete eta hona koplara osoa:

**Eguzkia bero ta  
haize fina martxan  
gustora egoten da  
etzanda hondartzan.**

- 3) Hona beste era bat. Gaiaren inguruko hitz bat ointzat hartu. Jarritako gaiarekin zerikusia duten hitzak asko izango dira. Gure kasuan, adibidez: **Hondartza, eguzkia, hondarra, gezala, itxasoa, iheri eta abar.**

Hauetariko batekin zerbait esan ezker, gaiari gabilta. Har dezagun adibidez **IGERI**. Bila dezagun orain hitz honekin errimatzen duen beste bat. Adibidez **AGERI**. Bi oinak baditugularik, koplara bat berehala osatzen ikasiak zaudete:

**Itxasoan ez baita  
mugarik ageri  
hargatik nabil pozik  
hondartzan igeri**

## **GAI LIBREAN**

Orain gairik ez ezer ipini gabe. Dena zuek. Gai librean, jakina, beti izaten da inguru bat. Hemen eskolan gaude, edo afarian, edo erromerian.

Lagunarte bat beti izaten da. Beraz, elkarri ekiteko moduan. Girotik edo ingurutik atera liteke gaia. Edo bakoitzak nahi duen lekutik. Hasi! Dozenerdiren batek koplara bana eginga daukazuenean, kantatzen hasiko gara. Bat. Bi.Hiru. Lau. Bost eta Sei! Kanta dezagun!



Adibideak:

Kopla bat osatzeko  
honenbeste kopla  
eman beharko diot  
buruari zapla.

Eskolan ari gara  
lanean jo ta ke  
ardo pixka batekin  
hobeki litzake.

Ondoan daukat mutil  
bizar luzeduna  
tximinoa dirudi  
baina euskalduna.

Nik ere badut neska  
polita ondoan  
kalabazak agindu  
zizkidan lengoan.

Eta abar.

*Afaria eta lagunartea aipatu ditugu. Gauden unean afari mamitsua egiteko moduan daude ikasleak. Lehenago ere bai beharbada. Afariak eta lagunarteak oso garrantzitsuak dira. Giroa sendotzen eta berotzen dute. Jendeak oso ondo pasatzen du eta horrek asko animatzen du. Harremanak ere berriak eta sakinak sortzen dira. Talde giroa hitz batez.*

*Baina ez dago afariak nolanañi egiterik. Aldeko eragina iza beharrean, aurkakoa gerta liteke, batez ere hasieran. Kontutan izan jendea bertsolaritza lantzen ari dela. Horixe da beraz taldeko eragile nagusia. Afaria benetako aprobataz hartzen da.*

- Oraintxe ikusiko diagu noraino heltzen garen.

*Ohartuki ez bada ere, afaria test haunditza hartzen dute ikasleek. Hasi berri direnengan, oraindik zerbait egingo ote duten zalantza haundiak daude. Afarien eginkizun nagusia, lehenengoarena batez ere, konfidantza eta adorea sartzea da. Ikasleak esperientzia horretatik pozik atera daitezela. Edo ez daitezela gutxienez derrotaturik atera.*

*Horretarako irakasleak afaria eramaten jakin behar du. Eskola baino hobeki prestatu behar du afaria, eskolan baino espontaneitate haundiagoa izango dela*

kontutan harturik. Beraz, ustekabeak ere noiznahi izango dira, giroa batera edo bestera aldatuko dutenak. Hona kontutan eduki beharreko zenbait gauza:

1) Eskolan egin ez den lanik inola ere ez eragin. Oraindik, adibidez, eskolan ez dugu puntura egin. Beraz, afarian ere ez. Eskolan egin den lana bakarrik. Kasu honetan koplak txikia, bi doinu motaz: Tralara eta Xarmagarria.

2) Ez eskolan egin den lana bakarrik, eskolan egin den bezala baizik. Jendea eskolan paperez ari bada, zergatik ez afarian ere? Lehenengoan bitxi samar gertatzen bada ere, berehalaxe naturalizat hartzen da. Hortxe dago irakaslearen eskua, jendea hartara mentalizatzen. Inola ere egin ez litekeena jendea ezinean ibiliko den lanik agintzea. Paperetik hamar koplak kantatzeko gai denak paperik gabe ez du agian ezer kantatuko eta hori frakasua da, ez ikaslearena, irakaslearena baizik. Baina ikasleak frakasu hura bere gain hartzen du eta kikildu egiten da. Batek baino gehiagok esango du gero:

— Esaten nian nik horretarako ez nintzela jaito.

3) Isiluneak ebitatu. Kantatzen hasi eta behin geratu eta behin berriz hasi eta horrelako etenaldiek talde giroa berehalaxe eror erazten dute. Hura gero altxatzea asko kostatzen da, altxatzerik lortzen baldin bada.

Horretarako ez hasi inoiz ekinalditxo bat aseguratu arte. Eskolan bezela, dozena erdiren batek koplak bana eginik eduki arte. Eta hori saio bakoitzean. Kantatzen hasi aurretik, isilune horrek ez du kalterik egiten. Kantatzen hasi ondoko etenak dira hondagarri.

4) Koplak txikian bakarrik esan dugu. Ez al da aspergarria izango? Inola ere ez. Barietatea gaiek ematen dute. Behin gai librean, behin gaia jarriarik. Hori ere irakasleak ondo pentsaturik eraman behar du. Gainera giroa bera da barietetatik haundiena, jendea jokoan sar erazterik lortzen bada.

5) Zer egin gehiagorako gai diren ikasleekin? Talde guztietan izango dira eskola doan maila baino aurrerago daudenak. Batzuk agian puntura edo zortziko osoan ere egiten dutenak. Hauei tarteka ekinaldi bereziak jarri. Horrek ere barietetatea ematen du. Besteekin batera dabiltzanean, kontuz dena berek irents ez dezaten. Bertso osoa egiteko gai denak koplak bat errez egiten dizu. Deskuidatzen bazara, taldeko ekinaldia bik edo hiruk akaparatzten dute eta hori mugatu egin behar da. Utzi gehiago kantatzen, baina ez gehiegi. Gainera hauek zeintzuk diren irakasleak dagoeneko badaki edo jakin behar luke. Aurretik horiekin hitzegin liteke, afariko helburu nagusia taldea dela mentalizaturik. Orduan aportatzera doaz eta ez menderatzera.

6) Jendea kantatzen hasten denean, nahasmenik ez sortzeko eta batez ere ahalik gehienei kanta erazteko, txandak ordenatu behar dira. Horretarako ira-

*kasleak txanda ematea da era bakarra. Inor ez dadila bere kontura kantatzen hasi, eskurik jaso gabe. Txanda ematen zaionean kanta dezala.*

*Norbaitek pentsa lezake:*

— *Eta zergatik ez txandan edo errezkadan kantatu, mahai inguruan dauden bezala?*

*Bai denak tokatzen zaienean kantatzeko gai izango balira. Norbaitek ezin badu edo ateratzen ez bazaio, zer? Hori hasi berriekin eta gerotxoago ere sistima txarra da. Errezkadan kantatzeak hala hola dabiltzanak urduriago jartzen ditu, laster tokatu behar zaiela eta ez daukatela ezer kantatzeko pentsaturik.*

*Bakoitzak egin ahala eta nahi duenean eskua jaso eta irakasleak txanda ematea baino sistima egokiagorik ez dago. Gehiagi kantatzeko gai direnei pixka bat eutsi eta lehenengoz edo gutxiago kantatzen duenari berehalaxe aukera eman, eskurik jasotzen duenean.*

7) *Afaria taldekoak bakarrik egoteko lekuan egin behar da. Hau oso garrantzitsua da eta denen gainetik aseguratuta beharrekoa. Inguruan ez da taldez konpoko inor behar, giroa apurtzen edo aldatzen baitu. Pare bat ezezagunen presentzia aski da ikasleak kikiltzeko, bestela ere nahiko lotsakor ibiltzen baitira. Eta sarritan ezagunak izanda okerrago, taldean sartzen baitira eta martxa guztia alda erazten baitute. Gainera gehienez, jatekietan, elkarteetan eta abar, alboan dauden horiek ez dira isilik egotekoak izaten. Ez daukate egon beharrik ere. Hori taldeak berak ebitatu behar du, bakarrik egoteko lekua topaturik. Hala egiten ez dutenek eskarmentu ederrik hartuko dute.*

8) *Esaten ari garen zer guztiak afal aurretik ikasleekin komentatzea oso ona da, jendea hartaraturik joaten baita. Hitzegin eta arrazoitu, afariaren martxaz eta helburuez jabetu daitezen. Honek ez dio lagun arteko armoniari eta berezkitasunari ezer kenduko, indar gehiago ezarri baizik.*

9) *Azkenez, esaniko guztia haurrekin berdin egin liteke. Lehenago ere esana dugu haurrak parte hartzeko eta jokoan sartzeko naturalagoak direla. Haien buruetan ez dago nagusien konplikaziorik. Haurrekin askarixto bat egitea oso erreza da. Baina hura ere prestatu egin behar da. Baliteke haien espontaneitateak irakasleberi gainez egitea. Giro desberdina izaten da. Mugitzen utzi behar zaie. Beste jolas batzuk ere utzi behar zaizkie. Bertsotan nahi bezala eragin ez bazaie, lasai. Beste egun batean izango da. Ondo jolastu badira eta pozik ibili badira, haiek ez dute traumarik etxera eramango. Dena dela, kanta eraztea ere ez da zaila. Baina, jakina, haurrentzako moduan prestatu eta eraman behar da. Saritxoak, norgehiagokak eta mila era daude, haurren arreta nahi den haritik eramateko, bestela norberak nahi bezala bideratu ezinik ari baldin bada.*

## X

### ERREZITAPENAK KOPLA TXIKIAN

Neur sena lantzen ari gara. Neurria erritmoarekin oso estuki loturik doa. Erritmorik ez balitz, ez legoke neurtzerik. Kantatzean, erritmoa doinuak darama.

Ez al da kantatu gabe erritmoa eramaterik? Bai noski. Bi era daude. Bata erritmoz irakurtzea. Bestea erreztatzea.

Bertsoak ondo irakurtzeko, oharkabez erritmoa sartzen diogu. Haurtzaroan prosa arruntari ere erritmoa sartzen bagenion, nola ez bertsoari? Hona hemen koplak txikiaren eta, beraz, zortziko txikiaren erritmoa:



Musikaz jarrita dagoean bezala, errezitapena da. Erritmoz kantatu, baina beti nota beraren gainean. Erreztatuta beharrean, irakurtzea ere litekeena da, erritmo berarekin. Gauza bera, baina irakur doinua ezarriz.

1) Irakur ditzagun bertso hauek:

## DOHAINA ETA LANA (Xalbador)

- 1) Agur eta ohore  
Ahetzeko Mattin  
Hea non bizi ziren  
nahi nuke jakin.  
Ez gira aspaldian  
egon elgarrekin  
egun gogoia zeraut  
zure alderat jin  
hurbilago bazintut  
banuke atsegin.
- 2) Garelakotz lagunak  
eta elgar maite  
adixkide xaharrak  
garela diote.  
Bainan xaharragorik  
nonbait baditaike  
guk elgar ikusirik  
lehengotz, nik uste  
aurten beteko ditu  
bederatzi urte.
- 3) Geroztik izan zaitut  
adixkide mina  
zure ganatzea da  
ene atsegina.  
Zarelakotz pertsutan  
osoki jakina  
lagun bila naiz egun  
zure ganat jina  
biek bururatzeko  
ene etsamina.
- 4) Errex da pentsatzea  
zonbat zaukun eder  
elgar ezaguturik  
dohain bati esker.  
Etsenplu eman dugu  
batzuer ta bertzer  
zonbait pertsu kantatuz  
eskuin eta ezker  
lan bereko lehia  
eman nahiz gazter.
- 5) Bainan debaldetan da  
gure entsegua  
gazteak bertz' alderat  
hartu du plegua.  
Zineman eta dantzan  
uda ta negua  
iduri sekulako  
duela galdua  
gure aintzinekoen  
kantuko gostua.
- 6) Koplariak metaka  
ziren lehenago  
bihi bat ere ez da  
sortzen gehiago.  
Gauza hori ikusiz  
gogoetan nago  
aintzina joanago  
eta tristeago  
pertsulari arraza  
gutan den akabo.



- 7) Jainkoak emaiten du  
zombaiti dohaina  
nola guhauri ere  
baitauku emana.  
Nork daki hazi hori  
non dagon eraina?  
Miatu behar laike  
ahal bezain barna  
lur hoberenak ere  
baitu bere lana.
- 8) Orroit naiz egun batez  
senditu nuela  
dohain berezi hori  
Mattin, zuk bezala.  
Hasi nintzen artoski  
lantzen berehala  
bainan gelditu banintz  
uzkur ta gibela  
segur naiz pindar hura  
ilaunduko zela.
- 9) Ez da jorratu behar  
ez den landaririk  
lurrean heldu denik  
ez eta bertzerik.  
Gaur ere jiten daike  
landare hartarik  
bainan deus ez dezake  
hark bere baitarik  
jabeak ez badio  
ematen artarik.
- 10) Zonbaitek uste dute  
sortuz gero behin  
bihia segur dela  
hazi onarekin.  
Ez badugu laguntzen  
handi ta ont dadin  
landare hoberena  
galduko da berdin  
uzta nahi duenak  
behar du lan egin.
- 11) Huna kantuz emanak  
nik zombait abisu  
konprenitzeko badu  
jendeak askitsu.  
Gero're izan dadin  
kantu eta pertsu  
Jauna, zuk, otoi, zerbait  
zerutik egizu  
gure behar orduen  
berri baitakizu.
- 12) Nik zerbait erraiteko  
aldia zen egun  
Mattin, zurea ere  
ez ahal da urrun.  
Ez baitzaitut ikusten  
gehiago nehun  
urrunetik bederen  
nahiko dut entzun  
ene gaurko suietaz  
zer pentsatzen duzun.

Orain bertso berak errezita ditzagun.

*Ariketa honetan erritmoa astiro eramaten saiatu behar da, abiatzeko joera izaten baita. Ustez astiroegi doala badirudi ere, kantatzean abiadura haundia da. Doinu bat bizkor kantaturik ere, abiadura berak, irakurtzean edo erreziatzean, oso motel ematen du. Ikasleekin batetik bestera konparaketa batzuk egitea ondo dago, tranpan gabiltzala pentsa ez dezaten. Hemen kantatzeko prestaten ari gara. Irakurtzea eta erreziatzea horretarako ariketa laguntzaileak dira. Beraz, aski da kantatzeko behar den abiadura, hasieran behintzat. Geroago beste era batera egin litezke, astiro, poliki edo oso bizkor. Bai eta moteletik azkarrera bizkortuz eta alderantziz ere. Beti neur sena lantzeko helburuz.*

- 2) Orain erreziatpenak, baina inprobisatuz. Edozer esan eta segi. Ez dago errimatu beharrik. Erritmoa eramane eta neurtu bakarrik. Euskaraz gaizki esanda ez badago, edozer dago ondo.

Adibidez:

*Oraintxe hasiko naiz / moda berri hontan / erlojua eskuan /  
eta ni begira / zuek hortxe zaudete / neroni barreka / ni  
aurrera noa ta / hor konpon besteak / aurrean ikusten dut /  
orma bat zuria / ... eta abar.*

Zazpi-sei, zazpi-sei... Ea boluntario bat. Astiro eta lasai. Zeinek denbora gehiago egin! Hasi!

*Jendeari joko honetan sartzea nahikoa kostatzen zaio. Alde batetik lotsatu egiten dira edo barregarri iruditzen zaie. Horretarako haurrak dira aproposenak. Baina jokoan sartuz gero, jolas gertatzen da. Jolas zelebrea gainera. Bakoitzak bere buruarekin ere egin lezake. Behin bost segundo, behin hamar, behin hamabost... Gero eta gehiago. Erritmorik hautsi gabe, zernahi esanez, neurria lantzen ari gara.*

*Eragozpenik haundiena zeresana izaten da. Ez dute zer esan jakiten. Tontokeriak iruditzen zaizkie. Hala ere, tontokeriek listokeriek aina balio dute neurtzeko. Eta saltza jartzeko gehiago. Berriz ere haurrak abantailan daude hemen.*

*Zeresanaren eragozpenak bi eratara leun litezke: deskribapenez eta narrazioz. Deskribapenean begiek ikusten dutena esan liteke. Aurrean ikusten dutena kantatu: ormak, mahaiak, lagunak, leihoak, atepak, koloreak, arbolak, txoriak eta abar. Begiak ireki eta ikusten dutena kontatu.*

*Narrazioa edo zerbait kontatzea ere era egokia da. Adibidez, goizetik gauera zer egin duen, aurreko jaietan non ibili zen eta abar.*

*Oin zerrendak jarrita. Hona beste era bat: Oin zerrenda luze bat jarri eta hitzek berek ematen dutena esan. Honela bide batez errima ere landu egiten da.*

3) Jar dezagun oin zerrenda bat. Adibidez:

Harria  
larria  
belarria  
jarria  
elbarria  
ikaragarria  
herria  
berria  
zerria  
zorria  
gorria  
orria

eta abar.

Orain errexitatu:

Lagun baten burura / bota dut harria  
oraintxe nago hemen / benetan larria  
buruaren erdian / daukat belarria  
eta sudurra daukat / erdian jarria  
makala banaiz ere / ez naiz elbarria  
hauxe bai dela trantze / ikaragarria  
ederki dago, jaunak / gaur gure herria  
ipini behar dute / alkate berria  
gabonetan hil behar / omen da zerria  
nire buruan dabil / kiloko zorria  
ipurdia darama / beltza ta gorria  
belarriak dirudi / azaren orria

Eta abar.

Ea nor animatzen den. Oin zerrenda berarekin ere ari liteke, ez baitago berriz berdina esaterik. Norbaitek hori egingo balu, meritu gehiago. Hala ere oin zerrenda aldatzea ez da zaila eta ez da aspergarri gertatuko.

*Oin zerrendarik gabe errimatzeako gai denik ere agian izango da taldean. Utzi horiei luzitzen. Baina oraindik gabiltzan mailan, taldeari hori eskatzea ur gainean ozta-ozta egoten dakiena ubin artera botatzea bezala da.*

HIRU

KOPLA HAUNDIA

# XI

## DOINUAK ETA HASTAPENAK

### PELLO ETA TXIRRITA

*Pello:*

Ari naizela, ari naizela  
hor ikusten det Txirrita  
eta zein ez da harrituko gaur  
gizon hori ikusita.  
Dударик gabe egina dio  
andregaiari bisita  
oso dotore etorri zaigu  
bi alkandora jantzita.

*Txirrita:*

Hauxen da lotsa eman didana  
gizon artera sartuta  
edozer gauza esaten degu  
edan tantokin poztuta.  
Bi alkondara ekarri ditut  
bat eraztia aztuta  
Pellok bi nola jantziko ditu  
bat besterikan eztu ta.

### BESTE BEHIN

*Txirrita:*

Bertso polit bat kantatuko det  
balkoi hontatik kalera  
Pello Errota ikusi eta  
nik hartzen dedan kolera.  
Asteasutik etorri eta  
erronkan hasi al zera?  
Laister uxatuko zaitut nik zu  
jetxitzen banaiz hor bera.

*Pello:*

Arrazoi batez ez dek egundo  
ezagututzen personik  
poliki xamar hasi haiz baina  
ez dek egingo gauz onik.  
Sekulan inork ez zidak esan  
erronkosua naizenik  
balkoi hortatik ez dek  
jetxiko ni uxatzeko gizonik.

Kopla haundia zortziko haundiaren erdia da. Zortziko haundiaren egitura ikus bigarren kapituluan. Hona orain kopla haundiaren doinua, hemen erabiliko duguna:





Hona orain bi zortziko haundi:



Bigarren hau asmo berezi batez jarria dago. Doinu honen egitura ez da gehienena bezalakoa erritmoz. Begira puntu bakoitzeko lehen lerroa. Lehenengo doinuaren erritmoa 5-5 da. Bost silaba, etena eta beste bost silaba. Bigarren doinuarena berriz honela da: 3-3-4.

Zortziko haundiko etena hamar silabako lerroak bosnaka erdibitzea da. Erdian egiten den geldiuoneari etena deritza eta zubi horretan aurreko hitza amaitu egin behar da eta beste bat hasi. Hitz berarekin etena deritzan zubi hori pasatzea ez dago ondo. Adibidez:

**Zerutik dato/rren eguzkia**

Erdian **DATORREN** hitza apurtu egiten da eta horixe da egin behar ez dena. Arau hau ez da guztiz errespetatua eta ez dago tarteka gaizki dagoela esaterik ere. Baina normalki etenik ez errespetatzea gaizki ikusia dago. Gehienez eten edo geldione hori musikak berak daraman geldionea da. Hortik letraz ere errespetatzea eta pixkanaka arau bilakatzea, belarria hartara hezten delako.

Hemen zortziko txikiak haundira luzatzea izango dugu ariketa nagusietariko bat. Txikia haunditzean, ordea, oso zaila da etena bere lekuan gertatzea, aldatu ezik. Zortziko txikian ez dago eten araurik. Luzatzean, baliteke etena behar den lekuan gertatzea, bai eta ez gertatzea ere. Gehienez ez da gertatuko. Aldakuntzak egiterik ez du merezi. Hori ez da gure helburua orain. Zer egin, etena zehazki suertatu ez arren, kantaerak ondo eman dezan? Horretarakoxe da bigarren doinua. Egitura desberdina dauka eta etenik ez denez ere, ondo ematen du. Are gehiago, doinu honek etena beste era batera behar luke, musikari jarraitzekotan. Doinu honen arabera ondo neurtuak beste doinu batean gaizki emango luke.

Doinu honetan, ordea, eten klasikoz kantatzen da eta ez zaigu gaizki iruditzen. Ohitura halaxe egina delako. Eten kontu hori ez dela hain zorrozki hartzekoa esan nahi du horrek. Hemen dagokigun lanerako, luzapenak egitean, doinu honekin kantatuko dugu eta horrela ez da problemarik. Etena erdian gertatu ezik ere, doinu honekin ondo ematen du.

#### Zortziko zaharra:



Neurri honetakoa da **Adios ene maitea** ere. Ikusten denez, doinu honek beste neurri bat darama: 8-7. Puntu bakoitzeko lehen lerroan zortzi silaba eta bigarrenean zazpi. Zortziko txikia zortziko zaharrera pasatzea silaba bat gehitzen ikasteko ariketa aproposa da.

1) Zortziko txikiak

- 1) Esaera zarra da inoiz jakintsuak egin oi dituztela txit gauza txatxuak. Zailak dira bildutzen onra ta protxuak nola ez du pentsatu hau gure maisuak?
- 2) Guk nai diogulako euskerari fidel zuk ipintzen diguzu bekoskua goibel. Asko dakizularik gaizki zaude, Migel ezin bihurtu leike amorrairik igel.
- 3) Gerentzako degula naitasun urria ta bestienganako guztizko tirria. Beraz, horren zitala da Euskal Herria? Hain txartzat al daukazu zere jatorria
- 4) Ezagun da herritik urruti zaudena ez da gaitza euskaldunak eskatzen dutena. Baizik izan dedila ongi mundu dena ta utzi deigutela ostu zigutena.
- 5) Gutxiak letzen duela euskeraz ta hargatik izkribatutzen dezu erderaz gogotik. Guk ez ta zuk badezun maitasunagatik edo kalte geiago egitiagatik.
- 6) Jakinik horkuak zer tirri dabilkiten beinere ez dutelako egirik jakiten. Etzinan nekatuko lan hoiek egiten ez bazina gaurdaino Bilbaotik irten.
- 7) Bilbaotik irtenda Salamankaraino noraino juan zerade zu, Migel, noraino? Gu etorriagatik beste munduraino uste det alderago gaudela zu baino.
- 8) Labur gelditu arren euskerazko lanak badira erderazkuak zureganuntz joanak. Irakurri itzazu al badezu danak utzi gabe eginak Basaldua jaunak.

2) Zortziko zaharrera. Hona adibidez lehen bertsoa:

Esaera zaharra da  
inoizka jakintsuak  
egiten oi dituztela  
oso gauza txatxuak.  
Zailak dirade bildutzen  
onra eta protxuak  
nolatan ez du pentsatu  
hori gure maisuak.

3) Zortziko haundira. Lehengo bertso bera:

Oso esaera zaharra da  
batzuetan jakintsuak  
egiten oi dituztela noski  
benetan gauza txatxuak.  
Zailak dirade bildutzen, jaunak  
hola onra ta protxuak  
nola arraio ez du pentsatu  
gauza hau gure maisuak.

Ikusten duzueenez, txikitik zaharrera lerro bakoitzean silaba banaren alde dago. Txikitik haundira berriz hiru eta biren alde puntu bakoitzean. Lehen lerroan hiru eta bigarrean bi.

Txikitik zaharrera silaba baten gorabeheran ibiltzeari zehaztea edo zehazpena esango diogu. Txikitik haundira, ordea, tarte haundiagoa dago eta horri hornitzea edo hornikuntza deritzogu. Ondo neurtzeko biak egiten jakin behar da. Azken batez dena da gauza bera, neurtzea alegia. Baina hobeki ohartzeko eta jabetzeko, berezpen hori egiten dugu. Izan ere bertsolaria sarritan silaba baten faltan edo sobran aurkitzen da. Etengabe gertatzen zaio hori, baina martxan zuzentzen du, horretarako sena baitu. Zeintzuk dira silaba bakarraren gorabehera konpontzen duten giltzak? Laster ikusiko dugu.

Beste batzutan, ordea, zehaztu ez ezik hornitu egin behar izaten da. Bi edo hiru edo lau silaba eta gehiago ere hornitu behar izaten da. Hori ere bertsolariak martxan doala egiten du, horretarako landurik duen senez. Zeintzuk dira lan hori egiteko giltzak? Hori ere laster ikusiko dugu.

Esan bezala, bertsolariaren sen hori bakarra da. Silaba bakarra behar duenean, huraxe sartzeko modua egiten du. Bi edo hiru edo gehiago behar dituenean ere, berdin. Hemen egiten dugun berezkuntza pedagogikoa da. Baina nahiko berezkuntza garrantzitsua, silaba baten gorabehera oso berezia baita, bitatik gorakoen aldean.

## A) ZEHAZPENA

Lau atal haundi dira silaba baten gorabehera ematen dutenak:

- 1) Silaba bakarreko **hitzak**
- 2) **Atzizkiak**
- 3) **Laburdurak**
- 4) **Sinonimoak eta antzekoak.**

## B) HORNIKUNTZA

Bi silabatatik gorako giltzak bi atal haunditan daude:

- 1) Bi silabatatik gorako **hitzak**
- 2) **Sinonimoak eta antzekoak.**

Bada **HITZ ELKARTUEN EGITURA** deritzan kapitulua ere. Bere garrantzia edukirik, ez dugu hemen sartuko, beste biak askoz garrantzitsuagoak baitira.

Kapitulu guztiok **BERTSOLARITZA 1 - HITZAREN NAZIONALA** izeneko liburuan daude, 176garren orrialdetik aurrera. Materiale osoa han dago. Hemen kapitulu bakoitzetik bilduma bat hartuko dugu.



## XII

### ZEHAZPENA: TXIKITIK ZAHARRERA

#### NESKAZAR BAT TENTATZEN (Txirrita)

- 1) Dozena bat bertso nik  
nai nituzke jarri  
jaietan kantatzeko  
entretenigarri.  
Nere publikatzia  
izango da sarri  
alabantzak emanaz  
zenbait neska zarri.
- 2) Neskazar bat tentatzen  
hasi naiz lenguan  
izan ere halako  
polita zeguan.  
Umil eta serio  
hitz egin genduan  
baino gusto guziak  
ez dira munduan.
- 3) Hizketan hasi ginan  
biok gozo gozo  
ezkontzeko mandatu  
egin diot atzo.  
Leiotikan ujuka  
ama ta bi atso  
ez dek harrapatuko  
uste bezin mantso.
- 4) Ama preparatu zait  
hasarrez betia  
lenbiziko ujua  
zenbat dek dotia?  
Hainbeste kostatako  
alaba maitia  
lastima izango dek  
hiri ematia.
- 5) Zere familiari  
errespetoz heldu  
inozente daudenak  
ez ditezen galdu.  
Diru truka alaba  
nai zenduke saldu  
lenago gustokorik  
ez al zaio azaldu?
- 6) Nere jakinduria  
ari da atzentzen  
errez dala uste du  
zenbaitek ezkontzen.  
Promes on bat eginda  
ez bazera ontzen  
lanak izango dira  
zurekin konpontzen.
- 7) Ez dezu sinistu nai  
egia esanda're  
zintzua nai genduke  
pobria izanda're.  
Alabari sasoia  
pixka bat juanda're  
gure baztarra baino  
hobiak nun dare?
- 8) Bere alabarentzat  
horrenbeste fama  
nik ez det sinistatzen  
haizeak darama.  
Zure baztarrarian nik  
egitea lana  
izan liteke baina  
ez det uste, ama.

- 9) Ez dala uste al dek  
horren errespuestik?  
Atarramentu onik  
mutilzarrak eztik.  
Nere alabak ez dauka  
ezkontzeko kezkiak  
hi ez bezelakuak  
nai ezta zekazkiak.
- 10) Hitz bat esan bihar det  
nere borondatez  
ez banau inork lotzen  
griluz edo katez.  
Ezkontzeko ideak  
banituen ustez  
ardua maitatzen det  
andriaren partez.
- 11) Mutil malizioso  
deabruz betia  
ez dizut zabalduko  
geiago atia.  
Beinere etzaitut izan  
bihotzez maitia  
nigandik libre zera  
hor konpon zaitia.
- 12) Horra hamabi bertso  
oraingo berriak  
bere andregaiari  
Txirritak jarriak.  
Eman dizkit disgusto  
ikaragarriak  
negar egin lezake  
nigatik harriak.

1) Hitzak eta atzizkiak

Hitzak:

Bai, ez, ba, ba-, len, oin (orain), hain, txit, be, e (ere), gaur.

Hor, han.

Ni-nik, neu-neuk, hi-hik, heu-heuk, hark, haik, gu-guk, zu-zuk, geu-geuk, zeu-zeuk.

Hau, ha, hark, hauk, hoik, hok (hauek), hek (haiek).

Oi, ai, to, txo, al (ahal), maiz, zein, zer.

Niri-neroni, hiri-herorri, hari-hareri, zuek-zeroiek, berek-beraiek, hark-harek, horri-horreri, guri-geroni, zuri-zerorri.

Haiei-haieri, zuei-zueri, denei-deneri, hauei-haueri... Ta-eta.

(Ikus HITZAREN KIROL NAZIONALA, 180. orrialdea)

Atzizkiak:

Antz-antza-untz-untza, dik-tik-danik, arte-arte, ik-rik, ki, ro, ik-ikan, tako-tarako, xe-txe, txo, tsu, z, z-n, a, de, e, artizkia, ei-eri, gan-gan-dik-gana-gatik-kin.

(Ikus HITZAREN KIROL NAZIONALA, 188. orrialdetik gora)

TU: kantatzeko-kantatutzeko. Hau ez da liburuan agertzen.

Bada beste baliakizun bat ere, liburuan agertzen ez dena eta laburduretari sartu beharrekoa agian. Hura ere hemen aipatuko dugu, nahiz eta laburdurretan ere sartu gero. Bi bokalez silaba bakarra ala bi egin, hortxe dago joko. Bi egiteko erdian H dutela idazten dira. Leku batzutan era batera eta beste batzutan bestera ahozkatzen dira, ez laburdura edo luzadura eginez, beti halare esaten delako baizik. Bikoiztasun horretaz hemen baliatzea oso ondo datorkigu. Horrelako hitzak ez dira gutxi. Eta batez ere garrantzitsuak dira. Hona zerrenda bat:

Zar-zahar, nai-nahi, bera-behera, geiago-gehiago, lehen, al-ahal, lenbizi-lehenbizi, lengoan-lehengoan (eta hitz honetatik datozen beste guztiak), mai-mahai, aztu-ahaztu, loi-lohi, arrantza-aharrantza, arrausi-aharrausi, ari-ahari, mi-mihi, mingaina-mihingaina, auntz-ahuntz, eun-ehun, bein-behin, beintzat-behintzat.

Eta abar. Pixka bat alfabetaturik dagoenarentzat, hauek oso ezagunak dira.

Goazen orain lehengo bertso sorta hori zortziko zaharrera pasatzera:

- |  |  |
|--|--|
| 1) Dozenatxo bat bertso nik<br>nahi nituzke jarri<br>jaietan kantatutzeko<br>txit entretenigarri.<br>Neronen publikatzia<br>izango da bai sarri<br>alabantzak emanikan<br>zenbait neska zaharri. | 3) Hizketan hasi ginaden<br>gu biok gozo gozo<br>ezkontzeko mandatua<br>egina diot atzo.<br>Leihotikan han ujuka<br>ama eta bi atso<br>ez dek ez harrapatuko<br>hik uste bezin mantso. |
| 2) Neska zahar bat tentatzen<br>hasia naiz lenguan<br>izan ere halakoxe<br>polita han zeguan.<br>Umil eta serioSKI<br>guk hitz egin genduan<br>baino gusto guziak ai<br>ez dirade munduan.       | 4) Ama preparatua zait<br>txit hasarrez betia<br>lehenbiziko ujua<br>zenbat dek hik dotia?<br>Hainbeste kostatutako<br>alabatxo maitia<br>bai lastima izango dek<br>herorri ematia.    |

Ikusten? Orain segi zuek hurrengo bertsoekin. Gorago emaniko zerrenda horietaz baliatu beti.

## 2) Hitzak eta laburdurak

Hemen ere bi kapitulu batera hartzen ditugu, laburdura hutsez zaila bailitzateke. Gainera laburduretan beste gauza bat kontutan eduki behar da. Bertso jarrietan laburdura gutxiago sartzen da. Hitz laburturik ez badago, edo beste era batera esanik, hitzak osorik badatoz, hura luzatzerik ez dago, ez baitago laburdurarik egina. Ez al da, ba, luzadurarik? Bai, baina oso gutxi. Normalena eta ugariena laburdura da. Bertsolaritzan laburduren giltza, hizkuntza mintzatu osoan bezala, oso garrantzitsua da. Bertso jarriak luzatzean, giltz horientzat lekurik ez bada, hitzak osorik esanik daudelako da. Geroago agertuko da giltz horien garrantzia, bertsoak laburtzen hasten garenean. Orain luzatzen ari gara eta goazen aurrera.

**Hitzak:** Lehen zenbakian jarritako berak.

**Laburdurak:** N eta LAren aurretik E edo gabe: **genuen-genun,**  
**duela-dula.**

**KEEN-KEN:** **nukéen-nuken.**

**IEN-IN:** dakien-dakin, zirudien-zirudin.  
**TEKE-KE:** nintzateke-nintzake.  
**EZAZU-ZAZU:** har ezazu, har zazu.  
**EGIN-EIN:** dagidan-daidan.  
**EN-EAN:** diren-direan.  
**DE:** Garade, dirade, ginaden.  
**ITZ-ITZA:** balitz-balitza.  
**TEN-TZEN + D:** Esaten diot-esateiot.  
**ATU-AU:** pentsatu-pentsau, kostatuko-kostauko.  
**TU** kendu: pasatu zen-pasa zen.  
**DU-TU** erantsi: Izan-izandu, egon-egondu, ari-aritu.  
**AREN-AN:** amaren-aman, beraren-beran.  
**AGO-GO-O:** gehiago-gehigo-gehio.  
**B-D-G-R** kontsonanteak jan: akabatu-akatu, eskribitu-eskritu, era-  
 man-eaman, aditu-aitu, adio-aio, eduki-euki, inori-inoi.

*Ikus HITZAREN KIROL NAZIONALA, 198tik aurrera. Han dator bilduma guztia, askoz luzeago. Sail honetaz aurretik ondo jabetzea komeni da.*

Aurreko zenbakian jarritako hitz mota horiek ere hemen kontuan izan, laburduratzat har baitaitezke: **Nahi-nai, zahar-zar, behera-bera**, eta abar.

Luza dezagun orain goiko bertso sorta zortziko zaharrera, baliakizun hauek erabilirik. Ia aurreko zenbakiko berdintsu egitea beste biderik ez dago, esan bezala, bertso jarri hauetan laburdura askorik ez baita agertzen. Bertso sorta guztian posibilitate hauek agertzen dira: **nai-nahi, zarri-zaharri, lenguan-lehengan, ginan-ginaden, lenbiziko-lehenbiziko, lenago-lehenago, ari-aritu, izango-izanduko, zera-zerade, dira-dirade, esandare-esanda** ere, **darama-daramaki, errespuestik-errespuestarik, dauka-daduka, kezki-kezkari, geiago-gehiago, beinere-behin** ere, **izan-izandu**.

### 3) Hitz sinonimoak eta antzekoak

Hona beste giltz haundietariko bat. Hemen ez dugu zerrendarik jarriko ezinezkoa baita. Ikus **HITZAREN KIROL NAZIONALA**, 226. orrialdetik aurrera. Bi hiztegi datoz han, bata sinonimoena eta bestea antzekoena. Zerrenda luzeak dira. Bilduma labur bat egin liteke, baina ez dauka zentzurik. Zerrenda horiek agergarritzat datoz, sen hori lantzeko orientabide gisa. Izan ere, ez dago hitzik, bere sinonimorik edo gutxienez antzekorik ez duenik. Honelako hiztegi txiki bat aurrean jartzea alferrik da, gero ariketako bertsoetan beste hitz batzuk agertuko badira. Edozein hitzen ordez beste bat sartzeko sena lortu behar da.



Har ditzagun goiko bertso sortako lehen bertso hitzak eta ikus zenbat ordeko hitz posible duten:

**DOZENA BAT:** hamabi

**BERTSO:** koplá, ahapaldi, kanta, bertset, bertso berri

**NAHI:** gura, opa, desio, gogoa ukan

**JARRI:** paratu, ipini, ondu, bota, azaldu, eskaini, ezarri

**JAIETAN:** festetan, ferietan, erromerietan

**KANTATZEKO:** abestutzeko, oihukatzeko, publikatzeko

**ENTRETENIGARRI:** pozgarri, jolasgarri, barre eragile

Eta abar.

Hona orain baliakizun honekin zortziko zaharrera luzaturik. Oinik ez dugu aldatuko, errimarik ez hausteko.

**Hamabi bertso berri nik**

**gura nituzke jarri**

**ferietan abesteko**

**benetan jolasgarri.**

**Nere argitaratzea**

**gertatuko da sarri**

**goralbenak eskainiaz**

**hainbeste neska zarri.**

**Mutxurdin bat zirikatzen**

**ibili naiz lenguan**

**zinez ere zer moduzko**

**dotorea zeguan.**

**Apal eta broma gabe**

**berba egin genduan**

**hala ere pozak oro**

**ez ditugu munduan**

Eta abar.

Segi orain zuek besteekin. Baliakizun honekin ia edozer egin liteke. Hitz guztiak aldaturik, bertsoak zentzu osoari eusten badio, hitz bat edo beste aldatzea ez da ezer. Gehienez bertsolaria ez da hitz guztiak aldatu beharrean aurkituko, bestela ez baitabil hain ondo. Hitz bat pentsatu eta denetan aldatu beharra gertatzea ez liteke normala izan.

## XIII

### HORNIKUNTZA

#### NERE SENARRAREKIN (Xenpelar)

- 1) Nere senarrarekin  
daukadan bizitza  
kantatuko det inork  
ikasi al balitza.  
Pina izango zala  
eman zidan hitza  
akerraren adarrak  
bezala gabiltza.
- 2) Nere senarrak dauzka  
ki ijenuak  
eztu gustorik gure  
matrimoniuk.  
Mani gaiztuak dauzka  
burura iuak  
eman biharko zaizka  
ebanjeliuak.
- 3) Baldin bazenekite  
lengo egun batez  
nola ikusi dedan  
senarra suertez.  
Neskatxak kortejatzen  
dabil borondatez  
andriari jipoia  
diruaren partez.
- 4) Ni engainatu arte  
txintxo eta umil  
mingain ederrarekin  
berrogei maratil.  
Orain lan egin baino  
naiago luke hil  
bere te besterenak  
zurrupatzen dabil.
- 5) Goizian tabernara  
juanda alperrian  
begi bat txintxilikan  
erdi negarran.  
Ziraldoka etxera  
ilunabarrian  
gaiztotutzen hasi da  
ondu biharrian.
- 6) Tabernatik etxera  
horren pausajia  
irrintzi egiteko  
badu korajia.  
Errespetua bihar  
zuen parajia  
amaren sabelian  
aztuta lajia.
- 7) Mozkortuagatikan  
zaila da erortzen  
bakarrikan badaki  
etxera etortzen.  
Andriak egon bihar  
bizkarra berotzen  
senarraren eskutik  
azotiak hartzen.
- 8) Umiak karraxian  
neroni antsika  
senarra mozkortzian  
etxian musika.  
Erantzuten badiot  
kontrako hitzikan  
nere bizkarrak eztu  
izaten hotzikan.

- 9) Beste lau lagunekin  
 bart aguazila  
 jokuan galdutako  
 txerriaren bila.  
 Ate bazterretatik  
 hoiien iskanbila  
 andria etxian bada  
 atera dedila.
- 10) Harriturik begirik  
 ez nieten jaso  
 odolak ur bihurtu  
 zitzaizkidan oso.  
 Nere txerri gaxua  
 ostatura preso  
 senarraren jokua  
 izan dala kaso.
- 11) Ixilik pasa nuen  
 nere barrenian  
 hau ere egin bihar  
 zuen azkenian.  
 Beste jaberik badu  
 bide zuzenian  
 jaunak, eramazute  
 nai dezutenian.
- 2) Esku Aldaba zuen  
 txerriak izena  
 bost arrua ta erdi  
 bastante gizona.  
 Hura jokuan galdu  
 gainera kinzena  
 horra nere senarra  
 sujeto zuzena.

## 1) Hitzak

HITZAK kapituluan dago hornikuntzarako harrobi nagusietarikoak. Silaba bakarrak gutxi baziren, bikoak, hirukoak eta hortik gorakoak ugari dira. Ikus zerrenda bigarren kapituluan, han emanik baitaude. Horien bilduma osoa berriz ere **HITZAREN KIROL NAZIONALAN** duzue, 181. orrialdetik aurrera.

Hona goiko bertso sorta zortziko haundira pasaturik. Silaba bat baino gehiago luzatzeko kasuan gabiltzan ezkerro, zortziko zaharrera izan beharrean, zortziko haundira pasatzen ditugu.

Hain zuzen nere senarrarekin  
 orain daukadan bizitza  
 kantatuko det nolabait inork  
 hura ikasi al balitza  
 Benetan fina izango zala  
 berak eman zidan hitza  
 erabat akerraren adarrak  
 bezala hortxe gabiltza.

## 2) Hitz sinonimoak eta antzekoak

Hauxe dugu bigarren harrobi nagusia. Aurreko atalean aipatu dugu silaba baten beharra konpontzeko. Badira beste asko, silaba biren edo gehiagoren alde dutenak. Zehazpeneko hirugarren atalean esan bezala, zerrenda ematea zentzugabekeria litzateke. Orientabidetzat, ikus **HITZAREN KIROL**

NAZIONALA, 226. orrialdetik aurrerako hiztegiak. Hona goiko lehen bertsoa zortziko haundira pasaturik:

Neronen ezkonlagunarekin  
gertatzen zaidan bizitza  
esplikatzera noa norbaitek  
kontu hartu al balitza.  
Txit langile portatuko zela  
entregatu zidan hitza  
zezentzar baten adar haundien  
gisa berean gabiltza.

Azken puntuan akerraren adarrak hori aldatzeak ez dauka zentzurik horixe baita indarra biltzen duen konparantza guztiz pentsatua. Gauza bat bereziki jarririk dagoenean, hura aldatzea tentelkeria da. Hemen aprobak egiten ari gara eta hortik zilegitasuna. Zerbait, dagoen bezala utzirik luzatu behar denean, badira beste era batzuk, ikusirik dugun bezala. Batekin ez bada bestearekin, luzatzeko eta laburtzeko aukera guztiak daude.

### 3) Antzekoak ere ez direnak

Sarritan ez sinonimoa ez antzekoa izanik ere, hitz baten ordez beste bat sartzea egoki jartzen da. Banaka elkarrekin zerikusirik ez dutenak bertsoaren barruan trukagarri gerta litezke. Zergatik? Bertsoa buru oso bat da, ale askoz hornitua. Ale horiek hitzak dira. Ale batzuk guztiz aldaturik ere, bertso osorik apenas aldatzen den, batez ere betegarri asko izaten baita. Horretaz gainera bertsoak beti dauka inguru bat, kontestu bat. Inguru oso zehatza gehienez, bat bateko saioetan batez ere. Han dago jendea, han dago plaza, han daude bertsolari lagunak, han dago saioaren martxa, han dago sarritan gaia ere jarria. Inguru horrek ideia bat kantatzeko mila modu ematen du, auzia hitz jakin batzuren gorabeheran utzi gabe. Agian hitz garrantzitsu batzuk izango dira, nekez aldatzekoak, baina besteekin aisa joka liteke.

Hona goiko lehen bertsoa zortziko zaharrera luzaturik:

Nere agurearekin  
sortzen zaidan bizitza  
botako det nai duenak  
konpara al balitza.  
Ondo ibiliko zela  
kantatu zidan hitza  
akerraren adar bien  
legetikan gabiltza.

**Akerraren adarrak** konparantza hori ez dugu aldatu, esatera hain berezia errespetatzeagatik.

Hona orain bertso bera zortziko haundira luzaturik:

Gure etxeko trastearekin  
sufritzen dudan bizitza  
bistaratuko dizuet inork  
kontu hartu al balitza.  
Sekulakoa izango zela  
biribildu zuen hitza  
gaur berriz akerraren adarrak  
bezain aldrebes gabiltza.

Ikusten denez, bai zortziko haundi honetan, bai aurreko zortziko zaharrear, bertso originaletik aldatu diren hitzik gehienek, banaka harturik, ez daukate elkarrekin inolako zerikusirik. Ez dira ez sinonimoak ez antzekoak. Kontestuak ematen die antz hori. Beraz, ez da hain inolakoa. Begira zeintzu hitz erabili ditugun:

**SENARRA:** Agurea, trastea  
**DAUKADAN:** Sortzen zaidan, sufritzen dudan  
**KANTATUKo:** botako, bistaratuko  
**IKASI:** konpara, kontu hartu  
**FINA:** Ondo, sekulakoa  
**EMAN:** Kantatu, biribildu  
**BEZALA:** Legetikan, bezain aldrebes.

Bertsotik kanpora, hitz hauek elkarrengadik lekutan daude.



## XIV

### LABURKUNTZA

#### IRIARENA

- 1) Sekulan ez da sartu izandu donostiarrik zeruan nunbait ez zuten meriturikan irabazitzen munduan. Gaxuarentzat Jaungoikoaren justizia dan moduan kondenaturik arkitzen ziran haiek danak infernuan.
- 2) Bein bat San Pedro bultzaturikan zeruetara sartu zanta berihala presa guztian jende tartian gorde zan. San Pedro berriz bila zebilen nunbait azaltzen ote zan alegin franko eginagatik inundi ageri ez zan.
- 3) Orduan Pedro Jaunarengana larri jua zan berihala eta esan zion donostiarra zeruetan sartu zala. Jende tartian ezkutatuta ezin bilatu zuala infernurako destinatua arima hura zeguala.
- 4) Jaunak Pedrori modu honetan eman zion erresposta: Donostiarra izan ezker bilatzen txit gaitza ezta. Iriarena danbolinakin jotzen hastia da basta pozik saltoka ekingo dio zeruan dalako festa.
- 5) Iriarena danbolinakin jotzen ziranian hasi donostiarra danen artian saltoka zuten ikusi. San Pedro berriz harren ondoren egin baino len igesi harrapatuta zeruetatik infernura zuten jetxi.
- 6) Berihalaxe han sartu zuten bere lagunen onduan Donostiako kontu guztiak gogoratutzen orduan. Demoniuak ikusirik pozturik galdetu zuan aber benetan ote ziraden karnabalak infernuan.
- 7) Geroztik beti han arkitzen da infernuan penatuzten bere zeruko pasadizua herritarrari kontatzen. Halaxen dio: berriro banintz ni berriz horla gertatzen Iriarena juagatikan ez naiz hasiko saltatzen.
- 8) Deabru haiek beren kontura donostiarra harturik zulo batera han bota zuten kate gogorrez loturik. Toki hartako berotasunez biziro egarriturik galdetu zuan: ez al da hemen inun sagardotegirik?

9) Orain hazitzen hasi dalako  
Donostiako herria  
demoniuak omen daukate  
berebiziko larria.  
Bildurturikan lengoko zarra  
ez dela naiko haundia  
ta egitea pentsatu dute  
beste infernu berria.

10) Baldin geiegi hitz egin badet  
jaunak ez zaitezte harritu  
huts eginikan baldin badago  
bihar nazute barkatu.  
Donostiarrei gaizki nai eta  
ez ditut bertsuak sortu  
baizik hoiekin karnabaletan  
broma nai gendun pasatu.

Hona orain lehen bertsoa zortziko txikian:

Donostiarrik inoiz  
ez dago zeruan  
ez zuten meriturik  
egingo munduan.  
Gaxuentzat Jainkoa  
justu dan moduan  
kondenaturik daude  
danak infernuan.

Lehenago ere esana dugun bezala, laburtzeak luzatzeak baino oztopo gehiago dauka. Luzatzea pieza batzuk sartzea besterik ez da, liburu honetan egiten saiatu garen bezala behintzat. Laburtzean, ordea, hitz bat edo beste kentzeak problemak ekar ditzake, sarritan, bat kendurik, beste bat airean geratzen baita. Esate baterako, lerro batean **hain suertez** jartzen badu eta silaba bat kendu nahi bada, ez dago **HAIN** kentzerik, orduan **SUERTEZ** zentzu gabe edo beste zentzu batez geratzen baita. **SUERTEZ** kentzerik ere ez dago, gehiegi kentzea baita. Zer egin? **HAIN SUERTEZ** esan beharrean **HAIN ZUZEN** esan, sinonimoa baita. Honelako aldakuntza errezik ez bada, beste zerbait egin behar, esaldia aldatuz.

Beste kasu batzutan ez dago hitzik aldatzerik, hura beharrezkoa delako. Luza lanean ere esana dugu hau. Gorago laburturiko bertsoan, adibidez, **DONOSTIARRIK** kentzerik ez dago, hain zuzen hura esan nahi delako. Gehienik ere **DONOSTIKORIK** esan liteke eta hau laburturik, **DONOSTIKOIK**. Luzatzea bada, **DONOSTIARRIKAN** edo **DONOSTIAKORIKAN**. Baina nola edo hala, **Donostiak** hor agertu behar du. Orduan, **DONOSTIKOIK** esanda ere, silaba bat baino gehiago laburtzerik ez dagoenez gero, lerroz aldatu dugu, bigarrenetik lehen lerroa pasaturik, zortziko txikiko neurririk honda ez dezan.

Laburtzeak oztopo gehiago duela esan dugu. Hala ere, aski litzateke pixka bat desberdina dela esatea. Sena landutakoan, luzatzea nahiz laburtzea ihardun bera dira, korrelatiboak baitira. Gainera esaldiak gehienez, txasisean utzirik ere, ez du galtzen gauza funtsezkorik, ideiaz behintzat. Neguko zuhaitzek ez dirudite udaberriko berak direnik<sup>1</sup>. Hala ere berak dira. Hizkuntzaz ere berdintsu gertatzen

da. Hona bigarren bertsoa ahalik gehien laburtua:

**Bat zerura  
Han gorde  
San Pedro bila  
Ageri ez.**

Bertsoaren ideia guztiak hitz gutxi horiekin esanak daude. Beste guztiak apaingarriak, hornigarriak, biribilgarriak dira. Beraz, bata bestearekin trukagarriak. Horrek ez du esan nahi apaintze edo biribiltze hori garrantzirik gabekoa denik. Lan funtsezkoa da, baina era askotara egin litekeena. Eta hain zuzen ideia edo txasis bera era batera ala bestera jantzi, bertso antologikoa ala ezereza izan liteke.

Bertso jarriak luzatzeko, laburduren baliakizunak ez duela askorik ematen esana dugu, hitzak osorik etortzen baitira gehiengan. Bai, ordea, laburtzeko. Egin dezagun aproba bat, hirugarren bertsoa zortziko zaharrera pasatuz.

**Ordun Pedro Jaunagana  
larri jun zan berala  
eta esan donostierra  
zerutan sartu zala.  
Jendartian ezkutauta  
ezin bilatu zula  
ifernura destinauta  
anima hura zegola**

Gauza bera egin liteke hitz sinonimoz eta antzekoz ere. Hitz baten orde, beste laburrago bat sartu eta aurrera. Laburkuntza, beraz, luzatzeko erabili ditugun tresna berez egiten da, alderantziz erabilirik. Hauxek dira tresnak: **HITZAK, ATZIZKIAK, LABURDURAK** eta **HITZ SINONIMOAK ETA ANTZEKOAK**.

*Honetan irakasleak ikusiko du zenbat ariketa egin eta abar.  
Hemen egin ditugunez gainera, nahi bada, luzatzean egin diren denak egin  
litezke, ordena berean eta alderantziz.*

## KOPLA HAUNDIAN AURRERA

## LORIAK UDAN (Bilintx)

- 1) Loriak udan intza bezela maite det dama gazte bat hari hainbeste nai diotenik ez da munduan beste bat. Inoiz edo bein pasatzen badet ikusi gabe aste bat bihotz guztira banatutzen zait halako gauza triste bat.
- 2) Neskaxa gazte paregabia apirileko arrosa izarra bezin dizdizaria txoria bezin airoa. Oraintxen baino gusto geiagonik ezin nezake goza zorionian ikusten zaitut nere bihotzak hau poza.
- 3) Ez al didazu antzik ematen nik zaitudala naiago ai marinela gau ilunian izarra baino geiago? Nere onduan zauzkadalako pozez zoraturik nago zu ikustiak alegratu nau triste neguen lenago.
- 4) Nik hainbat inork nai dizunikan arren ez zazula uste nere begiak beren aurrian beti desio zaituzte. Eguzkirikan ikusi gabe txoria nola dan triste ni ez nau ezerk alegratutzen zu ikustiak hainbeste.
- 5) Arpegi fina gorputza berriz ez dago zer esanikan hizketan ere grazi ederra ezer ez dezu txarrikan. Mundu guztia miratutzera zu bezelako damikan agian izan liteke baina ez det sinisten danikan.
- 6) Nere betiko pentsamentua nere kontsolagarria zu gabetanik ezin bizi naiz esaten dizut egia. Zu bazinake arbola eta ni banitzake txoria nik zu zinaken arbol hartantxe egingo nuke kabia.
- 7) Amoriuak bere bihotza zureganuntza darama herri guztian zeren daukazu neskax bikainaren fama. Beste fortunik mundu honetan ez det desiatzen, dama haur batek berak izan gaitzala ni aita eta zu ama.
- 8) Falta duenak logratutzeko hitz egitia txit on du eta nik ere saiatu biat ote gintezken konpondu. Gaur nagon bezin atrebitua sekulan ez naiz egondu hartatik kolpez galdetzen dizut nerekin naizun ezkondu.

- 9) Ezkondutziak izan bihar du  
preziso gauza txarren bat  
hala esaten ari zait beti  
nere kontsejatzailer bat.  
Halaxen ere haren esanak  
oso utzirik alde bat  
ongi pozikan hartuko nuke  
zu bezelako andre bat.
- 10) Zedorrek ere ongi dakizu  
aspaldi hontan nagola  
zuregatikan penak sufritzen  
bainan ordia hau nola.  
Halaxen ere nigana ezin  
bigundu zaitut inola  
ni zuretzako argizaia naiz  
zu neretzako marmola.
- 11) Nere bihotza urtzen dijua  
eta ez da misterio  
penaren kargak estutu eta  
zumua kendutzen dio.  
Begiak dauzkat gau eta egun  
eginikan bi errio  
beti negarra dariotela  
zu zeradela merio.
- 12) Zu zeralako merio baldin  
juaten banaiz lur azpira  
gero damua eta malkuak  
alperrik izango dira.  
Bein jua ezkerreko hoi birtutez  
berri ez ninteke jira  
hori gertatu baino lenago  
izazu nitzaz kupira.

Kopla txikitik haundira tarte haundia dago. Txikiko puntuak zazpi eta sei silaba baldin baditu, haundikoak hamar eta zortzi ditu. Hamairutik hamazortzira. Hirutatik bat baino alde gehiago da hori. Dimentsio berrian gaude, beraz. Harrikada bat hamairu metrotara zuzendu beharrea, hamazortzira zuzentzea bezala.

Hasi berriei kopla haundia zailago egiten zaie, tarte gehiago bete behar baita. Aurreko atalean eginiko ariketen ondoren, dimentsio berrian ibiltzeko moduan gaude.

## OIN ZERRENDAK

Egin dezagun oin zerrenda bat. Adibidez:

### 1) Oin zerrenda:

Lotsa  
motza  
zotza  
zorrotza  
bihotza  
izotza  
abotsa  
hotza  
arrotza  
heriotza

eta abar.



- 2) **Oinak binaka.** Har ditzagun orain oin horiek binaka eta bakoitzarekin esaldi bana bi lerrotan. Kontutan izan orain esaldi luzeagoak egin behar direla, bestela hornitzeko gehiegi geratuko baita.

Denen aurrean aitortzeko —1  
ez naiz bate lotsa —2  
buru haundia daukak —3  
baina talentua motza —0

- 3) **Hornitu.** Orain arte emanik ditugun giltzez orain bertso hori hornitu:

Denen aurrean hau aitortzeko  
ez naiz hemen bate lotsa  
buru haundia daukak egitan  
baina talentua motza

Hurrengo bikotea:

— Zotza  
Zorrotza

— Gosez nengoen eta —3  
irentsi dut zotza —2  
traba haundirik ez baina —2  
alua da zorrotza —1

— Gosez nengoen eta nolabait  
hor irentsia dut zotza  
traba haundirik ez noski baina  
alua da txit zorrotza

Orain zuek hurrengo oin pareta hartu eta ekin. Amaitzean, jaso eskua. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost. Sei... Ask!

Ikus koplak haundiko doinua XI kapituluan.

Doinu hau taldeak kantatzen du, tralaratuz. Gero bakarrak bere koplak doinu berean eta aurrera. Koplak doinua eta taldearena hemen berdinak dira. Doinua ikasia dugunez gero, goazen lehen eginik dituzuen koplak kantatzera.

## ESALDIAK KANTATU

Hona orain koplak txikian egin genuen iharduna bera koplak haundian. Han eginiko azalpenek haundirako ere berdin balio dute, hemen esaldi luzeagoak behar direlarik. Doinua koplak haundiaren bigarren puntua izan bedi.

Esaldia:

**Ez uste gero honen tentela naizenik**

Kantatua:

**Ez uste gero inola ere  
honen tentela naizenik.**

Esaldia:

**Nor ari da hemen gezurrak esaten?**

Kantatua:

**Nor demonio ari da hemen  
hola gezurrak esaten?**

Orain ariketa bera zuen artean. Batek esan eta beste batek huraxe kantatu.

Batek:

**Azeriak eraman zuen oilorik ederrena**

Besteak:

**Azeriak, ai! eraman zuen  
oilorikan ederrena.**

Esaldiko azken hitzaz beste bat ointzat harturik:

Batak:

**Hik ez dakik aurpegirik ematen**

Besteak:

**Aurpegirikan ematen ere  
hik oraindik ez dakik**

Batak:

**Zorrak ordain hitzak, besteak ipuinak dituk**

Besteak:

**Zorrak ordaindu hitzak hik eta  
ipuinak dituk besteak**

Ariketa hauek egitean, koplak txikiko ariketa kideetan eginiko oharrei begirada bat ematea komeni da.

## OIN BAT ETA BIGARRENA NORBERAK

Har dezagun edozein hitz ointzat. Adibidez **BERRIKETA**.

Oin honekin puntua:

**Erreza zela uste genuen  
baina ez da berriketa**

Orain bakoitzak asma bigarren oina. Adibidez **ERRETA**.

Bigarren puntua:

**Beldur naiz bertan akabatzeko  
gibelak ere erreta**

Beste oin bat:

**ARGIA**

Puntua:

**Asto zaharren sabela ez da  
egongo bate argia**

Bigarren oina bakoitzak. Adibidez **ERBIA**.

Puntua:

**Argiagoa mendian gora  
korrika doan erbia**

## BI OINAK NORBERAK

Orain bi oinak norberak jarririk. Pentsa bi hitz elkarrekin errimatzen dutenak eta ea zer ateratzen duzuen.

Adibidez:

1) **Sorgina  
gordina**

2) **Bide erdian irten —3  
zitzaidan sorgina —2  
nor zen ez dakit baina —3  
ez zen gordina —3**

3) **Bide erdian kolpera irten  
zitzaidan hantxe sorgina  
nor zen ez dakit baina nolana  
ez zen batere gordina**

Beste bat:

- 1) Zuri  
Isuri
  
- 2) Zerk eragiten dizu —3  
hainbeste negar zuri —1  
ez ezazu geiago —3  
malkorik isuri —2
  
- 3) Zerk eragiten dizu, laguna  
horrenbeste negar zuri  
ez ezazu ai geiago hola  
malkorik arren isuri

## GAIARI JARRAITZEN

## NERE ANDRE HONEKIN

*Senarra:*

- 1) Nere andre honekin  
txit hasarre nabil  
izan ere halako  
maritxua dabil.  
Senarragana ez da  
errenditzen umil  
obeditzea baino  
naiago luke hil.

*Emaztea:*

- 2) Obedituko nuke  
merezi bazendu  
errespetua inoiz  
norberak galtzen du.  
Oker zabiltza eta  
nik ezin zuzendu  
gure kasketa beti  
horrek ekartzen du.
- 3) S.: Nere andre Jazintak  
hartu dira gala  
bertso berriak jarri  
behar dizkadala.  
Kulpa gabe hasitzen  
bazerade hala  
gauza jakina dago  
gaiztua zerala.
- 4) E.: Publikuan diozu  
gaiztua naizela  
nik esango dizut zuk  
merezi bezela.  
Ia danak aditzen  
jarri ditezela  
igarriko dizute  
gaizki zabiltzela.

5) S.: Sekulan egin izan  
ez dizut gaitzikan  
al dezakedanean  
mesede baizikan.  
Aditzen badizut nik  
horlako hitzikan  
bizkarrian ez dezu  
izango hotzikan.

6) E.: Beti beti beldurrez  
hemen nadukazu  
edanekuan beintzat  
zitala zera zu.  
Horditu gabe berriz  
onik ez daukazu  
nerekin bizitzeko  
mudatu biazu.

7) S.: Itxuari pegatzen  
diozu poliki  
zuk ondo jan eta ni  
gosiak iduki.  
Senar-emaztientzat  
hau ez da egoki  
makila dantzatutzen  
hasiko naiz aurki.

8) E.: Makilarekin baldin  
ni jotzen banazu  
egun asko baino len  
damutuko zaizu.  
Itxu aurreko beti  
ibiltzen nazu  
zuloren batian hor  
gelditu biazu.



- 9) S.: Ni zuluan sartzeko  
zaude pregonatzen  
ta len berriz gosiak  
naukazu penatzen.  
Zerorrek badakizu  
ondo gobernatzen  
eta ni miserian  
gosez akabatzen.
- 10) E.: Jan edanak balio  
ez du zuretzako  
hoien paltan ez zaude  
zimur eta plako.  
Bai inbirioso ta  
txarra zeralako  
ezin eramana zuk  
andriarentzako.
- 11) S.: Zeinek sufrituko du  
gauza hori hala  
nabilki arto hutsa  
jango nukiala.  
Hanka hankari eman  
ezin diodala  
zu berriz gobernatzen  
beti eginala.
- 12) E.: Gosiak ez zaude zu  
gezurra da hori  
ez egonagatikan  
eder eta guri.  
Suangila jandako  
katua diruri  
beretzako hau ezin  
gustatu inori.
- 13) S.: Lotsagabeagorik  
andria zu baino  
inoiz ere ikusi  
ez det oraindaino.  
Ez da desondratutzen  
inor hortaraino  
enparatutzen nazu  
atzeko alderaino.
- 14) E.: Gabetan horditua  
asko ibilitu  
goizian gogorik ez  
jan gabe gelditu.  
Zere lanak ez baino  
horrek galtzen zaitu  
ta zuk horlakorik nai  
ez dezu aditu.
- 15) S.: Horiek esatia  
ez dira komeni  
zedorrek ez dezu ta  
lotsa eman neri.  
Jendeak badaduka  
hor zenbait armoni  
txit bajeza haundian  
nazu ni ipini.
- 16) E.: Gizona nai duanak  
hobea hartu beza  
ez zu bezin zitala  
eta prestu eza.  
Ezertako ez zeran  
geldo ezereza  
ta eman naian neri  
daukazun bajeza.
- 17) S.: Hitz txar asko esaten  
dituzu nigatik  
ia atera nazu  
pazientziatik.  
Jendia farrez dago  
aldamenetatik  
ezin ariko zera  
horrelaxen beti.
- 18) E.: Haundiaguak ere  
oraindik baditu  
nere gizon txar honek  
esango banitu.  
Zelebregorik ez  
dezute aditu  
esaten daukat lotsa  
ezin atrebitu.

19) S.: Nik ikusitzen ez da  
zuk nai dezuna egin  
beti neri pegatzen  
ta gaizki hitz egin.  
Nik asmatzen dizkitzut  
txit gutxi huts egin  
zurekin biziitzen  
ez dago atsegin.

20) E.: Ez zaude zirrikari  
gutziz gustosua  
hordia ta eskasa  
pantasiosua.  
Deskonfiatua ta  
errezelosua  
beti bildurrez dabil  
zure andre gaxua.

21) S.: Gezurrak sumatutzen:  
dadukazu neke  
lotsagatik bestela  
esango zenduke.  
Aspertu ere gabe  
ariko zinake  
nere tatak esaten  
baldin baneuzkake

22) E.: Ai Joxe Inazio  
ez zabilta justu  
hitz geiegi dituzu  
nere kontra nastu.  
Andriak horrelako  
tatxarikan ezta  
gezurrak esateitu  
ez zuri sinistu.

23) S.: Gezurtia naizela  
horra neri esan  
haundienetakua  
naiz zedorri izan.  
Aurria hartzen dezu  
falsuaren gisan  
nik ezagutzen zaitut  
zergatik zabiltan.

24) E.: Hasiera bezela  
guk errematia  
alperrikan da zuri  
ondo esatia.  
Horren buru gogorra  
gizona izatia  
ez dezu balio ta  
ixildu zaitia.

## AIA JARRITA

orain nola dena zuek egiten duzuen, gaiari erantzunik. Kopla txikian GAIA  
JARRITA atalean esanikoak errepasatzea komeni da, kopla haundirako ere  
ozkoak baitira.

ona gaia:

**Ifernuan zaudete. Zer moduz hortik?**

maitu ahala, jaso eskua. Bat. Bi. Hiru. Lau. Asko kostatzen al da? Bost. Sei...  
i! Has gaitezen kantatzen. Neuk emango dut txanda, elkarri bertsoa jaten ez  
tzeko. Tralaralarala...

*Ekinaldia amaitzean, elkarrizketa bat. Zer moduz? Zaila? Eta abar. Kopla  
txikian egiten genuen bezala.*

har haiei jarrai, beste gai bat denon artean hauta dezagun. Bota gai batzuk.

*Azkenean, demagun hauxe hautatzen dela:*

**Zerri bat hegan**

Hona ideia posible batzuk puntu baterako:

**Harrigarria zerri bat hegan  
Zerri bat hegan eta hegorik gabe  
Hegan zihoan zerria heriotzari ihesi**

Batekin osa dezagun puntu bat:

**Hegan zihoan gure zerria  
heriotzari ihesi**

Orain bigarren puntuko oina. Adibidez **MEREZI**. Eta puntua osatu:

**Hori egiten duen piztiak  
ez du gantxorik merezi**

Azkena lehenbizi:

Idea: **Zerri bat hegan eta hegorik gabe**

Puntu osatua:

**Zerri bat hegan joan zaigu eta  
gainera hegorik gabe**

Orain lehen puntua. Zein oin? **DIRADE**, adibidez.

Idea: **Gure etxean harrigarriak gertatzen dirade**

Puntu osatua:

**Gure etxean harrigarriak  
gertatzen ari dirade**

Orain hau lehenbizi eta aurrekoa bigarren kantatzea besterik ez dago:

**Gure etxean harrigarriak  
gertatzen ari dirade  
zerri bat hegan joan zaigu eta  
gainera hegorik gabe**

Lehenbizi, beraz, azken puntuko oina, gaiaren inguruan dabiltzan hitzetan hartua. Zerri hegalaria honen kasuan: **Zerria, hegan, ikusi, airean, harrigarria**

dezagun orain HARRIGARRIA. Honekin errimatzen duen beste bat  
RIA bera izan liteke. Orain bi oinokin ez da zaila gaira sartzea:

**Txori haundi bat zela usterik  
hegan zihoan zerria  
milagroa den ez dakit baina  
bai gauza harrigarria**

## **LIBREAN**

Es hemen ere kopla txikiko GAI LIBREAN esanak. Demagun orain afalondo  
n gaudela. Dozena erdiren bat kantatzeko moduan zaudetenean, kantatzen  
to gara. Gaia, beraz, afal ondoko giroa duzue. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost. Sei...  
ta dezagun.

libidez:

**Afalondoa heldu da eta  
banoa kantuz hastera  
ea giroa piztutzen dugun  
kopla batetik bestera.**

**Nik ere kantuz hasi behar dut  
hortarako baikaude gu  
nire alboan dagoen honek  
sabela bapo bete du.**

**Hau da bigarren afaritxoa  
hola egiten duguna  
ez gaude hemen leku txarrean  
argitu arte eguna.**

garren afaria» aipatu dugu. Agian aurretik gehiago ere eginak izango dira.  
an afaritxo bat behintzat beharrezkoa da, honelako eskola lagunarte onez  
ateko. Kopla txikiko lehen afarian emaniko ohar mordoari erreparu on bat  
ea ez da gaizki etorriko.

## ERREZITAPENAK KOPLA HAUNDIAN

## IJITUENAK (Txirrita)

- 1) Esplikatzera noa kontuak  
ijitu jende hoiinak  
nola diraden gure artian  
gertatu izan direnak.  
Alperrak edo mozkorrak dira  
erdi lapurrak geienak  
okasiua ta eskandalua  
faltatutzen etzaientak.
- 2) Beren asto ta zakur ta ume  
hemen dabilta jai ta aste  
mikeletiak inoiz aurrian  
atera izan dituzte.  
Berak baino len ostera etorri  
ta persegitzen gaituzte  
beste halako naziorik bat  
inun denik ez det uste.
- 3) Beren asto ta zakur ta ume  
dabilta joan etorrian  
emakumiak lasto petresto  
kasikan larru gorrian.  
Gizonak berriz mozketa aitzaki  
beren haizturak gerrian  
sinalien bat utziko dute  
sartzen badira herrian.
- 4) Emakumiak haurrak hartuta  
eskera dijoaztenian  
etxeko andre, limonatxo bat  
Jainkuaren izenian.  
Ofrezimentu luzia baino  
errezo motza azkenian  
gauza guztiak gero berentzat  
inor bistan ez danian.
- 5) Kojitatuko aberiak  
nola nai duten jokatu  
hemen ostu ta haruntz eran  
han saldu edo trukatu.  
Hanguak berriz honuntz eta  
jabiak ezin topatu  
kontu garbia nai duenak eta  
ijituakin tratatu.
- 6) Ijituetan gutxi izaten  
dirade berriz antzuak  
naturalezaz kasta gogorrak  
ta gainera umetsuak.  
Bizkarrian bat tripan bestia  
aldamenetan batzuak  
sail galantakin ikusten dira  
dabiltzala geientsuak.
- 7) Usandutako okelak jaten  
dira pare gabekuak  
anima salbo zakur gosiak  
diraden bezelakuak.  
Naiz izan usteldu ta lurpian  
luzaro egondakuak  
istimatutzat daramazkite  
horiek horrelakuak.
- 8) Sasietako oihalak eta  
oila kojitzen atsuak  
ta kalietan poltsak miatzen  
dabilta mutil gaiztuak.  
Gizonak berriz mendietatik  
bihorrek eta astuak  
gauza gozorik senti badute  
azkar erantsi eskuak.



- 9) Asolbizio biharrik ere ezta izaten hoiekin fakultadia Aita Santuak hainbat badute berekin. Naiz aide izan ezkontzen dira alkar nai dutenarekin horretarako gazterik pronto naiz dotrinarik ez jakin.
- 10) Kontraturako ere ez dute eskribanorik biharrik kastuan zertan ibili bihar du txorakerian alperrik. Naiz aide igual ezkontzen dira igual hoiek bakarrik bodetarako ardua bada ez da besteren biharrik.
- 11) Neska-mutilak tokatzen bada berentzat alkar hartzia zelebre diran kontuak hortan ere badarabiltzia. Buruaz gora botako dute hautsi dedila eltzia zenbat puska egin hainbeste ijituen ezkontzia. [urteko
- 12) Etxe karrera, ola teileri legorrak dauden tokira jeneralian gauetarako erretiratutzen dira. Atentzitian egon izan naiz nola dabiltzan begira ez dute onik hasarratuta purrukutzen ez badira.

Errezitapenari buruz kopla txikian esanak haundirako ere balio du. Ikus han errezitapenaren zergatia eta onura.

Hona kopla haundiaren eta, beraz, zortziko haundiaren egitura: 5-5/5-3.



Erritmo hau beste honela ere egin liteke: 5-5/5-5.

Beraz, bosnaka hasi eta bosnaka jarraitu, pot egin arte.

*Hasieran eta jokoan sartu arte, hobe da dena bosnaka egitea. Bestela hirukotea noiz tokatzen den arduraz, burua nahastu egin liteke. Azken batez bosnaka nahiz launaka nahiz edonola ihardun, hau neur sena lantzeko da. Bosnaka egiten duena launaka nahiz edonola egiteko gauza izango da.*

*Hala ere, jokoan sartutakoan, zortziko haundiaren egitura jagotea hobe da, horixe baita egiazko egitura.*

1) Irakur ditzagun hasierako bertsoak behar den erritmoz.

Orain errezita ditzagun erritmo berean. Errezitatzea irakurtzea baino errezago gertatzen da. Zerbaitegatik hurrek errezitatuz irakurtzea maite dute. Errezitatuz ez ezik, modulazio txikiak eginez ere bai.

2) Orain errezitapenak inprobisatuz. Kopla txikian esaten genuen bezala, zertahi esan eta aurrera. Ez dago errimatu beharrik.

Adibidez:

a) Dena bosnaka:

Orain hasten naiz / errezitatzen  
gero zer egin / pentsatu behar  
zuek hor eta / ni berriz hemen  
aurrean dena / kantatuko dut  
orma galanta / zuritu berri  
eta leihoa / zabal zabalik

b) Zortziko haundian:

Berriro ere / hastera goaz  
eta aurrera / jarraitu  
bakoitzak hemen / ahal duena  
egiten du ta / hor konpon  
mendi galanta / daukat aurrean  
bestela lasai / nago ni

Eta abar.

Zeresanaren eragozpena nolabait gainditzeko bidea kopla txikian ematen genuen: deskribapena eta narrazioa.

a) Bosnaka dena:

Gazia  
grazia  
ikasia  
eskasia  
irabazia  
fantasia  
garrasia  
orrazia

Eta abar.

b) Zortziko haundian:

Itxasoa da / oso gazia  
Itxasoa da / oso gazia  
ez naiz oraindik / hain ikasia  
orain ordea / zer eskasia  
jornal ziztrina / irabazia

Eta abar.

b) Zortziko haundian:

Itxasoaren / gainean dabil  
benetan aire / gazia  
hemen badugu / bertso naiz kopl  
entrenatzeko / grazia  
asko eginda / ere ez uste  
inor denik i/kasia  
dema hau noizbait / izango al da  
guk hemen ira / bazia

Eta abar.

Ikusten duzueenez, azken ariketa honetan **IKASIA** eta **IRABAZIA** erditik etenik datoz. Erritmoak erdian harrapatzen ditu. Zortzi silabako lerroan hori zilegi da. Etena hamar silabako lerroan bakarrik eskatzen da. Baina aurrerago esana dugun hor ere ez dela hain estuki hartzekoa. Zortziko lerroan ere errespetatu behar balitz, hiru silabatik gorako hitzik ezin izango genuke sekula ointzat hartu.

Orain ea nor animatzen den. Har zerrenda hori goitik behera eta zeinek denboran gehiago egin.

- 4) Oin zerrendarik eman gabe errimatzeke gai denik bada, eman aukera. Baina errimatu beharrak neurrirako oztopo gehiegi jartzen badio, moztu. Hemer neurria lantzen ari gara. Errimarena geroago etorriko da.

## XVIII

### BETE LANA

#### PRIMADERARI (Xalbador)

1)

Apirilean goiz eder batez  
goizik bainintzan atzarri  
eta ohea uzteko nagiz  
nindagola pentsalari.  
Etxe aintzineko sagar arbolan  
xori bat zagon kantari:  
gau hartan zer bait gertatu zela  
beha nezon kanpoari  
negu zitalak lekua utzi  
ziola primaderari.

2)

Ene barnean senditu nuen  
gazteko sugar piztura  
bihotza berriz airatu zautan  
kanpoko xori xixtura.  
Lur gain guziak galdua zuen  
negu beltzeko histura  
niganik ere aldaratu zen  
zahartzearen tristura  
etsipena zen leku guzitan  
argi berri bat piztu da.

3)

Sasu zokotan gordez egonik  
neguko hotz gogorretan  
egun xoriak kanta ta kanta  
ari dira arboletan.  
Andere espos batzu iduri  
pentze guziak loretan  
aitor dezagun ageri dela  
Jainkoa bere obretan  
horiek oro harek eginak  
gizonaren ohoretan.

4)

Belar berriak berdatu ditu  
zelaiak ta mendi gaina  
kukuak bere kantu ozenez  
atzar arazi oihana.  
Etxeko andreak lili pollitez  
apaindu dauku mahaina  
bihotzeraino sartzen zaukula  
lore berrien usaina  
fededun batek nola ez mirets  
hor Jainkoaren dohaina?

5)

Xori pareak ikusten ziren  
bel'izpi bana mokoan  
erasiaka han zabiltzala  
sar ateraka sasuan.  
Jainkoak berak erakatsirik  
dakiten soinu gozoan  
ohantze berri baten egiten  
elgarren amodioan  
maitasun hortan sortu beharrak  
diren umeak gogoan.

6)

Horra xoriek kafi berriak  
beren umentzat prestatu  
eihar zorian zen landarea  
izerdi berriz freskatu.  
Larrazkenean buluzi ziren  
zugaitzak berriz ostatu  
erradazue aldaketa hau  
nori etzaion gustatu  
ukan duguna baino geiago  
zer ginezake eskatu?

7)  
 Xoraturikan kanporari so  
 iragan ditut orenak  
 bixtan nituen bizi huntako  
 dohainikan ederrenak.  
 Niolarikan: norentzat bada  
 gauza eder hauek denak?  
 Nola ahantzi itsuak eta  
 presondegian daudenak?  
 Primaderaren edertasunik  
 ikusiko ez dutenak!

8)  
 Primaderaren iduria da  
 gizonen gaztetasuna  
 apirilean entzuten diren  
 xori kanten oihartzuna.  
 Indar guzia berekin dauka  
 gainerat edertasuna  
 gazte maitea, estima zazu  
 zutan duzun ontasuna  
 zein ederra den ikasi gabe  
 iragan behar zaizuna.

bertso batean hitz asko dira. Esaldiak ere mordoa. Sarritan ideia bakarra izaten  
 bertso horretan kantatzeko. Ideia bakarra hitz gutxitan buka liteke. Gehienik  
 esaldi pare bat, bata bestearen mendeko direlarik. Zerez bete gainerako bertso  
 ia?

idea bat, soilena bada ere, desarroila liteke, zerbait haren inguruan gehituz.  
 tima honek gehiengan ez du bertsoarako balio. Ideia bat desarroilatzeak funts  
 asiak aurretik botatzen direla esan nahi du. Gero desarroilapenean garrantzia  
 xiagoko aipamenak etorriko dira. Bertsoan, ordea, garrantziarik gehienekoa  
 enerako utzi behar. Pisu nagusia azkenari zamatu behar zaio, bestela bertsoak  
 o galtzen baitu. Beraz, azkena aseguratu behar da gehiengan. Nola? Zuzenean  
 tena pentsaturik. Iharduera honen arrazoi teknikoak eta sikologikoak  
 TZAREN KIROL NAZIONALAn agertzen dira, 50. orrialdetik aurrera.

azkena aurren pentsatzen baldin bada, aurrea hiru erataria bete liteke,  
 kapen bat nolabait egiteagatik.

- 1) Bertsoa hasieratik mamitsu eraman
- 2) Bertsoa azkenerantz eraman
- 3) Betegarriak soilki sartu

phenengoa ez da batere erreza, bertsolari eginengan ere, bat batean ari direnean  
 intzat. Bertso jarrietan beste gauzarik da.

igarrena litekeena eta behar dena da, bat batean batez ere. Hirugarrena  
 arrenaren antzekoa, baina betegarriak nabarmenago sarturik. Azkena zartada  
 egabea da, aurrekoarekin zerikusi gehiegi gabe, logika zorrotzez behintzat.

aina kontuz. Lotura logikorik ezak ez du loturarik eza esan nahi. Bertsolaritzak  
 e logika berezia dauka, inguruak emana batez ere. Alde batetik bat batekoa da  
 bestetik taldezkoa. Bi edo gehiago kantari eta jendaurrea beti.



Nola bertsoa azkenerantz eraman? Edo nola besterik gabe betegarriz osu Horixe da lortu beharreko trebetasun nagusietariko bat.

Honetan esan beharra dago bete lana ez dela balio gutxiko lana. Gauza b bete lana beti berdintsua eta arrunta izatea. Bete gauza berak edo berat errepikatzea. Hori bete lan urria eta itxusia da.

Bete lan anizkoitza eta berria, ordea, artea da. Ondo egiten jakinez gero, bikaina eta dotorea. Hortxe dago trebetasuna. Bertso polit askoren balioa bete horrentantxe dago. Ez da, beraz, lan alferrekoa, funtsezkoa baizik. Bat bat bertso gintzan bertso guztiak hasieratik ideiaz kargatzea, egiterik balitz astunegia litzateke entzuleentzat. Burua etengabe mailukatzea bezala. Bertso guztiaren zaulitasuna eta dotorezia bete lanaren gorabeheran dago asko.

Bete lana artea dela esan dugu. Ba al da, arteraino ez bada ere, minimo gutxienez heltzerik? Ba al da ideia soil batez bertso osoa betetzerik, eta poliki ere? Horretara goaz.

## 1) AZKENA PENTSATU

Hona hemendik aurrera estuki bete beharreko araua. Bertsoaren azken letra aseguratuta behar da eta gero aurrea bete, nahiz eta kantatzen aurretik hasi, jakin Estu eta indartsu. Azkenak zehatza eta indartsua izan behar du. Indartsu hasi motel amaitzea desengainua da. Dela koplak, dela bertsoak, arau hau bueltaga izan bedi aurrerantzean. Beste gauza bat da norbere buruarekin segurtasun sentitzen duena aldasbeheran oldartzea, non amaituko duen pentsatu ga Hauek beste maila batzuk dira, ez ikasten ari direnentzat.

## 2) AZKENAREN ARIKETAK

Hona hemen zenbait koplaren amaiera posible batzuk.

Kopla txikian:

**Buru geiago daukak  
talentua baino**

**Ez al dizute esan  
tentela zarela?**

Koplan haundian:

**Amets ederren okerrena da  
amets hutsa izatea**

**Nik ez dut ezer ostutzen baina  
bai dagoena eraman**

puntuok koplaren azkena dira. Horixe da kopla horretan esan behar  
na. Edo esan nahi duguna. Baina hori esateko, zerbaitez bete behar aurrea.  
gin? Aurreko puntuan pasoko gauza bat esan. Edo bigarren hori esateko  
prestatu.

enbizi oinak behar ditugu. Hona adibidez:

**Oraino - Txapela - Atea - Eman**

in oin bakoitz horrekin zerbait esan bigarren zartada prestatzeko. Hona oin  
kin aurreko kopla erdiak osaturik.

pla txikian:

**Holakorik ez huen  
entzungo oraino  
buru geiago daukak  
talentua baino.**

**Buruaren gainean  
omen da txapela  
Ez al dizute esan  
tentela zarela?**

pla haundian:

**Izan dadila leihoa edo  
izan dadila atea  
amets ederren okerrena da  
amets hutsa izatea.**

**Nire berririk ez badakizu  
orain behar dizut eman  
nik ez dut ezer ostutzen baina  
bai dagoena eraman.**

anta ditzagun kopla hauek denon artean. Kantatu ondoren, solas batzuk egingo  
gu, ea zer iruditu zaizuen eta abar.

## XIX

### BETE LANA LANTZEN

#### AITA SEMEAK (P. M. Otaño)

- 1) Lagundurikan danoi  
gugatik hil zanak  
seme, hazi zaitugu  
aitak eta amak.  
Beti zure gidari  
izandu geranak  
orain gurutze honen  
oinetan esanak  
ondo goguan hartu  
biaituzu danak.
- 2) Zu Ameriketara  
joatia hemendik  
jaunak hala nai badu  
zer egingo det nik!  
Han ez dezu izango  
aitik eta amik  
baina etzera galduko  
noranaira joanik  
ez bazaizu aztutzen  
gaur hemen esanik.
- 3) Gorde zazu buruan  
eta bihotzean  
aitak zer esan zizun  
honuntz laguntzean.  
Bitartek harturik  
Jesus gurutzean  
Bitarteko harturik  
batek aztutzean  
ez leike ondo izan  
denbora luzean.
- 4) Ez nizuke utziko  
joaten egietan  
gure erlijua  
ez balitz han bertan.  
Iritxiko bazina  
hain urrutietan  
herri ta eleizarik  
ez dan tokietan  
oroï zaitetz Jainkoaz  
leku guzietan.
- 5) Seme, izan goguan  
zere gurasuak  
eta uzten dituzun  
senide gozuak.  
Jaio zinan tokiko  
mendi ta basuak  
euskerazko otoitzak  
eta errezuak  
erakutsiak zure  
amatxo gaxuak.
- 6) Iritxi da ordua  
joan behar dezuna  
badakizu aitamak  
hemen daukazuna.  
Ez dezazula aztu  
gaur neri entzuna  
hitz baterako hau da  
eskatzen zaizuna  
izan zaitetz nonai ta  
beti euskalduna.

## UME EDER BAT (Iparragirre)

- 1) Ume eder bat ikusi nuen  
Donostiako kalean  
hitz erditxo bat hari esan gabe  
nola pasatu parean!  
Gorputza zuen liraina eta  
oinak zebiltzan airean  
politagorik ez det ikusi  
nere begien aurrean.
- 2) Aingeru zuri paregabea  
Euskal Herriko alaba  
usterik gabe zugana beti  
nere bihotzak narama.  
Ikusi naian beti hor nabil  
nere maitea, hau lana!  
Zoraturikan hemen naukazu  
beti pentsatzen zugana.
- 3) Galai gazteak galdetzen dute  
aingeru hori nun dago?  
Nere maitea nola deitzen dan  
ez du inortxok jakingo.  
Ez berak ere ez luke naiko  
konfiantza hortan nago  
amorioidun bihotz hoberik  
Euskal Herrian ez dago.

Pasoko gauza horiek esatea nahiko zail iruditzen da lehenengoan. Aurreko ataleko kopletan norbaitek pentsa lezake hartarako pentsatuak bezala zeudela. Baina lehen puntuetan, hor jarri zirenak bezala, beste hainbat eta hainbat jar zitekeen, segun zein oin burura datorren.

Ikusi behar dena da ea edozein oinez ba den zerbait pasokorik esaterik. Egin dezagun oin zerrenda bat. Adibidez:

ARDOA

Noa

Doa

Daroa

Ahoa

Haroa

Azaroa

Igaroa

Eroa  
Geroa  
Beroa  
Panderoa  
Hegoa  
Bulegoa

Har dezagun lehen hitz ARDOArekin puntu posibleetariko bat:

Ura ona da baina  
hobea ardoa.

Goazen orain azken horri aurrea beteez, bakoitzean oin desberdin bat harturik:

Arrazoi bat oraintxe  
esatera noa  
Ura ona da baina  
hobea ardoa.

Hamaikagarren hila  
denez azaroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Gezurra bada ere  
egitzat hor doa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Batetikan bestera  
nauzu igarora  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Batak eta besteak  
bera daroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Ez pentsa horregatik  
naizenik eroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Ondo aprobatua da  
nire ahoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Orain oraina eta  
geroan geroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Sabela delarikan  
bien abarora  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Bata da hotza eta  
bestea beroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Kanpoan naiz barruan  
hau duk hau haroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Horrek jartzen du martxan  
nire panderoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.



Norbait dagoenean  
mozturik hegoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Hau bai dela edale  
finen bulegoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Zer deritzazue bete lan hauei? Batzuk agian lotura gabeak dirudite. Bai? Kanta ditzagun eta ikus ea nola ematen duten belarrira.

*Har «Xarmagarria» doinua eta koplak erdia kantatu batek, bigarren puntua beti bera delarik eta denen artean kantatuz.*

Orain zer deritzazue? Balio al dute? Hain zaila al da edozein oinez zerbait betegarririk asmatzea? Egin dezagun aproba bera koplak haundian:

LANA  
Dana  
Emana  
Plana  
Imana  
Daukana  
Labana  
Zuregana  
Afana  
Porlana  
Jana  
Edana  
Dudana  
Bakana

Demagun koplaren azkena hauxe dela:

Lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Bete dezagun orain lehen puntua beste oinekin:

Zoritxarrean hori da mundu  
honetan gertatzen dana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Ez dakit egin litekena den  
baina horra nire plana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Gauden moduan gaudela bada  
kolpea nori emana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Diruarentzat batzuk daukate  
nik ez daukadan imana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Pobrearentzat gure mundua  
hain zaila eta labana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Ez badakizu esplikatzera  
etorri naiz zuregana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Ez da naikoa hau zuzentzeko  
gogoa eta afana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Batzuk buruan behar lukete  
karea edo porlana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Krisisak ia ito gaitu ta  
laster faltako da jana  
lapur guztiak kentzen  
gizaldi guztiko lana.

Egi bat esan behar dizuet  
ez nago, jaunak, edana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Nai duzuen a pentsatu baina  
hau da nik uste dudana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Jendaila hori ez uste denik  
hain animala bakana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Kanta ditzagun koplak hauek lehengo koplak txikiak bezala eta ea zer iruditzen zaizuen.

*Une honetan ikasleekin elkarrizketa zehatza behar da. Irakasleak auzia ondo zentratu behar du. Horretarako lehenbizi berak jabetu behar du ondo. Ez da agian erreza gai hau ondo zentratzea. Ez da izan ere auzi zehatza edo matematika, eremu lanbro samarra baizik. Hona kontutan eduki beharrekoak:*

1) *Pasoko gauza esaten dugunean, oso gauza zabala eta generikoa da. Zer-bait apropos eta hartarakotzat esaten ez denean, betegarria dela esan genezake. Honetan norbere ustea eta entzuleena bat ez izatea baliteke. Norberak gauza haundizat bota eta entzuleei betegarri hutsa irudit.*

2) *Aurreko punturaren eta azkenaren lotura ere oso erlatiboa da. Lotura logikoa eta hurbila lotura mota bat besterik ez da. Loturak ere egiten diren modukoak dira. Baliteke puntu batek beste batekin loturarik ez duela iruditzea. Baina kontutan izan bertso guztia ez dela azalpena, artea baizik. Neurria, errima, erritmoa, hitzen hotsa, kontestu hurbila, jendaurrea eta osagai asko dauka bertsoak. Are gehiago, irakurririk aldrebes samar ematen dutenek, kantatzean, beste itxura bat har dezakete. Arau hau auspoa bezala da, beraz. Baina auspoa izatetik lapikoa izatera badago alde. Loturaren kontzepturik zabalenean ere, nahi baino sarriagotan aldrebeskeriak gertatzen dira. Ideiaz oso urrun edo zerikusirik ere ez eta beste hurbilgarri literariorik ere ez. Akordeoia jotzen hasi eta lapiko zaharra. Non dago muga? Ez dago muga zehatzik.*

3) *Hemen minimoari begira gaude. Ideia batekin bertso bat moldatzeko modua bilatzen ari gara. Minimoak ez du gutxi esan nahi. Minimo hori poliki samar eginez gero, gauza haundia da. Horrek ez du esan nahi bete lana baino hoberik ez dagoenik. Bertsoa goitik beheraino kargatzen duenak beti egingo du lan hobe, kargaera astunegia ez bada. Baina bertsolaririk onenek ere, bat batean behintzat, etengabe baliatu beharko dute bete lanaz.*

4) *Zerbait praktikora jorik, hemen egin bezalako ariketa ugari egin behar da. Egin eta eztabaidatu, ikasleengan sen zabal hori lurra hartuz joan dadin. Horretarako, teoriak, puntu bat eman eta haren oinaren oinkide guztiekin egin liteke aurreko bete lana, ideia harekin loturik. Oinkide «guztiekin» esan dugu. Horrek ez du denekin berdin esan nahi. Hor dago gorabehera nagusia. Oin horiek bost maila gramatikaletan berezten dira: Aditza, adberbioa, izenordea, adjetiboa eta izena.*

*Errima bereko oin guztiekin zerbait egin liteke. Baina oin batzurekin zerbait ez ezik, ideia desberdin asko esan liteke. Era askotara molda liteke. Zenbat eta era eta kasu gehiagotarako egokitzekoak izan, hainbat eta baliotsuagoak izango dira. Oina zenbat eta konketuagoa izan, hainbat eta zailagoa izango da kasu desberdinetara egokitzen. Honetan, maila gramatikal bezala, izenak dira arriskutsuenak.*

*Aditza esaldien bizkarhezurra da eta egokiera haundia dauka. Adberbioak aditzaren lagunak dira eta beraz garrantzitsuak. Gainera ez dute deklinatu beharrik eta hori abantaila haundia da. Izenordeak ez dira asko, baina direnak oso baliotsuak dira. Adjetiboak ere aberatsak dira, baina eragozpen bat daukate, deklinatu beharra, alegia.*

*Teoria hau zehazki azaldurik dago HITZAREN KIROL NAZIONALAn OINEN SAILKAPENA izeneko atalean, 163. orrialdetik aurrera eta zuzenki BALORAPENA izenekoan, 168.etik aurrera.*

## BETEGARRIEZ TREBATZEN

## ARBOLA BAT (Arrese Beitia)

- 1) Arbola bat zan Paradisoan  
Jaunak apropos jarria  
mundu guztiak hartu egion  
lotsa ta itzal handia.  
Bere azpian bizitea zan  
Aita Adanen gloria  
handik kanpora zer topau eban  
ez bada negargarria!
- 2) Arbola santu haren azpian  
bizi zan zeruan legez  
eukazalako atsegin danak  
eta nekerik haperez.  
Ai begiratu baleutsa beti  
lotsa on eta itzalez  
mundua etzan gaur aurkituko  
honenbeste atsekabez.
- 3) Arbola bat zan Bizkaian bere  
neure anaia laztanak  
zeinen azpian pozez beterik  
egoten ziren asabak.  
Kerizpe zabal hartan jarririk  
eginda heuren batzarrak  
buztarri baga nasai ta libre  
bizi ziran bizkaitarrak.
- 4) Bere azpian umildu ziran  
errege Gaztelakoak  
eta lekurik ez eben izan  
sekula barriz moroak.  
Atzera gura badogu izan  
libre len ginan lakoak  
itxi daiguzan erdaldunentzat  
erdaldun diran kontuak.
- 5) Aztu daiguzan gure artean  
izan diran hasarreak  
izan gaitean anaiak eta  
euskaldun zintzo garbiak.  
Betor guraso zarren fedea  
betoz asaben legeak  
bere negarrak lehortu daizan  
ni jaio nintzan herriak.
- 6) O neure herri maite maitea!  
Zakustaz triste negarrez  
zure alabak heuren buruak  
baltzez estaldu dituez.  
Trentza mardoak tiraka atara  
ta sutara bota dabez  
gaur euskaldunak diranik horrek  
ezin ezagutu leikez.
- 7) Isildu ziran neskatxen kantak  
mututu artzain txistuak  
zelai zabal ta jolas lekuak  
gaur dira basamortuak.  
Arroak bera itxasoruntza  
doiazan errekatxoak  
gau eta egun txilioz dagoz  
ai gara Gaztelakoak!
- 8) Bakarrik dakust pozgarritxo bat  
euskaldun amen fedea  
benturaz honek bigundu leike  
Jaungoikozko hasarreak.  
Eta zerutik jatxi barriro  
galdu zan libertadea  
mundua mundu bizi dakigun  
Gernikako Arbolea.



Teoriaz gainera, ariketaz batez ere frogatu behar da sen hori. Oin zerrendak jarri eta ari, kantatu eta elkarren artean eztabaidatu. Oin zerrenda guztietan agertuko dira hitz baliotsuagoak eta beste batzuk egokigaitz gertatzen direnak. Goazen ariketara. Egin dezagun denon artean zerrenda bat. Adibidez:

### BALITZA

hitza  
bitsa  
giltza  
bortitza  
murrirtza  
bizitza  
bertsolaritza  
haritza  
lapitza  
gabilitza  
sasitza  
irritsa  
mintza  
eskutitza  
ihintza

eta abar.

Hona azken puntu posible bat, koplak txikian:

Hobe mundu hau dena  
zirkua balitza.

Orain beste oinekin bakoitzak azken horri aurrea bete.

*Bakoitzak denak edo batzuk egindakoan kantatu eta elkarriketa.*

Orain ariketa bera koplak haundian. Oin zerrenda denon artean. Adibidez:

### ATERA

batera  
gera  
bera  
norbera  
behera  
sobera  
alegera  
bupera  
aukera  
tobera



ohera  
joera  
galera  
aurrera

eta abar.

Hona azken posible bat:

**Suge zulotik ezin liteke  
usakumerik atera.**

Orain bakoitzak beste oinekin azken honi aurrea bete.

*Kantatu eta elkarrizketa. Irakasleak ikusi behar du zenbat honelako ariketa egin behar den. Ez da, jakina, dena era batera egitekoa. Ariketa hau eta besteak ere sarritan egitekoak dira, ekinaldi batean denak asper erazi gabe.*

## **BAT BATEAN**

Ariketa hau bat batean ere egin liteke. Oin zerranda bat jarri. Adibidez:

Dela  
batela  
sabela  
arbela  
motela

eta abar.

Nik azkena kantatuko dut eta zuetariko batek hurrengo oinarekin aurrea bete.

Irakasleak:

**Uste dut eskola hau  
parranda bat dela.**

Ikasleak:

**Balantzaka ari da  
gaur gure batela.**

Eta abar.

*Kopla hau atzekoz aurrera kantaturik baitago, bigarrenaz kantatzea komeni da, ikasleak berea errepikatuz eta irakasleak ondoren. Horrela bide batez oroi-mena ere poliki lantzen da.*

Kopla haundian berdin. Oin zerrenda lehenbizi. Adibidez:

Atxakia  
ebakia  
irratia  
zattia  
erabakia  
salatia  
zapia  
gizakia

eta abar.

Irakasleak:

Jolaserako beti prest eta  
lanerako atxakia.

Ikasleak:

Nire lagunak bere bizitza  
hala dauka ebakia.

Eta abar.

*Hemen ere bigarrenez kantatu, ikasleak berea errepikatuz eta irakasleak ondoren.*

*Saio mota hau bi ikasleren artean ere berdin egin liteke. Azkena botatzen duenak zerbait gehiago esan beharra dauka, jakina, besteak ez baitu bete baizik egin behar. Hauek ere bi aldiz kantatu, baina ordena aldatuz.*

## SAIO OROKOR BAT

## NAPARROARI (Xalbador)

- 1) Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde diot: Aurrean Baztan daukazu giblean Erro alde. Ezkerretarat Eugi herria eskuin alderat Luzaide zure guziak Naparroaren hegalean azpian daude.
- 2) Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik napartarraren odol kartsua zainetan senditzen dut nik. Eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarrirat iganik norbaitek «Atzar hadi!» diola entzuten dut urrundarik.
- 3) Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra titulu horrek lehen hitzean galtzen du bere indarra. Ni beheretar zendako deitu nerez bainaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat. Naparro bat da bakarra.
- 4) Bere zainetan sendi duena hastapeneko odola eman dioten izen mendreaz nekez ditaik kotsola. Ezin onartuz bizi naiz beti murrizturikan dagola bere itzala Baionaraino hedatzen duen arbola.
- 5) Baina enetzat, o Naparroa ez da ezin igarria izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria. Enbor sendoan sartu baitzuten haizkora beldurgarria zure laurki bat bertzerik ez da ni bizi naizen herria.
- 6) Bi aldetarik nagusi bana jarriz geroz Naparroan ez dakit zure etorkizuna zoin ateri buruz doan. Ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan bat gineneko egun ederrak ditut bakarrik goioan.
- 7) Betitikako arrain haundien lege okaztagarriak gaitu napartar anai-arrebak bi taldetan ezarriak. Bainan ele huts dira tratuak itxura huts zedarriak hitzez ta harriz ezin hautsiak dira gure lokarriak.
- 8) O Naparroa, banatorkizu otoika fagore galdez urrikal zaitetz ukatu nahi zaituzten seme alabez. Bertze koroka batek estaltzen bagaitu bere hegalez Baxenabarrek ama zu zaitu guk nahi izan ala ez.

Eginak eginik eta esanak esanik, egin dezagun orain saio bat koplak txikian eta haundian, gaia jarrita. Jendaurrean bageunde bezala, benetako saio bat, orain arte esaniko guztia era batera bildurik.

Badakizue lehenbizi beti azkena pentsatu behar duzuela. Pentsatu bakarrik ez, neurtu ere bai. Lehenbizi azken puntua osatu eta gero aurrekoa bete.

## KOPLA TXIKIAN

Gaia hauxe izan liteke: Egunsentian mozkor bat topatzen duzu etxeke atean. Hasi. Adibidez:

Azkena: Egun on, entzuteko  
moduan bazaude.

Aurrea: Mozkorren bat zara zu  
dudarikan gabe

Orain behar bezala kantatu:

Mozkorren bat zara zu  
dudarikan gabe  
egun on, entzuteko  
moduan bazaude.

Eta abar.

Dozena erdiren bat kantatzeko moduan daudenean, hasi kantuan.

## KOPLA HAUNDIAN

Gaia: Egunkaria zabaldu eta zeure eskela ikusten duzu. Hasi lanean. Dozena erdiren bat kantatzeko moduan zaudetenean, kantuan hasiko gara.

Adibidea:

Azkena: Hau hola bada esan nahi du  
hil eta piztu naizela

Aurrea: Egunkaria zabaldu eta  
hona neronen eskela.

Kantaturik: Egunkaria zabaldu eta  
hona neronen eskela  
hau hola bada esan nahi du  
hil eta piztu naizela.

Eta abar.

## GAI DESBERDINEI KOPLA TXIKI BANA

Orain gai bakoitzari koplak bana emango diogu. Beti azkena lehenbizi pentsatu. Asma dezagun gai sorta bat. Adibidez:

- Txori bat erori da
- Zuhaitz haundi bati
- Lanetik bidali zaituzte
- Ilargia bete beterik dago

Eta abar.

Dozena erdiren batek gai bakoitzari koplak bana egindakoa, kantatzen hasiko gara.

## GAI DESBERDINEI KOPLA HAUNDI BANA

Orain lehengo gauza bera, baina koplak haundian. Esan gai batzuk. Adibidez:

- Asto batek keinu egin dizu
- Ilargitik bueltan zatoz
- Tximista bat zure ondoan erori da
- Zer amets egin duzu bart?

Eta abar.

*Gai bakoitzari koplak bana egitea gehiegi luzatzen den ala ez, irakasleak ikusi behar du. Eta segun zenbat gai sortzen den ere. Hemen lau jarri ditugun bezala, dozena bat ere ager litezke berehala. Orduan zenbat koplak egin aurretik erabaki eta, bariatzeko, batzuk goitik behera, beste batzuk behetik gora, beste batzuk erditik eta horrela egin liteke.*



LAU  
ZORTZIKO TXIKIA

## ABIATZEN

## BERE AITAREN HILTZAILEA

- 1) Jose de Tejeria  
hau nere grazia  
Gipuzkoako Aian  
jaio ta hazia.  
Aita tiroz hil nuen  
horra desgrazia  
esplikatzera nua  
asunto guzia.
- 2) Deabruak animua  
eman bihotzera  
tiroz atrebitu naiz  
nere aita hiltzera.  
Donostira joan gero  
zerbait ekartzera  
egindako okerra  
disimulatzer.
- 3) Gizonak altxa zuten  
aita bizirikan  
ai!, semiak galdu nau  
berak esanikan.  
Gurasoak etzuen  
esan gezurrikan  
gorputza hilda anima  
joan zan mundutikan.
- 4) Paperian jarria  
alde aurretikan  
aitari zenbat eman  
seinalaturikan.  
Eske ari zan beti  
aldamenetikan  
gure enredo danak  
diruagatikan.
- 5) Aitak eskatzen zidan  
legez eta bidez  
egiten niona da  
agindu ta eman ez.  
Buru dana betia  
pentsamentu txarrez  
tirua eman nion  
diruaren ordez.
- 6) Soldadu armadunak  
lotu kurioso  
baita eraman ere  
Azpeitira preso.  
Deklarazio txarra  
egina nik oso  
libratutzeko bihar  
gezurra preziso.
- 7) Aurrena egon nintzan  
uko fuertian  
salatzailea franko  
bazan bitartian.  
Gero aitortu nuan  
egunen batian  
gezur guztiak ziran  
neretzat kaltian.
- 8) Azpeitiko herritikan  
Donosti aldera  
Gipuzkoako buru  
dan tribunalera.  
Akusatua nintzan  
Judasen legera  
gezurrak balio ez  
neretzat galera.

- 9) Gaizki egin nuela  
ondo damutzen zat  
hau eskarmenturako  
beste guztientzat.  
Munduan ez da izan  
oraindikan beintzat  
ume bat txarragorik  
gurasuarentzat.
- 10) Donostian nuan nik  
hartu albistia  
etzan posible neri  
bizirik uztia.  
Hura nere orduko  
lastima tristia  
etzan alegratuko  
nere emazia.
- 11) Donostiko herritikan  
Azpeitira ekarri  
bost guardi armatukin  
kotxian etorri.  
Kartzelan sartu eta  
han nengoen larri  
sententzia tristia  
zuten irakurri.
- 12) Zuzen ta garbi egin  
dute justizia  
badakit nuela nik  
ondo merezia.  
Ilbeltzan hamaseian  
nere sententzia  
goizeko zortziretan  
kentzeko bizia.
- 13) Gaiztua izan banaiz  
horra sujetatu  
sententzi horrek ziran  
bihotza urratu.  
Aita Aizpururekin  
ondo konfesatu  
egindako okerrak  
danak akusatu.
- 14) Pauso bat ezin eman  
nuan ezergatik  
bi lagun banituen  
beso banetatik.  
Urkamendira juan  
ginan kartzelatik  
borrerua begira  
zegoen atzetik.
- 15) Urkamendian nitzan  
eserita jarri  
nere barrena zegon  
estu eta larri.  
Bizia eman bihar  
oso lotsagarri  
beste guztientzako  
eskarmentagarri.
- 16) Barkaziua nuan  
azkena eskatu  
zergatik egin nuen  
lenago pekatu.  
Horregatik behar det  
orain nik urkatu  
Jaungoikuari arren  
nitzaz erregutu.

Orain azken aldian sartzera goaz. Bertso osoa egitera goaz. Ez uste hala ere zortziko txiki bat egitea bi kopla egitea bezala denik. Hitzez edo luzetasunez doblea da. Baina kopla bat egiten dakienak bertso osoaren erdia baino askoz gehiago egina du. Hutsetik kopla txikira askoz ere jauzi haundiagoa dago, kopla txikitik zortziko txikira baino. Berdin kopla haundian ere.

Zortziko txikia osatzeko, batez ere betegarri gehiago behar da. Oroimena ere bai, bat batean denean. Beste elementuak kopla txikian landurik daude. Kopla txiki bat egitea zortziko txiki baten ehunetik hirurogeita hamar edo gehiago egitea dela esanik, ez dugu gezur haundirik bota. Goazen arlora.

Lau oinak emanda. Adibidez:

**Beti  
ireki  
hobeki  
baneki**

Orain lau hitz hauekin nobelatxo bat asma dezagun. Oin bakoitzez esaldi bat. Adibidez:

- Lana egin behar da beti
- Ezin etorkizunik ireki
- Bizi ninteke hobeki
- Nahiago nuke nola baneki

Orain neurtu:

**Lana egin beharra  
asko eta beti  
etorkizunik ezin  
halare ireki.  
Bizi ninteke noski  
gaur baino hobeki  
naiago nuke hori  
nola den baneki**

Lau oinok ez dago emaniko ordena berean eraman beharrik. Nobelatxo hori norberak nahi bezala edo ahal bezala molda lezake, oinen ordena horren arabera harturik. Adibidez:

- Atea nezaizuke ireki
- Nolakoa zaren ez baneki
- Hileta jotzen ari zara beti
- Bizi zara ni baino hobeki

Orain neurtu:

Atea nezaizuke  
agian ireki  
nolako jeneroa  
zaren ez baneki.  
Hileta jotzen ari  
zara hortxe beti  
halare bizi zara  
ni baino hobeki.

*Elkarrizketa. Zer zailena? Kontakizuna asmatzea? Lotura? Bete lana? Eta abar.*

*Ikasleek diotena bildu eta eztabaidatu ondoren, irtenbidea honela zentratu behar da.*

*Lehenbizi, beti bezala, azkena ondo erabaki. Bertsoa nora eramango dugun pentsatu. Azken aurreko puntuan, hirugarrenean, kapotea bota, zezenari pase bat ematean bezala. Azkenari bidea eman. Beraz, lotura zuzen samarra behar du, loturari buruz esaniko erlatibotasun guztiak kontutan direla. Zerbait hurbil samarra, azkena bala galdua gerta ez dadin.*

*Lehen bi puntuak guztiz betegarriak izan litezke. Eta horra bertso osoa egi-na. Hona nola beste adibide zehatzago batez:*

Oinak:           Urrea  
                      Errea  
                      Haserrea  
                      Barrea

Oin hauetariko batekin azkena erabaki behar dugu. Hitzen ordena alda litekeela esan beharrik ez dago. Zein moldatuko dugu azkena? Segun zer esan nahi dugun edo zer datorkigun lehenen gogora. Demagun adibidez norbait ipurterrea dela esan nahi dugula.

Azkena:           Nola liteke hain ipurterrea?

Orain hirugarren puntua. Adibidez, honekin loturik, har dezagun, **BARREA**. Gauza asko esan liteke, lotura hurbil samarra duenik:

- Galdu du barrea
- Sortzen zait barrea
- Garrazturik du barrea

Eta abar.



Idea horiek ipurterrearekin bat datozenak dira denak. Har dezagun adibidez, azkenengoa:

### **Garraturik du barrea**

Orain lehen bi puntuetarako bi oin geratzen zaizkigu. Horiexekin atondu beharra dago. **URREA, HASERREA**. Behin azkena erabakirik edukiz gero, oin hauekin ere nolabaiteko lotura ez da hain nekez etorriko, oso hitz aldrebesak ez badira. Burua ez da hain anarkoa. Zerbait pentsatu badu, haren hurreko pentsamendua urrungoa baino errezago bururatuko da. Ura aldapan behera eramatea gorantz eramatea baino errezagoa den bezala.

Ustez lotura haundirik lortzen ez bada ere, lasai. Egin bete lana. Oso aurka eta urrun ez badoa, bertsoa azkenean bere lekura helduko da, leku hori erabakirik baita azken bi puntuetan. Nola oso kontra eta urrun ibiltzeko arriskua ebitatu? Gauza orokorrak edo konkrezio gutxikoak esanez. Adibidez:

**Mundua dena ez da urrea  
Horrek ematen dit haserrea  
Garraturik du barrea  
Nola liteke hain ipurterrea?**

Orain neurtu:

**Mundu honetan ez da  
guztia urrea  
horrexek ematen dit  
niri haserrea.  
Ai zer garratza daukan  
lagunak barrea!  
Nola izan liteke  
hain ipurterrea?**

*Egin honelako ariketak, konfidantza pixka bat hartu arte. Asper erazi gabe, ordea, hurrengo kapituluan ere gauza berdintsuari ekingo baitiogu.*

## XXIII

# ENTZULEAK ETA BERTSOLARI LAGUNAK

### MUTIL ZAHAR BATI (Pello Zabaleta)

- 1) Bertso berri batzuek  
behar ditut jarri  
mutilzar batentzako  
zerbait tentagarri.  
Ezkontzeko asmuak  
omen ditu sarri  
andregaiaren bila  
dabil herriz herri.
- 2) Inor baldin badago  
ezkontzeko zale  
mutilzar hori nor dan  
egin zazu galde.  
Etzera geldituko  
senargairik gabe  
eta egingo zera  
puska onen jabe.
- 3) Nobio jaun hori da  
kosta aldekoa  
Debatikan honera  
etorritakua.  
Langile ona eta  
ezkongai bapua  
edozeinentzako ere  
bazera naikua.
- 4) Hogeita hamasei urte  
oraindik gaztia  
gorputz ederrekua  
txit balientia.  
Suertatzen bazaio  
gustoko andria  
jaiero pasiatzen  
ibiliko dia.
- 5) Jaiero pasiatu  
eguraldi onian  
zinera juango dira  
denbora txarrian.  
Handik biak etxera  
ilunabarrian  
ondo biziko dira  
alkartasunian.
- 6) Neskaxa bat gustatzen  
zaizu Errenterin  
benturaz berak ere  
naiko du zurekin.  
Azkar hobe diozu  
mandatua egin  
engainatu baino len  
besteren batekin.
- 7) Lenbizi pentsatzen du  
puskak egitia  
oia muelle onakin  
ta mesanotxia.  
Maia marmolezkua  
oso dotoria  
beste armario bat  
espiluz betia.
- 8) Ez bazaio gertatzen  
andrerik hartzia  
puskak pentsatuzten du  
irrifan jartzia.  
Orduan hobe dezu  
etsia hartzia  
eta mutilzarraren  
bandera agertzia.

Lehen bi puntuetan gauza orokorrak edo konkrezio gutxikoak esan dugu. Hori bertsoaren azkenari buruz. Baina baliteke oso zer konketuak sartzea ere, azkenik konpromizoa sartu gabe. Bertsolaritzan ingurua beste ezertan baino funtsezkoagoa da. Lehenago ere inguru hori sarritan aipatu dugu. Inguru nagusia jendaurrea da, bai eta bertsolari laguna edo kontrarioa ere, bakarrik kantatzea salbuespena baita.

Inguru horretan, beraz, jendeari edo bertsolari lagunari hainbat gauza esan lekiok, oso konketua izanik ere, bertsoaren azkenari oztoporik jarriko ez diona.

Norbere buruari edo norbere buruaz ere hainbat gauza esan liteke, jendaurrean edo bertsolari lagunaren ondoan izan ezik, zentzurik ez lukeena.

Hona lau oin:

Osoa  
Gozoa  
Besoa  
Usoa

Demagun lagunari ziplada bat sartu nahi diogula. Adibidez:

**Lagun hau ez da burutik osoa**

Hirugarren puntua:

**Ez da esateko gauza gozoa**

Orain lehen bi puntuak, geratzen diren oinekin:

— Ni ez naiz usoa  
— Hego ordez luzatzen dut besoa

Orain laurak neurturik:

**Dakizuen bezala  
ni ez naiz usoa  
hego ordez luzatzen  
ari naiz besoa.  
Esatera noana  
ez da hain gozoa  
nire lagun hau ez da  
burutik osoa.**

Lehen bi puntuak entzuleei zuzenduak dira. **Besoa luzatzea** jestuz ere laguntzekoa da. Zer gauza konketuagorik? Hala ere ez du bigarren zatirik apurtzen.

Demagun orain azken puntuan beste ideia oso desberdin bat kantatu behar dugula. Adibidez:

**Gartzelan egin behar  
bizitza osoa**

**Dakizuen bezala  
ni ez naiz usoa  
hego ordez luzatzen  
ari naiz besoa.  
Esatera noana  
ez da hain gozoa  
gartzelan egin behar  
bizitza osoa.**

Gaizki al dago?

Alda dezagun orain bigarren zati guztia, azkena **GOZOA** oinez utzirik.

Adibidez:

**Auntzarentzat akerra  
haragi gozoa**

Hirugarren puntua orain:

**Itxusia naiz baina  
neurean osoa**

Bertso osoa:

**Dakizuen bezala  
ni ez naiz usoa  
hego ordez luzatzen  
ari naiz besoa.  
Itxusia naiz baina  
neurean osoa  
auntzarentzat akerra  
haragi gozoa**

Ikusten lehen bi puntuek zer ideia desberdinetarako balio duten? Entzulerik aurrean ez balitz, ez legoke baliakizun honetaz jokatzetik. Lagun artean ere jende aurrean bezalatsu da. Ihardun kolektiboa izatean dago gorabehera.

Entzuleengana bezala, bertsolari lagunaren edo lagunengana ere berdin jo liteke.  
Hona lau oin:

Hutsa  
Goruntza  
Gorputza  
Putza

Demagun bigarren zatia honela dela:

Demokrazi hau dugu  
berriketa hutsa  
zerbait bazelakoan  
zakurraren putza.

Orain lehen zatia bertsolari lagunari zuzendurik:

Begira zazu, lagun  
behetik goruntza  
ez al duzu kirrizkaz  
sentitzen gorputza?  
Demokrazi hau dugu  
berriketa hutsa  
zerbait bazelakoan  
zakurraren putza

Alda dezagun orain bigarren zatia, lehenengo berarekin utzirik. Adibidez:

Begira zazu, lagun  
behetik goruntza  
ez al duzu kirrizkaz  
sentitzen gorputza?  
Konparazioz gure  
bizitza da putza  
oraintxe zerbait eta  
bat batean hutsa.

Axularrek sinatzeko moduko bertsoa da hau. Begira zer ideia desberdinen betegaria den lehen zatia.

Hemen azterketa luzeak eta arretagarriak egin litezke, beste helburu batez ari ez bagina. Gure helburua zortziko txikia osatzea da. Horretarako bete lanaz ari gara. Eta bete lan horretarako aproba desberdinak egiten ari gara, ez hainbeste teoriak sartzeko, segurtasun praktikoa ezarri nahiz baizik.

Hala ere, esandako guztiaren bilgarritzat, arau nagusi bat eman gabe ezin utzi. Esaldi betegari horiek nortasun propiorik gabeak dira edo nortasun zorrotzik



gabeak. Orduan segun zer esaldi nagusi datorren, hartara orientatzen dira berehalaxe, sateliteak planeta inguruan eta planetak izar inguruan bezala. Esaldi horiek erreferentzia baten beharra dute. Baten ordeztu beste bat sarturik, hartara orientatzen zaizkizu. Bildotsak bezala. Hauen senak amari jarraitzea eskatzen die. Amari ez badute, mugitzen den edozein multzori jarraituko diote. Eta sarritan, ama eta guzti ere, badakite galtzen, beste zerbaiten edo norbaiten atzetik. Azkenengo bertsoaren lehen puntua hauxe zen:

**Begira zazu, lagun  
behetik goruntza**

Esaldi honek demokrazia berriketa hutsa eta zakurraren putza izatearekin bat egiten du entzuleen buruan. Agintariak, ministroak, parlamentariak edo horrelakoak goian situatzen baitira, laguna eta entzuleak behean daudelarik. Axularrek sinatuko lukeela esan dugun bertsoan ere, behera eta goia zentzuzkoak dira. Biziaren ezereztasuna aipatzean, mundu hau eta bestea, lurra eta zerua, berehalaxe asoziatzen baitira. Beste hainbat eta hainbat kasutan ere, aprobarik egiten baduzue, berdintsu gertatuko da.

Honek ez du esan nahi beti ondo egokituko denik. Bildotsak ere zuri aisa jarraituko dizu, baina telebista bat topera hoska hurreratzen badiozu, agian atzera egingo dizu.

Azkenez beste gauza bat ere kontuan eduki beharrekoa da. Bertso bakarra satelite galdua bezala da. Bertsoak sailean joaten dira. Bakarka hinsteste zentzu eduki ez arren, errezkan doazela, askoz ere errezkiago zentzuan sartzen dira. Gauza asko aurretik esana dago. Gaia ere aurretik dabil, inguruak eskatzen dituen xehetasunak emanak daude. Bertsolariak ez dauka dena situatu beharrik, entzuleen gogoan baitago. Honela bakarka oso urrun dabilela dirudien bertsoak ere, sailka hari osoa hartzen du. Teilatu haundi bat bezala, baina alderantziz. Gure teilaturik gehienek gailurra erdian daukate. Honela izan behar du, ura alboetara botatzeko. Gailurra ertzak baino beherago balego, ur guztiak erdira letozke. Antzeko zerbait gertatzen da bertsoetan ere, saioa aurrera doanean. Esaten ari garen bete lana egiteko, abantail haundia ematen du honek.

## XXIV

### BETEGARRIEN ARIKETAK

NIKOLASA HAUNDIA (Zeferino Mujika)

- 1) Nikolasa haundia  
da nere grazia  
Naparruan jaio ta  
Bizkaian hazia.  
Oraindikan ez nago  
mirabe itxusia  
buruko ilea daukat  
urdintzen hasia.
- 2) Berrogeita sei urte  
daukat edadia  
zazpi arroa banaiz  
ezkondu gabia.  
Alondegira sarri  
bilatu biria  
zurrutian badaukat  
abilidadia.
- 3) Aguardintarik ez zait  
gustatutzen kasik  
atzo ere ez nuen edan  
kuartilo bat baizik.  
Ardo zuria ere  
dedanian pozik  
ezin dedan denboran  
egoten naiz hutsik.
- 4) Majo bat izandu det  
lengo egunean  
hitza eman diogu  
pozik degunean.  
Konformatu gerade  
txit modu onean  
ez gerade hasarre  
hontan gaudenean.
- 5) Gau batean egin dit  
bere etorrera  
ez gera ailegatu  
estadu txarrera.  
Mozkortuta erori zait  
zerraldo lurrera  
bolamotza bezela  
neronen aurrera.
- 6) Jan gutxi egin zuen  
edan berriz fuerte  
asko samar sartuak  
galdu zuan parte.  
Zutik ezin egonda  
etxia aparte  
mututurik egon zan  
egunsenti arte.

- 7) Hori da neretzako moduko gizona aspalditxuan badu mozkortzen dan sona. Palta hori badu baina borondate ona ezkontzeko agindu dit perkalezko gona.
- 8) Erregali horrexek poza eman zidan betiko sartu bada nere bihotzian. Hidrolika zakuak badazkala etxian kamisa ere agindu dit haiek garbitzian.
- 9) Horrelako kamisa gustatzen zait neri jazteko pozak nago josi al baledi. Puska askotakua joskura ugari hatz egingo diogu arkakosuari.
- 10) Esposatzeko daukat jazkera grabia fandangolaria naiz entero trebia. Emango det len baino itxura hobia kamisa izango det bordatu gabia.
- 11) Oraintxen kontentu da Doña Nikolasa oraindik ez negoan mirabe eskasa. Txuleta ederrak jan zurrut egin lasa oraindaino ez ditut egun txarrak pasa.
- 12) Erregaliak ditut oso modakuak tapatuko ditugu betik gorakuak. Biok tokatu gera gogo onekuak esposatu biagu gero gerokuak.

Goazen orain ariketa bereziak egitera, oin zerrenda bat emanez. Adibidez:

Hala  
 zabala  
 dala  
 dezala  
 bezala  
 apala  
 atala  
 makala  
 tamala  
 berehala  
 petrala  
 katedrala  
 azala  
 ostirala  
 argala

hegala  
kaporala  
seinala  
atabala  
BALA

Adibidez:

**Buruan behar ditu  
dozenerdi bala**

Puntu honek Xenpelarren «**bala bat sartu buruan**» gogarazten du. Ideia honek zentzu osoa dauka berak bakarrik, bertsolariak bere lagunaren aurka esanik. Kantatzean, laguna seinala liteke jende aurrean. Lagun bati esateko gogorregia badirudi ere, segun zer gai den, ondo datorrena izan liteke. Norbere kontrarioa-rengatik ez ezik, beste norbaiten aurka ere esatekoa gerta liteke, gaiak norbaitegatik zerbait gogorra esatea eskatzen badu.

Xehetasun hauek eginik, goazen hirugarren puntura. Adibidez:

**Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

Bertso erdi honi aurreko erdia bete dezaiogun orain, oinak binaka eta errezkan harturik:

**Esan beharra daukat  
noba edo hala  
entera dadin gure  
jendaurre zabala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

**Sarritan bai jendea  
nazkagarri dala  
ez dakienik bada  
aditu dezala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

**Esan behar dut orain  
sentitu bezala  
harro dabilenen bat  
jartzeko apala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

**Osorik baldin bada  
badator atala  
oraingoa haxe ez da  
arrazoi makala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

Pentsatu hutsak ere  
sortzen dit tamala  
zer egingo nukeen  
hona berehala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Hona egi haundi bat  
nola katedrala  
amorrazioz daukat  
erretzen azala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Igande naiz larunbat  
edo ostirala  
bihotzik ez daukanak  
arima argala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Hemen hegoa eta  
hor berriz hegala  
ondoan daukadana  
ai zer kaporalala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Nor zer den entzuleek  
dezaten seinala  
pregoi jotzera doa  
nire atabala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Kanta ditzagun orain denak errezkan. Zer iruditzen zaizue? Sinesten al duzue bete lana egiteko ez dela hain irudimen zorrotzik behar? Bete lan arrunt samarra noski. Beste gauza bat da bete lan bizia eta dotorea egitea. Esana dugu bete lana artea dela. Baina minimoa gainditzen duena nork jakin hortik noraino iritxi litekeen?

Norbaitek agian oin zerrenda hau honela aurrez prestatu ote zegoen zalantzak izango ditu. Egin beste edozein zerrenda ezer pentsatu gabe eta gutxi gora behera berdin aterako da. Sinesteaz edo ez sinesteaz aparte, ariketa hau eginago eta betegarrien sena landuago gertatuko da. Eta era berean, aurrerago azaldua dugun bezala, oinen balorapen desberdinaz jabetu. Egokiera erreza ala zaila duten oinek berez agertuko dute beren burua. Goragoko zerrendan adibidez, bistan dago KATEDRALA, OSTIRALA edo ATABALA egoki sartzen zailagoa dela DALA, BEZALA, BEREHALA eta abar baino. Ideia horretan ez ezik, beste ideia posible guztietan ere, hitz horiek, izen konkretuegiak direlako, beste hauek baino sargaitzagoak izango dira beti, berak sartzea zuzenki tokatzen den gaia ez bada.



BOST  
ZORTZIKO HAUNDIA

## ABIATZEN

## TXANTXANGORRIA (Bitoriano Iraola)

- 1) Nork ezagutzen ez du lur hontan  
nork gure txantxangorria?  
Jostailu ezin egona eta  
bide txokoko txoria.  
Kaxko biribil begi argiak  
moko me txorrotx txikia  
berde gorrixta eta petxua  
luma fin gorritz jantzia  
purruxtakako hegalaria ta  
gainera xaltalaria.
- 2) Goiz goiz jaiki ta artian ondo  
zabaldu gabe eguna  
agur eginaz hau da xaltoka  
bideratutzen zaiguna.  
Fiatua da graziz betia  
xanko beltz txukun txukuna  
baserrietan nola kalian  
danak maitatzen deguna  
gure lurreko adiskidia  
urte guziko laguna.
- 3) Txori txikia arbol gaineretik  
jatxi baino len larrera  
ikusiko da xalapartaka  
nola betzen dan lurrera.  
Josta moduan altxatu ere  
lar punta baten gainera  
bidez eltxorik arkitzen badu  
kolpe tiriaz aidera  
purruxtan gero sartzen dan arte  
erreka txulo batera.
- 4) Ez dira aitzen mendi gaineran  
lengo irrintzi zantzuak  
baizikan haize txistuak eta  
kazkarabar erasuak.  
Bakar bakarrik alaitzen ditu  
zelai borda ta basuak  
txori berrixu petxu gorrien  
kantatxo xamur goxuak  
kanpo guziak atseginduaz  
pasiaz negu osuak.
- 5) Udaberrian azaldutzian  
kukuak euskal mendira  
ku-ku eginaz beren arraultzaz  
katibatutzen ez dira.  
Ez dakit nola biltzen dituzten  
txantxangorrien kabira  
eta umiak ama on harrek  
ateratzian argira  
eskergebiak etxien jabe  
ondoren egiten dira.
- 6) Beldur haundiko negu beltzian  
elurte gogor haietan  
txori leiala inguratzen da  
edozein etxe txarretan.  
Janari bila hain fiatua  
sarturik estalpietan  
katu zitalak nola egoten  
diraden erne txeletan  
han erortzen da inozentia  
beraren hatzaparretan.

7) Beren sarrera egiten dute urteko apirilian kontentu eta alai kantari guztizko talde luzian. Azaltzen dira eguzkiaren argian gisa goizian horrengatik eiztari batek txori leial hau hiltzian esan liteke penik ez dala sartzen hain bihotz hotzian.

8) Negu goiz batez txori umil hau estrata bide txokuan arkitu nuen puxtutua ta etxera eraman nuan. Esne epelez argal gaixua zerbait piztu zan orduan utzi ta joan zan pozez kantari txori librien moduan ta zeinek daki zeramazkien esker on haiek petxuan.

Aurreko kapituluan zortziko txikian esaniko guztiek zortziko haundirako ere berdin balio digute. Hango azalpenik errepikatu gabe, ariketak bakarrik egingo ditugu hemen.

1) Lau oinak emanda. Adibidez:

Papera  
Batera  
Aukera  
Atera

Orain nobelatxo bat asma dezagun lau oinokin, esaldi luzetxoagoak eginez, zortziko haundia baita:

— Dirua izan ezkerro garestia da papera  
— Nire patrikan ez da izaten berde asko batera  
— Aberatsa zara eta hau nire aukera  
— Ostu dituzunak mesedez atera

Orain neurtu: Diruarena izan ezkerro garestia da papera nire patrikan ez da izaten berde askorik batera. Zu aberatsa zaren medioz hauxe da nire aukera ostu dituzun denak mesedez hemen bistara atera.

2) Oin berak beste ordena batez:

— Gauza aldrebesak ikusteko bada aukera  
— Gizon batek zer egin didan kontuak atera.  
— Neuri ostu eta jan du milako papera  
— Lotsagabea eta tentela batera.

Orain neurtu: **Gauz aldrebesak ezagutzeko  
bada sarritan aukera  
gizontxo batek zer egin didan  
jaunak, kontuak atera.  
Neroni ostu eta ber bertan  
jan du milako papera  
hori bai dela lotsagabea  
eta tentela batera.**

3) Beste lau oin:

**Komuna  
Eguna  
Duguna  
Laguna**

Pentsa dezagun azken bat. Adibidez:

**Gizonarentzat eserlekurik maiteena komuna**

Orain hirugarren puntua laugarrenarekin zerbait lotua:

**Bada zoko bat maiz bisitatzen duguna**

Orain beste biekin lehen zatia bete:

- **Ez dakienak nirekin badu laguna**
- **Arrazoiak kantatzeko baita gaurko eguna.**

Esaldi hauek edozein segidari ondo doazkionak dira, hain orokorrak baitira.  
Hona laurak errezkadan:

- **Ez dakienak nirekin badu laguna**
- **Arrazoiak kantatzeko baita gaurko eguna**
- **Bada zoko bat maiz bisitatzen duguna**
- **Gizonaren eserlekurik maiteena komuna.**

Neurturik:

**Ez dakienak nirekin badu  
enteratzeko laguna  
arrazoi batzuk kantatutzeko  
baitugu gaurko eguna.  
Bada zoko bat etxe denetan  
maiz bisitatzen duguna  
gizonarentzat eserlekurik  
maiteena da komuna.**

4) Orain hain sarrera zabalaren ordeztu, lehen bi puntuak entzuleei zuzenduak:

Oinak: Egurra  
Samurra  
Bildurra  
Muturra

Azkena: Haizkolariak ez gara baina  
tokatzen zaigu egurra

Hirugarrena: Mendian eder baina soinean  
ez da hain karga samurra

Orain entzuleei zerbait esateko, BILDURRA eta MUTURRA ditugu.

Hona adibidez: Ez al duzue ikusten nola  
dabilen mire muturra?  
Behar bezala esplikatzeke  
badaukat neure bildurra.  
Mendian eder baina soinean  
ez da hain karga samurra  
haizkolariak ez gara baina  
tokatzen zaigu egurra.

Bigarren zatia guztiz alda dezagun orain, lehenengoa berdina utzirik:

Ez al duzue ikusten nola  
dabilen nire muturra?  
Behar bezala esplikatzeke  
badaukat neure bildurra.  
Harria bota nion suari  
akabatzean egurra  
puzka ta puzka ere ez zagon  
hura piztutzen samurra.

Hona zer bertso desberdinak, lehen erdia berbera izanik.

5) Lehen bi puntuak bertsolari lagunari zuzenduak.

Oinak: Ura  
Gura  
Modura  
Ardura

Azkena: Herri hau libre ikusi gabe  
hiltzerik ez nuke gura



Hirugarrena: **Bene-benetan hitzegiten dut  
sentitzen dudan modura**

Orain lehen puntuak bertsolari lagunari:

**Aizazu, lagun, ba al dakizu  
zein den gaur nire ardura?  
Ardo beroa baldin bazara  
ni ere ez nauzu ura.  
Bene-benetan hitzegiten dut  
sentitzen dudan modura  
herri hau libre ikusi gabe  
hiltzerik ez nuke gura.**

Alda dezagun orain bigarren zatia:

**Aizazu, lagun, ba al dakizu  
zein den gaur nire ardura?  
Ardo beroa baldin bazara  
ni ere ez nauzu ura.  
Zure galtzetan pasiatzerik  
ez nuke inola gura  
mundu guztiak hartu ez nazan  
arrote baten modura**

Horra zer bertso desberdinak sarrera berberaz.

## BETEGARRIEN ARIKETAK

## FUERUEN GAINIAN (Txirrita)

- 1) Orain bi mila urte inguru bezela ziran hasiak erromatarrak berendu nairik gure zazpi probintziak. Garai hartako abarkadunak ziran jenioz biziak baziran penaz amildu eta beren hezurak hautsiak lastimosuak izandu ziran haien orduko antsiak.
- 2) Denbora hartako gerrero zarrak ziran gizon onraduak aziuetan irabazita jazten zituzten graduak. Hirurogeita lau urtekuak bazebiltzan soldaduak orain bezela etzuen inor engainatutzen diruak Legobide ta Osabal ziran Kantabriako buruak.
- 3) Aitona hoiek zer pentsatu zuten azkeneko heriotzian ez genduela jakin izandu pena daukat bihotzian. Arrats guzian otso guardian egunez erdi gosian zenbait naigabe sufritu zuten Ernioko gurutzian haien orduko oraziuak ederrak izango zian.
- 4) Gure izeben amen amonen osaben aiten aitonak hemen fueruak defenditutzen ibilitako gizonak. Bertan batalla irabazita gero Erromara juanak Otavianok galdu zituen bere herriko lagunak haundi gaiztuak diran tokian pagatzen du txiki onak.
- 5) Arroza baino zabalagoko gure zazpi probintziak baratza eder bat bezela zeuden barziak lorez jantziak. Lau Espainian morroi gaudenak hiru han ditu Frantziak gizon gaizto bat dala medio hondatu ginan guziak beste munduan ikusten badet eman biaizkat graziak.
- 6) Pertsegituak izandu gera juan dan zenbait urtian asko zebiltzan agindu nairik Kantabriako partian. Mantxa gabeko lore ederrak estalirikan lurpian errespetua guardatzen zuten Lartau hemen zan artian oraindik ere denbora dago berriro saia gaitian.

- 7) Geren sailari segi zaiogun  
ez bestetara mugitu  
motiborikan asko badaukat  
ongi esan nai banitu.  
Ni engainatzen ez baldin banaiz  
Euskal Herriak baditu  
Kantabriaren izenik ere  
nai ez dutenak aditu  
zazpi senide aita batenak  
egin gerade unitu.
- 8) Zazpi senide aita batenak  
danak euskaldun garbiak  
Tubal zarraren artaldetikan  
banatutako ardiak.  
Dira aitona nungua zuten  
ez dakitenak erdiak  
utzi ditzagun bide ilunak  
bila ditzagun argiak  
beti betiko bere izena  
izan dezan Kantabriak.
- 9) Beren idea beste gauzarik  
ez daukatenak buruan  
gaurko egunian halako asko  
baditugu inguruan.  
Esaten zaie Kantabria honek  
bere jabia nor duan  
kontra egiten hasten zaizkigu  
setosuaren moduan  
geren anaiak ez ditugula  
esan gentzake orduan.
- 10) Baldin egiaz egina bada  
aurreko zorren papera  
zazpi probintzi euskerazkuak  
Kantabrietarrak gera.  
Bere bihotzak daukan asmua  
beti dijua pakera  
bide askotatik martxa zuzenik  
ezin gentzake atera  
onena zein den ongi neurtuta  
bildu gaitazan batera.
- 11) Zazpi senide aita batenak  
egotia honen triste  
fortunatu da desgrazi batez  
baino ez genduan uste.  
Maitatzen dute etorri dana  
besteren gauzaren eske  
egunen batez haserre samar  
ikusi bihar gaituzte  
jakin dezaten bagerala gu  
izena degun hainbeste.
- 12) Mundu honetan ezin bizi ta  
ez degu juan nai bestera  
gezurra esanda ez dago handik  
etorritzerik ostera.  
Arrazoi gabe eman ziguten  
lege kontrako jazkera  
gainera berriz kontari daude  
galduko dala euskera  
gogor egiten ez bazaiote  
hoientzat aina ez gera.
- 13) Kolka txarraren azpian dauden  
txito urrikalgarriak  
hamarretatik bost hiltzen dira  
beste bostak elbarriak.  
Pizti gaiztuen bildurrez beti  
gora begira jarriak  
indar gutxiko gorputzak eta  
suspiriuak berriak  
kastigu horren mendian bizi  
gera gaur Euskal Herriak.

Goazen orain oin zerrrenda batez betegarrien ariketak egitera. Adibidez:

Aria  
garia  
saria  
aharia  
nabaria  
haragia  
hobaria  
gidaria  
gudaria  
ugaria  
janaria  
eskaria  
nagia  
haria  
ataria  
madaria  
ZAHAGIA

Demagun norbaiti mozkortia dela esan nahi diogula. Adibidez:

Hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Hirugarrena:

Galipot saldaz ere egingo  
luke honek edaria

Bertso osoak:

Bakoitzak bere buruarekin  
badauka zertan aria  
ogia egin behar duenak  
bilatu behar garia.  
Galipot saldaz ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Bertso hau izan dadila zuen  
arretarentzat saria  
kolpe txiki bat jotzera noa  
baina ez naiz aharia.  
Galipot saldaz ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Zenbait gorputzek ikusi hutsez  
ere dute nabaria  
azala zimel daukatenean  
eta ubel haragia.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Tratuan ari diren geienek  
maite dute hobaria  
beste askoren bizitzan berriz  
zurruta da gidaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Ez dakienak nolakoa den  
zurrutaren gudaria  
aurrean dugun honekin badu  
argibide ugaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Gorputzarentzat beharrezkoa  
omen dugu janaria  
beste zerbaitek ere badauka  
batzurentzat eskaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Behar denean orratza sartzen  
ez naiz langile nagia  
baina bildur naiz oraingo hontan  
faltako zaidan haria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Ez da sarritan hutsik egongo  
tabernako ataria  
lagun bat daukat harrak goiz jota  
gorritu den madaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Beste mila zerrenda eginik eta nahi den amaiera hautaturik ere, berdin egin liteke. Tranparen bat nonbait badela uste baduzue, jar dezagun beste zerrenda bat. Eginak erakutsiko du. Zail egiten bazaizue, ez da tranparik dagoelako, bete lana sen bat delako baizik. Sen guztiak bezala, hori ere landu egin behar da eta horretan gabiltza.



## XXVII

### SAIOA GAIAK JARRITA

#### HOGOI URTETAN BEZALA (Xalbador)

- 1) Ostatu baten barnean entzundut ahapaldi zoroa beren ustetan oro dazkiten gazte batzuen leloa:  
«Zaharrendako salda ona ta gaztentzat amodioa»  
Gezurra dela jakin dezaten kantatzen hasterat noa.
- 2) Berrogoi eta hamar bat urte badu ene emazteak berrogoi eta hamahiru nik iragan udan beteak.  
Maitasunezko sentimendutan oraino gaude gazteak amodioa zintzoa bada ez dira konda urteak.
- 3) Laster laguna hartzekoa du gure haurretan gaztenak lehendik ere bi baditugu ezkondukan daudenak.  
Bakotxa bere lagunarekin etxerat biltzean denak ohartzen gira guhaur girela denetan loriosenak.
- 4) Maitemindurik emaztearen inguruan nabilala galdetzen diot maite nauenez otoi segurta nezala.  
Arrosa bezain gorri eginik begiak apal apala baietz segurki ihardesten daut hogoi urtetan bezala.
- 5) Sartzerat noa berrogoi eta hamabortz garren urtean eta gaztetan bezain lorios ni zure beso artean.  
Bizitzen denak amodioa gaztentzat dela ustean zer erran liro gure arteko zoriona ikustean?
- 6) Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan memento baten epearentzat Jainko banindaike izan.  
Mana nezoke iguzki horri nehoiz ez dadila etzan zorionezko bizitza hunek azkenik izan ez dezan.
- 7) Zu zira ene zorionaren iturri ta nagusia mundu hunetan jarraikitzeo dutan arrazoin guzia.  
Zure dohainen gozoz ez banu ene gogoia hazia lore gabeko udaberri bat laiteke ene bizia.
- 8) Gaztek diote: «Amodiorik ez da zahartzearekin»  
Gu zahartzeak ez gaitu aldiz geiago baizik bat egin.  
Jaunari diot biak batean har gaitzan noizbait berekin zoragarritzko lorategi hau bi zati egin ez dadin.

Bertso saio bat egin dezagun orain. Azaltzeko guztiak azalduak ditugu. Azkena lehenen pentsatu beharra arautzat dugu. Lehen bi puntuetan bete lana egitea ere bai. Orain azkenengo zer berria hirugarren puntua da. Hau azkenaren zubi bezala jotzen genuen. Kolpea emateko bidea prestatu. Noiz egiten da hau?

Orain arte azkenaren hurrengo egiten genuen, lehen bi puntuak bereziki tratatzeko. Baina bat bateko bertsogintzan ez da horrela. Bertsolaria azkena pentsaturik hasten da. Lehen bi puntuak edo betegarriak kantatzen ari dela, hirugarrena pentsatuko du, azkenaren arabera. Hirugarrena berriz martxan pentsatzen du, ez baita izan ere azkena bezain garrantzikoa. Hauek honela, lehenbizi azkena pentsatuko dugu. Gero lehen bi puntuak eta azkenik hirugarrena. Beraz, azkena erabakitakoan, beste guztia goitik behera jarraian.

## ZORTZIKO TXIKIAN

Hona gai bat: **Goizean ohetik jaikitzeo turrina jotzen dizun iratzargailuari.**

Azkena: **Eskerrik asko baina  
ni ez nauk jaikiko**

Bertso osoa: **Erloju hau nik ez dut  
batere begiko  
ez al da geratuko  
muturik betiko?  
Jotzen badu kasurik  
ez egin ta kito  
eskerrik asko baina  
ni ez nauk jaikiko.**

Norbaitek pentsa lezake lehen bi puntuak ez direla betegarriak. Bai eta ez. Ez balira ere, bete lana egitean azkena pentsaturik baitago, ez da hain zaila gaiaren elementuren bat aipatzea eta horretaz zerbait esatea. Kasu honetan erlojua. Lehen bi puntuak beste bertso baterako ez dute balio, aurrerago eginak ditugun zenbait ariketetan bezala. Egin zitekeen hala. Baina hemen pausotxo bat gehiago eman dugu.

Lehen zati zabal horri bigarrenak ematen diola zentzua eta orientabidea esaten genuen. Entzuleak, bertsoa amaitzean, hala hartzen du, osotasun bat bezala, nahiz eta lehen puntuak oso bertso desberdinetarako balio izan.

Hemen esaten duguna da, azkena gogoan duen bertsolariarentzat, ez dela zaila bete lan hori gaiaren zerbait aipatuz egitea. Hitz bat aski da horretarako, haren inguruan zerbait esanez. Hemen erlojua bezala, beste gai batean beste zerbait. Segun zer oin gogora datorren, haiexek sartzeko bete lana egiten da.

Guzti hauek kontutan direlarik, ea gai horri nolako bertsoa edo bertsoak kantatzen dizkiozuen. Hasi!

## GAI BIKOITZA

Orain beste gai bat, baina bikoitza. Batak bestearen aurka. Hori oraindik binaka egiteko gehiegi bada, talde erdiak beste erdiaren aurka. Gaia:

**Bat batean asto bat sartzen zaigu eskolan. Zer nahi ote du? Batzuk asto horren ofizioa eta beste batzuk ikasleona.**

Talde bakoitzetik hiruren bat bertso osaturik dituzuenean, kantatzen hasiko gara. Hasi! Bat. Bi. Hiru. Hasi kantatzen.

Astoa: Azkena:

**Hemen heldu da zuen  
arrantzen soinura.**

Bertsoa:

**Egun on edo gau on  
lege den modura  
sartzea pentsatu dut  
zuen ikuilura.  
Aspaldion lagunik  
ez zedukan hura  
hemen heldu da zuen  
arrantzen soinura.**

Ikasleak: Azkena:

**Eseri zaitetz lasai  
gure inguruan.**

Bertsoa:

**Egun on zuri ere  
lege den moduan  
gizalege pixka bat  
ikasi zenduan.  
Belarri biak jarriz  
bertso liburuan  
eseri zaitetz lasai  
gure inguruan.**

Eta abar.

## ZORTZIKO HAUNDIAN

Gai bakarra: Ovni bat aurrean lurreratu zaizu eta esan dizute: Martzianoak gara.

Hasi. Talde bakoitzetik batzuk amaitzean, kantatzen hasiko gara. Adibidez:

Azkena: Martzianoa esan du baina ematen du Martzelino

Bertsoa: Barregarriak kantatu behar gaiak horrela baitino plater batetik atera zaizkit dozena bat demonino. Ez zait holako jende klaserik suertatu oraindino Martzianoa esan du baina ematen du Martzelino.

Eta abar.

Gai bikoitza: Ilargiarekin elkarrizketa. Batzuk ilargia zarete eta besteok goizaldean kantatzen ari diren bertsolariak.

Talde bakoitzetik hiruren bat prest daudenean, kantatzen hasiko gara.

Ilargia: Azkena:

Gauetz pasatzen naizen guztian beti azpian zaudete

Bertsoa: Batzutan oso txikia nago baina gaur berriz naiz bete hola osorik nagoenean ez nau jende gutxik maite. Bertsolariok noski neronen lagun zaharrak zarete gauetz pasatzen naizen guztian beti azpian zaudete.

Bertsolariak: Azkena:

Gau batengatik zergatik jaisten ez zara lagun artera?

Bertsoa:

**Afaltzen geunden eta orduak  
kanpora gaitu atera  
laguntzat hartzen zaitugulako  
gabiltz kaletik kalera.  
Hainbat mendetan zu ere hortxe  
zabiltza gora ta bera  
gau batengatik zergatik jaisten  
ez zara lagun artera?**

Eta abar.

Azkena pentsatzeari buruz azken oharra. Gehienez zortziko txikian puntu osoa pentsatzen da, laburra baita. Zortziko haundian, ordea, azken lerroa sarritan aski izaten da, mendeko esaldia edo ez bada. Zortziko silabek nahiko tarte ematen dute ideia oso bat sartzeko, batez ere bertsoa denean.



SEI  
HEGAN

## XXVIII

### PAPERETIK ASKATZEN

#### ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA (Xalbador)

- 1) Amodioa gauza tristea  
bihotzen higatzailea  
guziz enea bezala bada  
esperantzarik gabea.  
Gizonarentzat hau baino malur  
haundiagorik badea?  
Ikusten eta ezin eskura  
maitatzen duen lorea  
hunela bizi baino aunitzez  
hobe litaik e hiltzea.
- 2) O, Jainko ona, zendako bada  
egin nauzu hoin maluros  
begien bixtan izar eder bat  
ezarri dautazulakotz,  
ikus orduko maite nuena  
nik ditutan indar oroz?  
Harek ordainez ez du enetzat  
ez begi eta ez bihotz  
nehoiz ikusi izan ez banu  
hobeko nuen ondikotz!
- 3) Oi, ene maite ezin ukana  
zoin zaren xarmegarria  
maite dut zure begitarte  
maite zure boz ezta.  
Halaber zure irri gozoa  
zure izaite guzia  
zuretzat baizik ez dut begirik  
zare ene iguzkia  
gau eta egun zuri pentsatzen  
deramat ene bizia.
- 4) Martxoko hormak galduko duen  
lore pollit goiztiarra  
ta eiharterat bortxatua den  
haizeak hautsi abarra.  
Ene bihotza ez ditaik  
gauza horier konpara?  
Nehoiz enea ez da izanen  
maitatzen dutan izarra  
hortaz oroitz maiz etortzen zaut  
nigarra begietara.
- 5) Aitortzen dautzut, ene maitea  
goiz aski banakiela  
etzintaizkela enea izan  
bertze batentzat zinela.  
Bainan halere maitatu zaitut  
ez bainezaken bertzela  
ene bihotza bizi naizeno  
izanen zaizu fidela  
zuretzat bizi ez banintzaik  
zuretzat hil nadiela.

Orain arte paperetik ibili gara. Taldean norbait ibiliagorik baldin bazen, hori bere onerako izango da, baina orain arteko gutzia papera tresnatzat harturik egiteko zen. Baliteke hutsetik hasirik ere, buruz abiatzen denik izatea. Hori ere bere onerako.

Oro har eta hutsetik hasia den taldeari begira, oraintxe hasten gara papera uzten, ikasbide honetan behintzat. Jauzi haundia eta liluragarria ematera goazena. Txoriek lehen hegaldian edo haurrek lehen oinezaldian, edo bizikletan ikasten ari denak lehen joanaldian, senti lezakeen lilura.

Haurren lehen oinezaldia? Hori bakarrik al da ikasi duguna? Ez da gutxi. Haurrak denbora luzea eraman du arrastaka, eskuak, zangoak eta senak landuz, gero tente baina zerbait heldurik luzaro, eta azkenean tak, hiru edo lau urrats bakarrik egiten ditu. Esperientzia harrigarria, kontatzen baleki. Hiru edo lau urrats horiek berehala gehitzen dira. Egun batzuren buruan haurra tiki taka dabil. Oraindik tikili tokolo, baina ibili.

Zer alde dago aulki bati heldurik egotetik lehen hiru urratsak berak bakarrik egitera? Alde kualitatiboa, baina ez hain zaila. Haurraren senak aurretik bide luzeak eginak dira. Uste baino prestakuntza haundiagoa daukate. Bestela ez legoke tak ibiltzen hasterik.

Horixe egin behar dugu orain. Papera utzi eta tak. Ea halaxe gertatzen den. Ezer ez balitz bezala.

## OROIMENA LANTZEN

**Kopla txikia.** Has gaitezen kopla txikitik.

*Irakasleak kopla bat astiro kantatu eta ikasle batek jarraian hura buruz kantatu. Hitzez hitz ez bada, antzekoa. Adibidez:*

**Hona orain kopla bat  
buruz ikasteko  
hainbeste egiterik  
ez nuen usteko.**

*Ikasleak errepikatu. Ariketa honetarako kopla sorta bat bildu behar da. Era bat une batean ikasleek kopla bana egitea da. Berehalaxe dira mordoa. Orduan batek kantatu eta beste batek errepikatu. Ikastaroan zehar bilduz joanikoak ere izango dira koadernoetan.*

*Beste era errez bat zortziko txikiak bi zatitan kantatzea da, kopla doinuan. Horrela bertso batekin bi kopla ditugu.*

*Entzun eta batera kantatzea gehiegi bada, idatzi egin liteke. Entzun eta bakoitzak idatziz jaso. Baina gero buruz kantatu. Horrela berdin berdina ez bada ere, antzekoa aisa egiten da. Jasotze hori bakoitzak bere paperean egin behar du, martxan entzuten ari dela. Horregatik baliteke hitzez hitz ez jaso ahal izatea.*

**Kopla haundia:** Hemen ere berdin, kopla txikian bezala. Kopla haundia zailago gertatzen da hasieran, luzeagoa baita. Adibidez:

**Kopla haundia buruz hartzeko  
ez ote da lan geiegi?  
Hasi naiz baina ez dakit ia  
nola edo nondik segi.**

*Ikasleak errepikatu. Kopla txikian esaniko hiru erek berdin balio dute. Behin kantatzea hasieran gutxiegi bada, bi aldiz kantatzea ere hor dago.*

**Zortziko txikia.** Hemen bat batean osorik errepikatzea gehiegi liteke.

Hona mailak: — Behin entzun, oinak paperean jasoz. Bertsoa paperean berregin eta gero buruz kantatu.

— Behin entzun oinik jaso gabe. Paperean berregin eta buruz kantatu.

— Behin entzun oinak paperean jasoz. Bigarrenez entzun bakarrik eta jarraian, oinei tarteka begiraturaz edo begiratu gabe, kantatu.

— Behin entzun oinak jasoz eta kantatu.

— Bi aldiz entzun ezer jaso gabe eta kantatu.

— Azkenez behin entzun ezer jaso gabe eta berehala kantatu.

**Zortziko haundia.** Zortziko txikian bezalaxe, luzeagoa eta, beraz, zailagoa dela jakinik.

*Ariketa honetan bada oso kontuan eduki beharreko gauza bat, hots, bertso guztiak ez direla berdin oroiterrezak. Bertso deskribatzaileak edo narratiboak errezkiago hartzen dira. Egiturak eta tankerak ere asko esan nahi du. Bertso bortxatu samarrak bertso naturalak baino askoz zailagoak izango dira, teknikaz hutsik ez izan arren. Horregatik irakasleak ariketa honetarako bertsoak hautatzen kontu pixka bat eduki behar du.*

## XXIX

### BAT BATEAN

Aurreko kapituluko lana buruz entzuna jasotzea bazen, orain sortzea bera ere buruz egitera goaz.

**KOPLA TXIKIA:** Gai bat ipini eta mailaketa honela eraman liteke:

- Osorik idatzi eta buruz kantatu.
- Bigarren puntua osorik eta lehen oina idatzirik.
- Bigarren puntua bakarrik idatzita.
- Bi oinak idatzita.
- Bigarren oina bakarrik idatzita.
- Azkenez dena buruz.

**KOPLA HAUNDIA:** Kopla txikian bezala. Mailaketa hau eramateko, gaiak alda litezke. Bestela aspergarri gerta liteke. Gainera gai berari hainbeste kopla desberdin kantatzea askorentzat gehiegi da. Irakasleak neurtzekoa da hori.

**ZORTZIKO TXIKIA:** Hemen ere gaia jarri, gorago esaniko aldatzea kontuan edukirik. Gai librean ere egin litekeela esan beharrik ez dago.

**Mailaketa:**

- Dena idatzi eta buruz kantatu.
- Azken bi puntuak idatzi eta lehen bi oinak idatzita.
- Azken puntua eta aurreko hiru oinak idatzita.
- Oinak bakarrik idatzita.
- Azken bi oinak bakarrik.
- Azken oina bakarrik idatzita.
- Azkenez, dena buruz.

**ZORTZIKO HAUNDIA:** Zortziko txikian bezala.

*Ariketa guztietan ikasleen maila irakasleak neurtu behar du. Beherago nekez dabilenari goragoko mailarik eskatzerik ez dago. Beti progresioan eraman behar da lana. Ikasleak ezinaren aurrez jartzeak ez du ezertarako balio, desanimatzeko besterik. Beste ihardun guztietan bezala, hemen ere aurrerakuntza irakaslearen gora beheran dago. Ikasle txarrantzat irakasle onik ez dagoela egia da, baina irakasle txarrarekin ikasle onak ere ez du askorik aurreratuko.*



## XXX

### PUNTURA

Hona ikasbide honetako azken kapitulua, bertso gintzari buruz.

— Puntura azkena? —galdegin lezake norbaitek—. Gu hasi egiten gaituk hortik.

Sarritan horixe uste da, puntura txandaka egitea erreza delakoan. Ez dut esango bertso osoa egitea baino zailagoa denik. Baina paperean berehala bertso osoa egitea baino zailagoa bai. Beraz, tokatzen zaion lekuan sartzekotan, gehienez ere hamairugarren kapitulutik gora behar du. Horrainoko maila guztiak hau baino beheragokotzat jotzen ditut.

Horra, ordea, asko, ondo ustez, puntura kantatzetik hasten direla, errezenetik hasten direlakoan. Hortik, denbora eta denbora joan arren, beti berdintsu jarraitzea. Urtebete igaro eta hobekuntza haundirik ez bada, metoduaren hutsa da hori. Teilatura zuzen saltatu nahi duen zakurrak ez du, ekin arren, ezer aurreratzen. Eskaileretan gora doan katuak, ordea, teilatu ertzetik burlaz begiratzen dio.

Puntura egitea zaila da, geratu gabe egitekotan. Eta hala egin behar da, ez apo saltoka. Zaila da azkarra delako eta nolabait elkarrekin haria edo jostura eraman behar delako. Bai eta sarritan elkarri oinak jaten zaizkiolako ere.

Jarraian egiteak bere garrantzia dauka. Hemen geratu eta hor hasi ere egin liteke, bai. Etengabe itzaltzen eta piztutzen ari den auto zaharra bezala. Ariketa hori ez da batere pedagogikoa. Ni behintzat ez naiz horren aldekoa.

— Orain arteko bertsoariak nola ikasi zuten, ba? —galde lezake beste norbaitek.

Lehenengo bertsoariak, oraingoek eta gerokoek ere ahal bezala ikasten dute. Honek ez du horretarako ezer esan nahi. Lehenengo eta oraingo euskaldunak gehienek ere hizkuntza «berez» ikasi dute. Horrek ez dio hizkuntz metodologiari ezer kentzen.

Horrez gainera ez da berdin tabernan muturra beroturik kantatzea eta ikastaro bat taldean egitea. Hemen ikastaroan gabilta. Eta taldean.

Azkenez, hemen azaltzen den metodologiari muzin egiten dionak lan erreza dauka: Itxi liburua eta segi bereari. Ikastaro hauetan sinesten ez duenak lan erreza dauka: Etxean geratu eta besteontzat ere bakea.

Inguru solas horretatik puntu saiora itzulirik, jarraian eta erritmoz eramaterik ez dagoen bitartean, hobe da ez ekin. Noizbait hori behar da, jakina. Baina martxarik hartzen denik ikusten ez bada, hobe da beheragoko maileri ekitea.

Zergatik da hain garrantzitsua jarraian egitea? Bitarteko isilune horiek oso izorragarriak direlako. Isilune aritmikoak gainera. Tarteka geraldaldi txiki batzuk egin arren, ez dio ardura. Baina tarte horiek maiz eta luze samarrak direnean, taldeko giroa hoztutzeko arrisku handia izaten da. Erori ere bai, deskuidatzen bazara.

Talde baterako isilune luze horiek baino okerragorik ez dago, aurrez erabakitako isiluneak ez direnean. Horregatik ariketarik gehienetan, kantatzen hasi aurretik, mordo batek bertsoa egina edukitzea arautzat erabili dugu. Isilune ezarri horiek ez dute gaitzik egiten. Bai, ordea, kantatzen hasiz gerokoak. Horregatik da zaila puntura itxuraz egitea, eskolan behintzat. Tabernan hor konpon.

Hiru mailatan egin dezakegu puntu saioa:

- 1) Bertso jarriak puntura kantatu.
- 2) Oin zerrenda bat jarri eta haiei jarrai. Oin bakoitzak ematen duena kantatu, loturari begiratu gabe. Adibidez:

Garra  
txarra  
zaharra  
belarra  
indarra  
senarra  
zatarra  
dolarra  
beharra

eta abar

Lauren artean:

Bata: **Puntuetan hasteko  
badaukat nik garra**

Bia: **Neu ere hortarako  
ez nago hain txarra.**

Hirua: **Nor da hemen gaztea  
eta nor zaharra?**

Laua: **zuentzat geiegi da  
astoen belarra.**

Bia: **Belarrak ere badu  
beraren indarra**

Hirua: **zu al zara gaueko  
sorginen senarra?**

Laua: **Itxura beintzat dauka  
naikoa zatarra**

Bata: **zuek sosak zarete  
ni berriz dolarra.**

Eta horrela aurrera.

Hirunaka ere egin liteke, hasten duenak amaituz. Bai eta binaka ere. Baina horretarako bizkortasun gehiago behar da.

Oin zerrendaz puntura egiteak eragozpen batzuk ebitatzen ditu eta bide batez errima lanketa da.

- 3) Puntu librean, baina errima batzuk hautaturik. Arbelean errima mota batzuk jartzen dira. Adibidez: LA, TSA, RRIA, SIA/ZIA, etabar. Orduan puntua hasten duenak horietariko errimaren bat hartu behar du beti. Hau ere launaka, hirunaka nahiz binaka. Banaka egitea ez litzateke puntura egitea izango.
- 4) Guztiz librean, launaka, hirunaka edo binaka, segun jendea nola dabilen. Binaka egiteko gai denak ez du esan nahi launaka eta hirunaka egin behar ez duenik. Bertso saiorik gehienetan launaka edo hirunaka izaten da. Egin behar ez dena da launaka ozta-ozta dabilenari binaka eragitea.

## XXXI

### ERRIMA LANTZEN

Bertsogintzan doinua, neurria eta errima direla osagai nagusiak esaten hasi ginen. Doinu kontua edo musika erreza zela esaten genuen. Erriman ere minimora iristea ez dela zaila ikusi dugu. Neurriari eta bertsoaren egikerari ekin diogu gehien.

Erriman, ordea, zer egin, minimotik gorantz abiatzeko? Nola oihan amaigabe hori arakatzen hasi? Horretara goaz.

#### HIZTEGI ERRIMATUA - BERTSOLARITZA 2

Hor dago errimaren oihana, motaka ordenaturik eta mota bakoitzaren barrua ere sailkaturik. Hor dago errima lantzeko tresna nagusia. Nola erabili tresna hori? Era askotara har liteke. Hemen ariketa posible desberdin batzuk azalduko ditut, hiztegi horri onura ateratzeko.

##### 1) Oin zerrenda zabalak

Errima mota bat hartu eta oin zerrenda luze bat egin, mota hartan diren maila gramatikal denetatik sartzten saiatuz. Zerrenda luze hori egindakoan:

- a) Lehenbizi azterketa bat egin. Errima mota horrek zenbat daukan, nondik den ugaria eta nondik urria, maila gramatikalei buruz. Eta abar. Hitz batez, errimaren ikuspegia hartu.
- b) Zerrenda horrekin puntura dagoen bezala egin, txandaka goitik behera eramanez. Oin bakoitzak gogarazten duena kantatu, loturari gehiegi begiratu gabe. Jostea lortzen bada, hobe.
- d) Oinak launaka hartu eta bertsoa osatu. Oinak emanda esaten dena.
- e) Zerrenda beretik irten gabe, saio bat egin, koplaz edo bertsoz, bakoitzak komeni zaizkion oinak zerrenda horretatik harturik.

##### 2) Oin zerrenda hautatuak

Errima mota baten ikuspen orokorra lortutakoan, barrutia estutzea komeni da, onenak edo baliotsuenak aterarik.

- a) Oin laukoteak, boskoteak edo seikoteak egin. Ez gehiegi, bestela alferrik ari baikara hautatzen. Hautaketa bi irizpidez egin liteke: hotsezko irizpidez eta irizpide kontzeptualez. Hotsezko irizpidez oso errima estuak eta arretagarriak egin litezke, baina egokiera gutxiakoak. Artifizialak ere bai, gehiegi tiratzen bada. Demagun, adibidez, laukote hau:

**Erdera**  
**Berdera**  
**Lerdera**  
**Agerbera**

Errima hau noizbait ondo etor liteke, baina laukote hau ez dago kasu askotara egokitzerik, artifizialkerian erori gabe, nahiz eta lehen hiru oinak nahiko egokiera zabalekoak izan.

Horrez gainera, artifizialkeriarik ez dela emanik ere, horrelako errimakera ez al da kargatuegia? Ez al da astunegia, batez ere sarritan erabiltzen bada?

Irizpide kontzeptualak egokiera haundiko oinei gehiago begiratzen dio. Adibidez:

**Gera**  
**Atera**  
**Sobera**  
**Joera**

Laukote hau ez da aurrekoa bezain errima estua hotsez. Baina oin hauekin lehengoekin baino mila bider gauza gehiago esan liteke. Eta errima ona gainera, denetan ERA ageri baita, A hori artikulua izan gabe.

Beraz, bi irizpidez oin sortak egin litezke, irizpide kontzeptualari garrantzi gehiago emanez.

**3) Nola jakin oin sorta batek balio duen ala ez eta zenbat balio duen?**

- a) Saio bat egin sorta berarekin, ea zenbat ideia desberdin esateko bidea ematen duten.
- b) Gai desberdinak oin sorta berarekin kantatu.
- d) Puntura txandaka ere bai, oin berekin zer desberdinak esaten saiatuz.

Honelako aprobak egitean, oin bakoitzak hantxe agertuko du bere nortasuna. Lehenengotan ustez baliotsua zenari praktikak jipoia emango dio. Ustez garrantzi gutxikoa zenak, ordea, baliteke puntu asko irabaztea. Dena dela, kontutan izan errima arloa oso zaulia eta era askotara hartzekoa dela. Irudimen guztientzat lekua dago hemen.

**4) Hitzaren Kirol Nazionala**

Azkenez, **BERTSOLARITZA-1 HITZAREN KIROL NAZIONALA** liburuan errimari dagokion kapitulu luzea ikustea komeni da, errimaren ikuspen orokor sakona hartzeko. Aurreko ariketok egin ondoren, teoriak aisa sartuko dira, ez baitira hain zailak ere.



## ARIKETEN BILDUMA

Hona orain liburuan zehar erabilitako ariketarik garrantzitsuenen zerrenda. Ikuspen orokor bat edukitzeko eta nahi denean nahi denari ekiteko, ez da gaizki etorriko.

### PAPEREAN

- 1) Bertso jarriak ikasi.
- 2) Bertso jarriak kantatu.
- 3) Bertso jarriak erritmoz irakurri.
- 4) Bertso jarriak errezitatu.
- 5) Koplak entzun eta buruz errepikatu. Zortzikoak bi zatitan kantaturik, bi koplak egin litezke.
- 6) Bertsoak entzun eta buruz errepikatu.
- 7) Batek esaldi bat eta besteak puntu batera neurturik kantatu.
- 8) Zortziko txikitik zortziko zaharrera.
- 9) Zortziko txikitik zortziko haundira.
- 10) Zortziko haunditik zortziko zaharrera.
- 11) Zortziko haunditik zortziko txikira.
- 12) Bertsoak eta koplak jarri, gai desberdinak harturik.

### BAT BATEAN

- 1) Errezipenak txikian eta haundian:
  - a) Errimatu gabe
  - b) Oin zerrendaz
  - d) Buruz errimaturik
- 2) Luza-laburkuntzak. Liburuan irakurri eta aldakuntzak bat batean egin:
  - a) Txikitik zaharrera
  - b) Txikitik haundira
  - d) Haunditik zaharrera
  - e) Haunditik txikira
- 3) Puntura:
  - a) Oin zerrendak jarriarik
  - b) Librean

## ERRIMA LANTZEKO ARIKETAK

- 1) Errima bat hartu eta bi edo gehiagoren arteko dema, nork gehien irauin, bakoitzak oin desberdin bana txandaka esanez.
- 2) Oin zerrendak jarri eta puntura egin, zerrenda horiei jarrai.
- 3) Zerrenda luzeetatik sorta hautatuak atera, laukoteak edo boskoteak, gehien balio lezaketen oinekin. Honek gehienez taldean eztabaida ekarriko du, batzuk halako oinak eta beste batzuk bestelakoak egokiagotzat jorik.
- 4) Errima ugaria bada, oin sorta hautatu desberdinak egin:
  - a) Errima irizpidez
  - b) Kontzeptu irizpidez
- 5) Oin laukote bat hartu eta berarekin gai desberdinak kantatu. Ofizioka ere egin liteke. Honela agertuko da hautaturiko oinen balioa zabala den, ala estua agian.
- 6) Bertsoaren azken puntua berbera delarik, bakoitzean oina aldatu. Orduan bertsoa aurretik atzera bete, bakoitzean errima desberdinez. Adibidez, hona bertso bat amaitzeko puntu posible bat:

**Asto hau perratzea  
ez da bate errez**

- Edo:
- Asto hau perratzea  
ez da bate erraz.
  - Asto hau perratzea  
ez da errez bate.
  - Asto hau perratzea  
bate errez ezta.
  - Asto hau perratzea  
ez da hain erreza.
  - Asto hau perratzea  
ez da hain erraza.
  - Asto hau perratzea  
hain errez ez dago.

- Asto hau perratzea ez dago hain samur.
- Asto hau perratzea ez da hain samurra.
- Ez dago bate errez asto hau perratzen.
- Ez dago bate errez perratzen asto hau.

Ikusten ideia berbera zenbat errima desberdinez kanta litekeen? Errima desberdinak, batasun orokor baten barruan, bertsoak ere desberdinak ekarriko ditu. Alderantziz esana, oin desberdinez ideia berdinak kantatzen ikasi.

## XXXIII

### HAU AMAITU DA

Honetantxe amaitzen dugu bertso ikaspide hau. ZU ERE BERTSOLARI dio izenbururak. Bertsolari al zarete?

Segun zeri esaten zaion bertsolaria. Ez zarete agian bertsolari profesionalak. Horrenbestetik ez genuen itxaroten ere. Baina bai zarete bertsolariak, bertsogintzan jokatzeko moduan baitzaudete.

Auto karneta ateratzea bezala. Orain autoa eramaten badakizue. Hortik automobilismora bide luzea dago. Baina aurrera zoazte. Eta batez ere orain aurrera joateko moduan zaudete. Noraino? Hori bideak esango du.

Autoan ibiltzen badakizue. Gutxi al da?

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
BAT. NORA.....	9
I. Doinua, errima eta neurria.....	11
II. Terminologia.....	18
III. Doinua.....	23
BI. KOPLA TXIKIA.....	25
IV. Giltzak.....	27
V. Gaia edo esankizuna.....	36
VI. Lotura.....	39
VII. Esalditik koplara.....	45
VIII. Kopla txikian aurrera.....	52
IX. Gaia jarrita.....	59
X. Errezitapenak kopla txikian.....	67
HIRU. KOPLA HAUNDIA.....	73
XI. Doinuak eta hastapenak.....	74
XII. Zehazpena: txikitik zaharrera.....	80
XIII. Hornikuntza.....	86
XIV. Laburkuntza.....	90
XV. Kopla haundian aurrera.....	93
XVI. Gaiari jarraitzen.....	99
XVII. Errezitapenak kopla haundian.....	104
XVIII. Bete lana.....	108
XIX. Bete lana lantzen.....	112
XX. Betegarriez trebatzen.....	118
XXI. Saio orokor bat.....	122
LAU. ZORTZIKO TXIKIA.....	125
XXII. Abiatzen.....	127
XXIII. Entzuleak eta bertsolari lagunak.....	132
XXIV. Betegarrien ariketak.....	137
BOST. ZORTZIKO HAUNDIA.....	141
XXV. Abiatzen.....	143
XXVI. Ebetegarrien ariketak.....	148
XXVII. Saioa gaiak jarrita.....	152



SEI. HEGAN.....	157
XXVIII. Paperetik askatzen .....	159
XXIX. Bat batean .....	162
XXX. Puntura.....	163
XXXI. Errima lantzen.....	167
XXXII. Ariketen bilduma .....	169
XXXIII. Hau amaitu da .....	172

## BERTSOAK:

Galai bat .....	11
Markesaren alaba (Iturrino).....	18
Ardoaren azainak.....	27
Potajiarenak (Bilintx) .....	36
Jai-Jai (Bilintx) .....	37
Urzo xuri polit bat.....	39
Urzapal bat (Etxahun) .....	40
Otxalde preso (Xetre) .....	45
Xenpelar eta Ardotx Lezon .....	46
P. Bakallo eta Xenpelar.....	46
Iturengo harotza .....	52
Belateko lapurrak .....	52
Txabalategi eta zabala .....	54
Bizkaiko txerriarenak (Uztarri) .....	59
Dohaina eta lana (Xalbador).....	68
Pello eta Txirrita.....	74
Maisuari (P. M. Otaño) .....	77
Neskazar bat tentatzen (Txirrita) .....	80
Nere senarrarekin (Xenpelar).....	86
Iriarena.....	90
Loriak udan (Bilintx).....	93
Nere andre honekin.....	99
Ijituena (Txirrita) .....	104
Primaderari (Xalabador) .....	108
Aita semeak (P. M. Otaño).....	112
Ume eder bat (Iparragirre).....	113
Arbola bat (Arrese Beitia) .....	118
Naparroari (Xalbador) .....	122
Bere aitaren hiltzailea .....	127
Mutil zahar bati (Pello Zabaleta) .....	132
Nikolasa haundia (Zeferino Mujika) .....	137
Txantxangorria (Bitoriano Iraola).....	143
Fueruen gainian (Txirrita) .....	148
Hogoi urtetan bezala (Xalbador).....	152
Esperantzarik gabeko amodioa (Xalbador).....	159

Beste bat:

- 1) Zuri  
Isuri
  
- 2) Zerk eragiten dizu —3  
hainbeste negar zuri —1  
ez ezazu geiago —3  
malkorik isuri —2
  
- 3) Zerk eragiten dizu, laguna  
horrenbeste negar zuri  
ez ezazu ai geiago hola  
malkorik arren isuri

## GAIARI JARRAITZEN

## NERE ANDRE HONEKIN

*Senarra:*

- 1) Nere andre honekin  
txit hasarre nabil  
izan ere halako  
maritxua dabil.  
Senarragana ez da  
errenditzen umil  
obeditzea baino  
naiago luke hil.

*Emaztea:*

- 2) Obedituko nuke  
merezi bazendu  
errespetua inoiz  
norberak galtzen du.  
Oker zabiltza eta  
nik ezin zuzendu  
gure kasketa beti  
horrek ekartzen du.
- 3) S.: Nere andre Jazintak  
hartu dira gala  
bertso berriak jarri  
behar dizkadala.  
Kulpa gabe hasitzen  
bazerade hala  
gauza jakina dago  
gaiztua zerala.
- 4) E.: Publikuan diozu  
gaiztua naizela  
nik esango dizut zuk  
merezi bezela.  
Ia danak aditzen  
jarri ditezela  
igarriko dizute  
gaizki zabiltzela.

5) S.: Sekulan egin izan  
ez dizut gaitzikan  
al dezakedanean  
mesede baizikan.  
Aditzen badizut nik  
horlako hitzikan  
bizkarrian ez dezu  
izango hotzikan.

6) E.: Beti beti beldurrez  
hemen nadukazu  
edanekuan beintzat  
zitala zera zu.  
Horditu gabe berriz  
onik ez daukazu  
nerekin bizitzeko  
mudatu biazu.

7) S.: Itxuari pegatzen  
diozu poliki  
zuk ondo jan eta ni  
gosiak iduki.  
Senar-emaztientzat  
hau ez da egoki  
makila dantzatutzen  
hasiko naiz aurki.

8) E.: Makilarekin baldin  
ni jotzen banazu  
egun asko baino len  
damutuko zaizu.  
Itxu aurreko beti  
ibiltzen nazu  
zuloren batian hor  
gelditu biazu.

- 9) S.: Ni zuluan sartzeko  
zaude pregonatzen  
ta len berriz gosiak  
naukazu penatzen.  
Zerorrek badakizu  
ondo gobernatzen  
eta ni miserian  
gosez akabatzen.
- 10) E.: Jan edanak balio  
ez du zuretzako  
hioen paltan ez zaude  
zimur eta plako.  
Bai inbirioso ta  
txarra zeralako  
ezin eramana zuk  
andriarentzako.
- 11) S.: Zeinek sufrituko du  
gauza hori hala  
nabilki arto hutsa  
jango nukiala.  
Hanka hankari eman  
ezin diodala  
zu berriz gobernatzen  
beti eginala.
- 12) E.: Gosiak ez zaude zu  
gezurra da hori  
ez egonagatikan  
eder eta guri.  
Suangila jandako  
katua diruri  
beretzako hau ezin  
gustatu inori.
- 13) S.: Lotsagabeagorik  
andria zu baino  
inoiz ere ikusi  
ez det oraindaino.  
Ez da desondratutzen  
inor hortaraino  
enparatutzen nazu  
atzeko alderaino.
- 14) E.: Gabetan horditua  
asko ibilitu  
goizian gogorik ez  
jan gabe gelditu.  
Zere lanak ez baino  
horrek galtzen zaitu  
ta zuk horlakorik nai  
ez dezu aditu.
- 15) S.: Horiek esatia  
ez dira komeni  
zedorrek ez dezu ta  
lotsa eman neri.  
Jendeak badaduka  
hor zenbait armoni  
txit bajeza haundian  
nazu ni ipini.
- 16) E.: Gizona nai duanak  
hobea hartu beza  
ez zu bezin zitala  
eta prestu eza.  
Ezertako ez zeran  
geldo ezereza  
ta eman naian neri  
daukazun bajeza.
- 17) S.: Hitz txar asko esaten  
dituzu nigatik  
ia atera nazu  
pazientziatik.  
Jendia farrez dago  
aldamenetatik  
ezin ariko zera  
horrelaxen beti.
- 18) E.: Haundiaguak ere  
oraindik baditu  
nere gizon txar honek  
esango banitu.  
Zelebregorik ez  
dezute aditu  
esaten daukat lotsa  
ezin atrebitu.

19) S.: Nik ikusitzen ez da  
zuk nai dezuna egin  
beti neri pegatzen  
ta gaizki hitz egin.  
Nik asmatzen dizkitzut  
txit gutxi huts egin  
zurekin biziitzen  
ez dago atsegin.

20) E.: Ez zaude zirrikari  
gutziz gustosua  
hordia ta eskasa  
pantasiosua.  
Deskonfiatua ta  
errezelosua  
beti bildurrez dabil  
zure andre gaxua.

21) S.: Gezurrak sumatutzen:  
dadukazu neke  
lotsagatik bestela  
esango zenduke.  
Aspertu ere gabe  
ariko zinake  
nere tatak esaten  
baldin baneuzkake

22) E.: Ai Joxe Inazio  
ez zabilta justu  
hitz geiegi dituzu  
nere kontra nastu.  
Andriak horrelako  
tatxarikan ezta  
gezurrak esateitu  
ez zuri sinistu.

23) S.: Gezurtia naizela  
horra neri esan  
haundienetakua  
naiz zedorri izan.  
Aurria hartzen dezu  
falsuaren gisan  
nik ezagutzen zaitut  
zergatik zabiltan.

24) E.: Hasiera bezela  
guk errematia  
alperrikan da zuri  
ondo esatia.  
Horren buru gogorra  
gizona izatia  
ez dezu balio ta  
ixildu zaitia.

## AIA JARRITA

orain nola dena zuek egiten duzuen, gaiari erantzunik. Kopla txikian GAIA  
JARRITA atalean esanikoak errepasatzea komeni da, kopla haundirako ere  
ozkoak baitira.

ona gaia:

**Ifernuan zaudete. Zer moduz hortik?**

maitu ahala, jaso eskua. Bat. Bi. Hiru. Lau. Asko kostatzen al da? Bost. Sei...  
i! Has gaitezen kantatzen. Neuk emango dut txanda, elkarri bertsoa jaten ez  
tzeko. Tralaralarala...

*Ekinaldia amaitzean, elkarrizketa bat. Zer moduz? Zaila? Eta abar. Kopla  
txikian egiten genuen bezala.*

har haiei jarrai, beste gai bat denon artean hauta dezagun. Bota gai batzuk.



*Azkenean, demagun hauxe hautatzen dela:*

**Zerri bat hegan**

Hona ideia posible batzuk puntu baterako:

**Harrigarria zerri bat hegan  
Zerri bat hegan eta hegorik gabe  
Hegan zihoan zerria heriotzari ihesi**

Batekin osa dezagun puntu bat:

**Hegan zihoan gure zerria  
heriotzari ihesi**

Orain bigarren puntuko oina. Adibidez **MEREZI**. Eta puntua osatu:

**Hori egiten duen piztiak  
ez du gantxorik merezi**

Azkena lehenbizi:

Idea: **Zerri bat hegan eta hegorik gabe**

Puntu osatua:

**Zerri bat hegan joan zaigu eta  
gainera hegorik gabe**

Orain lehen puntua. Zein oin? **DIRADE**, adibidez.

Idea: **Gure etxean harrigarriak gertatzen dirade**

Puntu osatua:

**Gure etxean harrigarriak  
gertatzen ari dirade**

Orain hau lehenbizi eta aurrekoa bigarren kantatzea besterik ez dago:

**Gure etxean harrigarriak  
gertatzen ari dirade  
zerri bat hegan joan zaigu eta  
gainera hegorik gabe**

Lehenbizi, beraz, azken puntuko oina, gaiaren inguruan dabiltzan hitzetan hartua. Zerri hegalaria honen kasuan: **Zerria, hegan, ikusi, airean, harrigarria**

dezagun orain HARRIGARRIA. Honekin errimatzen duen beste bat  
RIA bera izan liteke. Orain bi oinokin ez da zaila gaira sartzea:

**Txori haundi bat zela usterik  
hegan zihoan zerria  
milagroa den ez dakit baina  
bai gauza harrigarria**

## **LIBREAN**

Es hemen ere kopla txikiko GAI LIBREAN esanak. Demagun orain afalondo  
n gaudela. Dozena erdiren bat kantatzeko moduan zaudetenean, kantatzen  
to gara. Gaia, beraz, afal ondoko giroa duzue. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost. Sei...  
ta dezagun.

ibidez:

**Afalondoa heldu da eta  
banoa kantuz hastera  
ea giroa piztutzen dugun  
kopla batetik bestera.**

**Nik ere kantuz hasi behar dut  
hortarako baikaude gu  
nire alboan dagoen honek  
sabela bapo bete du.**

**Hau da bigarren afaritxoa  
hola egiten duguna  
ez gaude hemen leku txarrean  
argitu arte eguna.**

garren afaria» aipatu dugu. Agian aurretik gehiago ere eginak izango dira.  
an afaritxo bat behintzat beharrezkoa da, honelako eskola lagunarte onez  
ateko. Kopla txikiko lehen afarian emaniko ohar mordoari erreparu on bat  
tea ez da gaizki etorriko.

## ERREZITAPENAK KOPLA HAUNDIAN

## IJITUENAK (Txirrita)

- 1) Esplikatzera noa kontuak  
ijitu jende hoiinak  
nola diraden gure artian  
gertatu izan direnak.  
Alperrak edo mozkorrak dira  
erdi lapurrak geienak  
okasiua ta eskandalua  
faltatutzen etzaienak.
- 2) Beren asto ta zakur ta ume  
hemen dabilta jai ta aste  
mikeletiak inoiz aurrian  
atera izan dituzte.  
Berak baino len ostera etorri  
ta persegitzen gaituzte  
beste halako naziorik bat  
inun denik ez det uste.
- 3) Beren asto ta zakur ta ume  
dabilta joan etorrian  
emakumiak lasto petresto  
kasikan larru gorrian.  
Gizonak berriz mozketa aitzaki  
beren haizturak gerrian  
sinalien bat utziko dute  
sartzen badira herrian.
- 4) Emakumiak haurrak hartuta  
eskera dijoaztenian  
etxeko andre, limonatxo bat  
Jainkuaren izenian.  
Ofrezimentu luzia baino  
errezo motza azkenian  
gauza guztiak gero berentzat  
inor bistan ez danian.
- 5) Kojitatuko aberiak  
nola nai duten jokatu  
hemen ostu ta haruntz eran  
han saldu edo trukatu.  
Hanguak berriz honuntz eta  
jabiak ezin topatu  
kontu garbia nai duenak eta  
ijituakin tratatu.
- 6) Ijituetan gutxi izaten  
dirade berriz antzuak  
naturalezaz kasta gogorrek  
ta gainera umetsuak.  
Bizkarrian bat tripan bestia  
aldamenetan batzuak  
sail galantakin ikusten dira  
dabiltzala geientsuak.
- 7) Usandutako okelak jaten  
dira pare gabekuak  
anima salbo zakur gosiak  
diraden bezelakuak.  
Naiz izan usteldu ta lurpian  
luzaro egondakuak  
istimatutzat daramazkite  
horiek horrelakuak.
- 8) Sasietako oihalak eta  
oila kojitzen atsuak  
ta kalietan poltsak miatzen  
dabilta mutil gaiztuak.  
Gizonak berriz mendietatik  
bihorrek eta astuak  
gauza gozorik senti badute  
azkar erantsi eskuak.



1) Irakur ditzagun hasierako bertsoak behar den erritmoz.

Orain errezita ditzagun erritmo berean. Errezitatzea irakurtzea baino errezago gertatzen da. Zerbaitegatik hurrek errezitatuz irakurtzea maite dute. Errezitatuz ez ezik, modulazio txikiak eginez ere bai.

2) Orain errezitapenak inprobisatuz. Kopla txikian esaten genuen bezala, zertahi esan eta aurrera. Ez dago errimatu beharrik.

Adibidez:

a) Dena bosnaka:

Orain hasten naiz / errezitatzen  
gero zer egin / pentsatu behar  
zuek hor eta / ni berriz hemen  
aurrean dena / kantatuko dut  
orma galanta / zuritu berri  
eta leihoa / zabal zabalik

b) Zortziko haundian:

Berriro ere / hastera goaz  
eta aurrera / jarraitu  
bakoitzak hemen / ahal duena  
egiten du ta / hor konpon  
mendi galanta / daukat aurrean  
bestela lasai / nago ni

Eta abar.

Zeresanaren eragozpena nolabait gainditzeko bidea kopla txikian ematen genuen: deskribapena eta narrazioa.

a) Bosnaka dena:

Gazia  
grazia  
ikasia  
eskasia  
irabazia  
fantasia  
garrasia  
orrazia

Eta abar.



b) Zortziko haundian:

Itxasoa da / oso gazia  
Itxasoa da / oso gazia  
ez naiz oraindik / hain ikasia  
orain ordea / zer eskasia  
jornal ziztrina / irabazia

Eta abar.

b) Zortziko haundian:

Itxasoaren / gainean dabil  
benetan aire / gazia  
hemen badugu / bertso naiz kopl  
entrenatzeko / grazia  
asko eginda / ere ez uste  
inor denik i/kasia  
dema hau noizbait / izango al da  
guk hemen ira / bazia

Eta abar.

Ikusten duzueenez, azken ariketa honetan **IKASIA** eta **IRABAZIA** erditik etenik datoz. Erritmoak erdian harrapatzen ditu. Zortzi silabako lerroan hori zilegi da. Etena hamar silabako lerroan bakarrik eskatzen da. Baina aurrerago esana dugun hor ere ez dela hain estuki hartzekoa. Zortziko lerroan ere errespetatu behar balitz, hiru silabatik gorako hitzik ezin izango genuke sekula ointzat hartu.

Orain ea nor animatzen den. Har zerrenda hori goitik behera eta zeinek denboran gehiago egin.

- 4) Oin zerrendarik eman gabe errimatzeke gai denik bada, eman aukera. Baina errimatu beharrak neurrirako oztopo gehiegi jartzen badio, moztu. Hemer neurria lantzen ari gara. Errimarena geroago etorriko da.

## XVIII

### BETE LANA

#### PRIMADERARI (Xalbador)

1)

Apirilean goiz eder batez  
goizik bainintzan atzarri  
eta ohea uzteko nagiz  
nindagola pentsalari.  
Etxe aintzineko sagar arbolan  
xori bat zagon kantari:  
gau hartan zerbait gertatu zela  
beha nezon kanpoari  
negu zitalak lekua utzi  
ziola primaderari.

2)

Ene barnean senditu nuen  
gazteko sugar piztura  
bihotza berriz airatu zautan  
kanpoko xori xixtura.  
Lur gain guziak galdua zuen  
negu beltzeko histura  
niganik ere aldaratu zen  
zahartzearen tristura  
etsipena zen leku guzitan  
argi berri bat piztu da.

3)

Sasu zokotan gordez egonik  
neguko hotz gogorretan  
egun xoriak kanta ta kanta  
ari dira arboletan.  
Andere espos batzu iduri  
pentze guziak loretan  
aitor dezagun ageri dela  
Jainkoa bere obretan  
horiek oro harek eginak  
gizonaren ohoretan.

4)

Belar berriak berdatu ditu  
zelaiak ta mendi gaina  
kukuak bere kantu ozenez  
atzar arazi oihana.  
Etxeko andreak lili pollitez  
apaindu dauku mahaina  
bihotzeraino sartzen zaukula  
lore berrien usaina  
fededun batek nola ez mirets  
hor Jainkoaren dohaina?

5)

Xori pareak ikusten ziren  
bel'izpi bana mokoan  
erasiaka han zabiltzala  
sar ateraka sasuan.  
Jainkoak berak erakatsirik  
dakiten soinu gozoan  
ohantze berri baten egiten  
elgarren amodioan  
maitasun hortan sortu beharrak  
diren umeak gogoan.

6)

Horra xoriek kafi berriak  
beren umentzat prestatu  
eihar zorian zen landarea  
izerdi berriz freskatu.  
Larrazkenean buluzi ziren  
zugaitzak berriz ostatu  
erradazue aldaketa hau  
nori etzaion gustatu  
ukan duguna baino geiago  
zer ginezake eskatu?

7)  
 Xoraturikan kanporari so  
 iragan ditut orenak  
 bixtan nituen bizi huntako  
 dohainikan ederrenak.  
 Niolarikan: norentzat bada  
 gauza eder hauek denak?  
 Nola ahantzi itsuak eta  
 presondegian daudenak?  
 Primaderaren edertasunik  
 ikusiko ez dutenak!

8)  
 Primaderaren iduria da  
 gizonen gaztetasuna  
 apirilean entzuten diren  
 xori kanten oihartzuna.  
 Indar guzia berekin dauka  
 gainerat edertasuna  
 gazte maitea, estima zazu  
 zutan duzun ontasuna  
 zein ederra den ikasi gabe  
 iragan behar zaizuna.

bertso batean hitz asko dira. Esaldiak ere mordoa. Sarritan ideia bakarra izaten  
 bertso horretan kantatzeko. Ideia bakarra hitz gutxitan buka liteke. Gehienik  
 esaldi pare bat, bata bestearen mendeko direlarik. Zerez bete gainerako bertso  
 ia?

idea bat, soilena bada ere, desarroila liteke, zerbait haren inguruan gehituz.  
 tima honek gehienez ez du bertsoarako balio. Ideia bat desarroilatzeak funts  
 asiak aurretik botatzen direla esan nahi du. Gero desarroilapenean garrantzia  
 xiagoko aipamenak etorriko dira. Bertsoan, ordea, garrantziarik gehienekoa  
 enerako utzi behar. Pisu nagusia azkenari zamatu behar zaio, bestela bertsoak  
 o galtzen baitu. Beraz, azkena aseguratu behar da gehienez. Nola? Zuzenean  
 tena pentsaturik. Iharduera honen arrazoi teknikoak eta psikologikoak  
 TZAREN KIROL NAZIONALAn agertzen dira, 50. orrialdetik aurrera.

azkena aurren pentsatzen baldin bada, aurrea hiru erataria bete liteke,  
 kapen bat nolabait egiteagatik.

- 1) Bertsoa hasieratik mamitsu eraman
- 2) Bertsoa azkenerantz eraman
- 3) Betegarriak soilki sartu

phenengoa ez da batere erreza, bertsolari eginengan ere, bat batean ari direnean  
 intzat. Bertso jarrietan beste gauzarik da.

igarrena litekeena eta behar dena da, bat batean batez ere. Hirugarrena  
 arrenaren antzekoa, baina betegarriak nabarmenago sarturik. Azkena zartada  
 egabea da, aurrekoarekin zerikusi gehiegi gabe, logika zorrotzez behintzat.

aina kontuz. Lotura logikorik ezak ez du loturarik eza esan nahi. Bertsolaritzak  
 e logika berezia dauka, inguruak emana batez ere. Alde batetik bat batekoa da  
 bestetik taldekoa. Bi edo gehiago kantari eta jendaurrea beti.

Nola bertsoa azkenerantz eraman? Edo nola besterik gabe betegarriz osatu Horixe da lortu beharreko trebetasun nagusietariko bat.

Honetan esan beharra dago bete lana ez dela balio gutxiko lana. Gauza bati bete lana beti berdintsua eta arrunta izatea. Bete gauza berak edo berak errepikatzea. Hori bete lan urria eta itxusia da.

Bete lan anizkoitza eta berria, ordea, artea da. Ondo egiten jakinez gero, bere bikaina eta dotorea. Hortxe dago trebetasuna. Bertso polit askoren balioa bete horrentantxe dago. Ez da, beraz, lan alferrekoa, funtsezkoa baizik. Bat bati bertso gintzan bertso guztiak hasieratik ideiaz kargatzea, egiterik balitz astunegia litzateke entzuleentzat. Burua etengabe mailukatzea bezala. Bertso guztiaren zaulitasuna eta dotorezia bete lanaren gorabeheran dago asko.

Bete lana artea dela esan dugu. Ba al da, arteraino ez bada ere, minimo gutxienez heltzerik? Ba al da ideia soil batez bertso osoa betetzerik, eta poliki poliki ere? Horretara goaz.

## 1) AZKENA PENTSATU

Hona hemendik aurrera estuki bete beharreko araua. Bertsoaren azkenak aseguruatu behar da eta gero aurrea bete, nahiz eta kantatzen aurretik hasi, jakin Estu eta indartsu. Azkenak zehatza eta indartsua izan behar du. Indartsu hasi motel amaitzea desengainua da. Dela koplak, dela bertsoak, arau hau bueltatzea izan bedi aurrerantzean. Beste gauza bat da norbere buruarekin segurtasun sentitzen duena aldasbeheran oldartzea, non amaituko duen pentsatu gauek Hauek beste maila batzuk dira, ez ikasten ari direnentzat.

## 2) AZKENAREN ARIKETAK

Hona hemen zenbait koplaren amaiera posible batzuk.

Kopla txikian:

**Buru geiago daukak  
talentua baino**

**Ez al dizute esan  
tentela zarela?**

Koplan haundian:

**Amets ederren okerrena da  
amets hutsa izatea**

**Nik ez dut ezer ostutzen baina  
bai dagoena eraman**

puntuok koplaren azkena dira. Horixe da kopla horretan esan behar  
na. Edo esan nahi duguna. Baina hori esateko, zerbaitez bete behar aurrea.  
egin? Aurreko puntuan pasoko gauza bat esan. Edo bigarren hori esateko  
prestatu.

enbizi oinak behar ditugu. Hona adibidez:

**Oraino - Txapela - Atea - Eman**

in oin bakoitz horrekin zerbait esan bigarren zartada prestatzeko. Hona oin  
kin aurreko kopla erdiak osaturik.

pla txikian:

**Holakorik ez huen  
entzungo oraino  
buru geiago daukak  
talentua baino.**

**Buruaren gainean  
omen da txapela  
Ez al dizute esan  
tentela zarela?**

pla haundian:

**Izan dadila leihoa edo  
izan dadila atea  
amets ederren okerrena da  
amets hutsa izatea.**

**Nire berririk ez badakizu  
orain behar dizut eman  
nik ez dut ezer ostutzen baina  
bai dagoena eraman.**

anta ditzagun kopla hauek denon artean. Kantatu ondoren, solas batzuk egingo  
gu, ea zer iruditu zaizuen eta abar.



## XIX

### BETE LANA LANTZEN

#### AITA SEMEAK (P. M. Otaño)

- 1) Lagundurikan danoi  
gugatik hil zanak  
seme, hazi zaitugu  
aitak eta amak.  
Beti zure gidari  
izandu geranak  
orain gurutze honen  
oinetan esanak  
ondo goguan hartu  
biaituzu danak.
- 2) Zu Ameriketara  
joatia hemendik  
jaunak hala nai badu  
zer egingo det nik!  
Han ez dezu izango  
aitik eta amik  
baina etzera galduko  
noranaira joanik  
ez bazaizu aztutzen  
gaur hemen esanik.
- 3) Gorde zazu buruan  
eta bihotzean  
aitak zer esan zizun  
honuntz laguntzean.  
Bitartek harturik  
Jesus gurutzean  
Bitarteko harturik  
batek aztutzean  
ez leike ondo izan  
denbora luzean.
- 4) Ez nizuke utziko  
joaten egietan  
gure erlijua  
ez balitz han bertan.  
Iritxiko bazina  
hain urrutietan  
herri ta eleizarik  
ez dan tokietan  
oroï zaitetz Jainkoaz  
leku guzietan.
- 5) Seme, izan goguan  
zere gurasuak  
eta uzten dituzun  
senide gozuak.  
Jaio zinan tokiko  
mendi ta basuak  
euskerazko otoitzak  
eta errezuak  
erakutsiak zure  
amatxo gaxuak.
- 6) Iritxi da ordua  
joan behar dezuna  
badakizu aitamak  
hemen daukazuna.  
Ez dezazula aztu  
gaur neri entzuna  
hitz baterako hau da  
eskatzen zaizuna  
izan zaitetz nonai ta  
beti euskalduna.

## UME EDER BAT (Iparragirre)

- 1) Ume eder bat ikusi nuen  
Donostiako kalean  
hitz erditxo bat hari esan gabe  
nola pasatu parean!  
Gorputza zuen liraina eta  
oinak zebiltzan airean  
politagorik ez det ikusi  
nere begien aurrean.
- 2) Aingeru zuri paregabea  
Euskal Herriko alaba  
usterik gabe zugana beti  
nere bihotzak narama.  
Ikusi naian beti hor nabil  
nere maitea, hau lana!  
Zoraturikan hemen naukazu  
beti pentsatzen zugana.
- 3) Galai gazteak galdetzen dute  
aingeru hori nun dago?  
Nere maitea nola deitzen dan  
ez du inortxok jakingo.  
Ez berak ere ez luke naiko  
konfiantza hortan nago  
amorioidun bihotz hoberik  
Euskal Herrian ez dago.

Pasoko gauza horiek esatea nahiko zail iruditzen da lehenengoan. Aurreko ataleko kopletan norbaitek pentsa lezake hartarako pentsatuak bezala zeudela. Baina lehen puntuetan, hor jarri zirenak bezala, beste hainbat eta hainbat jar zitekeen, segun zein oin burura datorren.

Ikusi behar dena da ea edozein oinez ba den zerbait pasokorik esaterik. Egin dezagun oin zerrenda bat. Adibidez:

ARDOA

Noa

Doa

Daroa

Ahoa

Haroa

Azaroa

Igaroa

Eroa  
Geroa  
Beroa  
Panderoa  
Hegoa  
Bulegoa

Har dezagun lehen hitz ARDOArekin puntu posibleetariko bat:

Ura ona da baina  
hobea ardoa.

Goazen orain azken horri aurrea beteez, bakoitzean oin desberdin bat harturik:

Arrazoi bat oraintxe  
esatera noa  
Ura ona da baina  
hobea ardoa.

Hamaikagarren hila  
denez azaroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Gezurra bada ere  
egitzat hor doa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Batetikan bestera  
nauzu igarora  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Batak eta besteak  
berea daroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Ez pentsa horregatik  
naizenik eroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Ondo aprobatua da  
nire ahoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Orain oraina eta  
geroan geroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Sabela delarikan  
bien abarora  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Bata da hotza eta  
bestea beroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Kanpoan naiz barruan  
hau duk hau haroa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Horrek jartzen du martxan  
nire panderoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Norbait dagoenean  
mozturik hegoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Hau bai dela edale  
finen bulegoa  
ura ona da baina  
hobea ardoa.

Zer deritzazue bete lan hauei? Batzuk agian lotura gabeak dirudite. Bai? Kanta ditzagun eta ikus ea nola ematen duten belarrira.

*Har «Xarmagarria» doinua eta koplak erdia kantatu batek, bigarren puntua beti bera delarik eta denen artean kantatuz.*

Orain zer deritzazue? Balio al dute? Hain zaila al da edozein oinez zerbait betegarririk asmatzea? Egin dezagun aproba bera koplak haundian:

LANA  
Dana  
Emana  
Plana  
Imana  
Daukana  
Labana  
Zuregana  
Afana  
Porlana  
Jana  
Edana  
Dudana  
Bakana

Demagun koplaren azkena hauxe dela:

Lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Bete dezagun orain lehen puntua beste oinekin:

Zoritxarrean hori da mundu  
honetan gertatzen dana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Ez dakit egin litekena den  
baina horra nire plana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Gauden moduan gaudela bada  
kolpea nori emana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Diruarentzat batzuk daukate  
nik ez daukadan imana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Pobrearentzat gure mundua  
hain zaila eta labana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Ez badakizu esplikatzera  
etorri naiz zuregana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Ez da naikoa hau zuzentzeko  
gogoa eta afana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Batzuk buruan behar lukete  
karea edo porlana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Krisisak ia ito gaitu ta  
laster faltako da jana  
lapur guztiak kentzen  
gizaldi guztiko lana.

Egi bat esan behar dizuet  
ez nago, jaunak, edana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Nai duzuen a pentsatu baina  
hau da nik uste dudana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Jendaila hori ez uste denik  
hain animala bakana  
lapur guztiak kentzen badago  
gizaldi guztiko lana.

Kanta ditzagun koplak hauek lehengo koplak txikiak bezala eta ea zer iruditzen zaizuen.

*Une honetan ikasleekin elkarrizketa zehatza behar da. Irakasleak auzia ondo zentratu behar du. Horretarako lehenbizi berak jabetu behar du ondo. Ez da agian erreza gai hau ondo zentratzea. Ez da izan ere auzi zehatza edo matematika, eremu lanbro samarra baizik. Hona kontutan eduki beharrekoak:*

1) *Pasoko gauza esaten dugunean, oso gauza zabala eta generikoa da. Zer-bait apropos eta hartarakotzat esaten ez denean, betegarria dela esan genezake. Honetan norbere ustea eta entzuleena bat ez izatea baliteke. Norberak gauza haundizat bota eta entzuleei betegarri hutsa irudit.*

2) *Aurreko punturaren eta azkenaren lotura ere oso erlatiboa da. Lotura logikoa eta hurbila lotura mota bat besterik ez da. Loturak ere egiten diren modukoak dira. Baliteke puntu batek beste batekin loturarik ez duela iruditzea. Baina kontutan izan bertso guztia ez dela azalpena, artea baizik. Neurria, errima, erritmoa, hitzen hotsa, kontestu hurbila, jendaurrea eta osagai asko dauka bertsoak. Are gehiago, irakurririk aldrebes samar ematen dutenek, kantatzean, beste itxura bat har dezakete. Arau hau auspoa bezala da, beraz. Baina auspoa izatetik lapikoa izatera badago alde. Loturaren kontzepturik zabalenean ere, nahi baino sarriagotan aldrebeskeriak gertatzen dira. Ideiaz oso urrun edo zerikusirik ere ez eta beste hurbilgarri literariorik ere ez. Akordeoia jotzen hasi eta lapiko zaharra. Non dago muga? Ez dago muga zehatzik.*



3) *Hemen minimoari begira gaude. Ideia batekin bertso bat moldatzeko modua bilatzen ari gara. Minimoak ez du gutxi esan nahi. Minimo hori poliki samar eginez gero, gauza haundia da. Horrek ez du esan nahi bete lana baino hoberik ez dagoenik. Bertsoa goitik beheraino kargatzen duenak beti egingo du lan hobe, kargaera astunegia ez bada. Baina bertsolaririk onenek ere, bat batean behintzat, etengabe baliatu beharko dute bete lanaz.*

4) *Zerbait praktikora jorik, hemen egin bezalako ariketa ugari egin behar da. Egin eta eztabaidatu, ikasleengan sen zabal hori lurra hartuz joan dadin. Horretarako, teoriak, puntu bat eman eta haren oinaren oinkide guztiekin egin liteke aurreko bete lana, ideia harekin loturik. Oinkide «guztiekin» esan dugu. Horrek ez du denekin berdin esan nahi. Hor dago gorabehera nagusia. Oin horiek bost maila gramatikaletan berezten dira: Aditza, adberbioa, izenordea, adjetiboa eta izena.*

*Errima bereko oin guztiekin zerbait egin liteke. Baina oin batzurekin zerbait ez ezik, ideia desberdin asko esan liteke. Era askotara molda liteke. Zenbat eta era eta kasu gehiagotarako egokitzekoak izan, hainbat eta baliagoak izango dira. Oina zenbat eta konketuagoa izan, hainbat eta zailagoa izango da kasu desberdinetara egokitzen. Honetan, maila gramatikal bezala, izenak dira arriskutsuenak.*

*Aditza esaldien bizkarhezurra da eta egokiera haundia dauka. Adberbioak aditzaren lagunak dira eta beraz garrantzitsuak. Gainera ez dute deklinatu beharrik eta hori abantaila haundia da. Izenordeak ez dira asko, baina direnak oso baliotsuak dira. Adjetiboak ere aberatsak dira, baina eragozpen bat daukate, deklinatu beharra, alegia.*

*Teoria hau zehazki azaldurik dago HITZAREN KIROL NAZIONALAn OINEN SAILKAPENA izeneko atalean, 163. orrialdetik aurrera eta zuzenki BALORAPENA izenekoan, 168.etik aurrera.*

## BETEGARRIEZ TREBATZEN

## ARBOLA BAT (Arrese Beitia)

- 1) Arbola bat zan Paradisoan  
Jaunak apropos jarria  
mundu guztiak hartu egion  
lotsa ta itzal handia.  
Bere azpian bizitea zan  
Aita Adanen gloria  
handik kanpora zer topau eban  
ez bada negargarria!
- 2) Arbola santu haren azpian  
bizi zan zeruan legez  
eukazalako atsegin danak  
eta nekerik haperez.  
Ai begiratu baleutsa beti  
lotsa on eta itzalez  
mundua etzan gaur aurkituko  
honenbeste atsekabez.
- 3) Arbola bat zan Bizkaian bere  
neure anaia laztanak  
zeinen azpian pozez beterik  
egoten ziren asabak.  
Kerizpe zabal hartan jarririk  
eginda heuren batzarrak  
buztarri baga nasai ta libre  
bizi ziran bizkaitarrak.
- 4) Bere azpian umildu ziran  
errege Gaztelakoak  
eta lekurik ez eben izan  
sekula barriz moroak.  
Atzera gura badogu izan  
libre len ginan lakoak  
itxi daiguzan erdaldunentzat  
erdaldun diran kontuak.
- 5) Aztu daiguzan gure artean  
izan diran hasarreak  
izan gaitean anaiak eta  
euskaldun zintzo garbiak.  
Betor guraso zarren fedea  
betoz asaben legeak  
bere negarrak lehortu daizan  
ni jaio nintzan herriak.
- 6) O neure herri maite maitea!  
Zakustaz triste negarrez  
zure alabak heuren buruak  
baltzez estaldu dituez.  
Trentza mardoak tiraka atara  
ta sutara bota dabez  
gaur euskaldunak diranik horrek  
ezin ezagutu leikez.
- 7) Isildu ziran neskatxen kantak  
mututu artzain txistuak  
zelai zabal ta jolas lekuak  
gaur dira basamortuak.  
Arroak bera itxasoruntza  
doiazan errekatxoak  
gau eta egun txilioz dagoz  
ai gara Gaztelakoak!
- 8) Bakarrik dakust pozgarritxo bat  
euskaldun amen fedea  
benturaz honek bigundu leike  
Jaungoikozko hasarrean.  
Eta zerutik jatxi barriro  
galdu zan libertadea  
mundua mundu bizi dakigun  
Gernikako Arbolea.

Teoriaz gainera, ariketaz batez ere frogatu behar da sen hori. Oin zerrendak jarri eta ari, kantatu eta elkarren artean eztabaidatu. Oin zerrenda guztietan agertuko dira hitz baliotsuagoak eta beste batzuk egokigaitz gertatzen direnak. Goazen ariketara. Egin dezagun denon artean zerrenda bat. Adibidez:

### BALITZA

hitza  
bitsa  
giltza  
bortitza  
murrirtza  
bizitza  
bertsolaritza  
haritza  
lapitza  
gabilitza  
sasitza  
irritsa  
mintza  
eskutitza  
ihintza

eta abar.

Hona azken puntu posible bat, koplak txikian:

Hobe mundu hau dena  
zirkua balitza.

Orain beste oinekin bakoitzak azken horri aurrea bete.

*Bakoitzak denak edo batzuk egindakoan kantatu eta elkarriketa.*

Orain ariketa bera koplak haundian. Oin zerrenda denon artean. Adibidez:

### ATERA

batera  
gera  
bera  
norbera  
behera  
sobera  
alegera  
bupera  
aukera  
tobera

ohera  
joera  
galera  
aurrera

eta abar.

Hona azken posible bat:

Suge zulotik ezin liteke  
usakumerik atera.

Orain bakoitzak beste oinekin azken honi aurrea bete.

*Kantatu eta elkarrizketa. Irakasleak ikusi behar du zenbat honelako ariketa egin behar den. Ez da, jakina, dena era batera egitekoa. Ariketa hau eta besteak ere sarritan egitekoak dira, ekinaldi batean denak asper erazi gabe.*

## BAT BATEAN

Ariketa hau bat batean ere egin liteke. Oin zerranda bat jarri. Adibidez:

Dela  
batela  
sabela  
arbela  
motela

eta abar.

Nik azkena kantatuko dut eta zuetariko batek hurrengo oinarekin aurrea bete.

Irakasleak:

Uste dut eskola hau  
parranda bat dela.

Ikasleak:

Balantzaka ari da  
gaur gure batela.

Eta abar.

*Kopla hau atzekoz aurrera kantaturik baitago, bigarrenaz kantatzea komeni da, ikasleak berea errepikatuz eta irakasleak ondoren. Horrela bide batez oroi-mena ere poliki lantzen da.*

Kopla haundian berdin. Oin zerrenda lehenbizi. Adibidez:

Atxakia  
ebakia  
irratia  
zattia  
erabakia  
salatia  
zapia  
gizakia

eta abar.

Irakasleak:

Jolaserako beti prest eta  
lanerako atxakia.

Ikasleak:

Nire lagunak bere bizi-tza  
hala dauka ebakia.

Eta abar.

*Hemen ere bigarrenez kantatu, ikasleak berea errepikatuz eta irakasleak ondoren.*

*Saio mota hau bi ikasleren artean ere berdin egin liteke. Azkena botatzen duenak zerbait gehiago esan beharra dauka, jakina, besteak ez baitu bete baizik egin behar. Hauek ere bi aldiz kantatu, baina ordena aldatuz.*



## SAIO OROKOR BAT

## NAPARROARI (Xalbador)

- 1) Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde diot: Aurrean Baztan daukazu giblean Erro alde. Ezkerretarat Eugi herria eskuin alderat Luzaide zure guziak Naparroaren hegalean azpian daude.
- 2) Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik napartarraren odol kartsua zainetan senditzen dut nik. Eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarrirat iganik norbaitek «Atzar hadi!» diola entzuten dut urrundarik.
- 3) Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra titulu horrek lehen hitzean galtzen du bere indarra. Ni beheretar zendako deitu nerez bainaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat. Naparro bat da bakarra.
- 4) Bere zainetan sendi duena hastapeneko odola eman dioten izen mendreaz nekez ditaik kotsola. Ezin onartuz bizi naiz beti murrizturikan dagola bere itzala Baionaraino hedatzen duen arbola.
- 5) Baina enetzat, o Naparroa ez da ezin igarria izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria. Enbor sendoan sartu baitzuten haizkora beldurgarria zure laurki bat bertzerik ez da ni bizi naizen herria.
- 6) Bi aldetarik nagusi bana jarriz geroz Naparroan ez dakit zure etorkizuna zoin ateri buruz doan. Ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan bat gineneko egun ederrak ditut bakarrik goioan.
- 7) Betitikako arrain haundien lege okaztagarriak gaitu napartar anai-arrebak bi taldetan ezarriak. Bainan ele huts dira tratuak itxura huts zedarriak hitzez ta harriz ezin hautsiak dira gure lokarriak.
- 8) O Naparroa, banatorkizu otoika fagore galdez urrikal zaitetz ukatu nahi zaituzten seme alabez. Bertze koroka batek estaltzen bagaitu bere hegalez Baxenabarrek ama zu zaitu guk nahi izan ala ez.

Eginak eginik eta esanak esanik, egin dezagun orain saio bat koplak txikian eta haundian, gaia jarrita. Jendaurrean bageunde bezala, benetako saio bat, orain arte esaniko guztia era batera bildurik.

Badakizue lehenbizi beti azkena pentsatu behar duzuela. Pentsatu bakarrik ez, neurtu ere bai. Lehenbizi azken puntua osatu eta gero aurrekoa bete.

## KOPLA TXIKIAN

Gaia hauxe izan liteke: Egunsentian mozkor bat topatzen duzu etxeke atean. Hasi. Adibidez:

Azkena: Egun on, entzuteko  
moduan bazaude.

Aurrea: Mozkorren bat zara zu  
dudarikan gabe

Orain behar bezala kantatu:

Mozkorren bat zara zu  
dudarikan gabe  
egun on, entzuteko  
moduan bazaude.

Eta abar.

Dozena erdiren bat kantatzeko moduan daudenean, hasi kantuan.

## KOPLA HAUNDIAN

Gaia: Egunkaria zabaldu eta zeure eskela ikusten duzu. Hasi lanean. Dozena erdiren bat kantatzeko moduan zaudetenean, kantuan hasiko gara.

Adibidea:

Azkena: Hau hola bada esan nahi du  
hil eta piztu naizela

Aurrea: Egunkaria zabaldu eta  
hona neronen eskela.

Kantaturik: Egunkaria zabaldu eta  
hona neronen eskela  
hau hola bada esan nahi du  
hil eta piztu naizela.

Eta abar.

## GAI DESBERDINEI KOPLA TXIKI BANA

Orain gai bakoitzari koplak bana emango diogu. Beti azkena lehenbizi pentsatu. Asma dezagun gai sorta bat. Adibidez:

- Txori bat erori da
- Zuhaitz haundi bati
- Lanetik bidali zaituzte
- Ilargia bete beterik dago

Eta abar.

Dozena erdiren batek gai bakoitzari koplak bana egindakoa, kantatzen hasiko gara.

## GAI DESBERDINEI KOPLA HAUNDI BANA

Orain lehengo gauza bera, baina koplak haundian. Esan gai batzuk. Adibidez:

- Asto batek keinu egin dizu
- Ilargitik bueltan zatoz
- Tximista bat zure ondoan erori da
- Zer amets egin duzu bart?

Eta abar.

*Gai bakoitzari koplak bana egitea gehiegi luzatzen den ala ez, irakasleak ikusi behar du. Eta segun zenbat gai sortzen den ere. Hemen lau jarri ditugun bezala, dozena bat ere ager litezke berehala. Orduan zenbat koplak egin aurretik erabaki eta, bariatzeko, batzuk goitik behera, beste batzuk behetik gora, beste batzuk erditik eta horrela egin liteke.*

LAU  
ZORTZIKO TXIKIA

## ABIATZEN

## BERE AITAREN HILTZAILEA

- 1) Jose de Tejeria  
hau nere grazia  
Gipuzkoako Aian  
jaio ta hazia.  
Aita tiroz hil nuen  
horra desgrazia  
esplikatzera nua  
asunto guzia.
- 2) Deabruak animua  
eman bihotzera  
tiroz atrebitu naiz  
nere aita hiltzera.  
Donostira joan gero  
zerbait ekartzera  
egindako okerra  
disimulatzer.
- 3) Gizonak altxa zuten  
aita bizirikan  
ai!, semiak galdu nau  
berak esanikan.  
Gurasoak etzuen  
esan gezurrikan  
gorputza hilda anima  
joan zan mundutikan.
- 4) Paperian jarria  
alde aurretikan  
aitari zenbat eman  
seinalaturikan.  
Eske ari zan beti  
aldamenetikan  
gure enredo danak  
diruagatikan.
- 5) Aitak eskatzen zidan  
legez eta bidez  
egiten niona da  
agindu ta eman ez.  
Buru dana betia  
pentsamentu txarrez  
tirua eman nion  
diruaren ordez.
- 6) Soldadu armadunak  
lotu kurioso  
baita eraman ere  
Azpeitira preso.  
Deklarazio txarra  
egina nik oso  
libratutzeko bihar  
gezurra preziso.
- 7) Aurrena egon nintzan  
uko fuertian  
salatzailea franko  
bazan bitartian.  
Gero aitortu nuan  
egunen batian  
gezur guztiak ziran  
neretzat kaltian.
- 8) Azpeitiko herritikan  
Donosti aldera  
Gipuzkoako buru  
dan tribunalera.  
Akusatua nintzan  
Judasen legera  
gezurrak balio ez  
neretzat galera.



- 9) Gaizki egin nuela  
ondo damutzen zat  
hau eskarmenturako  
beste guztientzat.  
Munduan ez da izan  
oraindikan beintzat  
ume bat txarragorik  
gurasuarentzat.
- 10) Donostian nuan nik  
hartu albistia  
etzan posible neri  
bizirik uztia.  
Hura nere orduko  
lastima tristia  
etzan alegratuko  
nere emazia.
- 11) Donostiko herritikan  
Azpeitira ekarri  
bost guardi armatukin  
kotxian etorri.  
Kartzelan sartu eta  
han nengoen larri  
sententzia tristia  
zuten irakurri.
- 12) Zuzen ta garbi egin  
dute justizia  
badakit nuela nik  
ondo merezia.  
Ilbeltzan hamaseian  
nere sententzia  
goizeko zortziretan  
kentzeko bizia.
- 13) Gaiztua izan banaiz  
horra sujetatu  
sententzi horrek ziran  
bihotza urratu.  
Aita Aizpururekin  
ondo konfesatu  
egindako okerrak  
danak akusatu.
- 14) Pauso bat ezin eman  
nuan ezergatik  
bi lagun banituen  
beso banetatik.  
Urkamendira juan  
ginan kartzelatik  
borrerua begira  
zegoen atzetik.
- 15) Urkamendian nitzan  
eserita jarri  
nere barrena zegon  
estu eta larri.  
Bizia eman bihar  
oso lotsagarri  
beste guztientzako  
eskarmentagarri.
- 16) Barkaziua nuan  
azkena eskatu  
zergatik egin nuen  
lenago pekatu.  
Horregatik behar det  
orain nik urkatu  
Jaungoikuari arren  
nitzaz erregutu.

Orain azken aldian sartzera goaz. Bertso osoa egitera goaz. Ez uste hala ere zortziko txiki bat egitea bi kopla egitea bezala denik. Hitzez edo luzetasunez doblea da. Baina kopla bat egiten dakienak bertso osoaren erdia baino askoz gehiago egina du. Hutsetik kopla txikira askoz ere jauzi haundiagoa dago, kopla txikitik zortziko txikira baino. Berdin kopla haundian ere.

Zortziko txikia osatzeko, batez ere betegarri gehiago behar da. Oroimena ere bai, bat batean denean. Beste elementuak kopla txikian landurik daude. Kopla txiki bat egitea zortziko txiki baten ehunetik hirurogeita hamar edo gehiago egitea dela esanik, ez dugu gezur haundirik bota. Goazen arlora.

Lau oinak emanda. Adibidez:

**Beti  
ireki  
hobeki  
baneki**

Orain lau hitz hauekin nobelatxo bat asma dezagun. Oin bakoitzez esaldi bat. Adibidez:

- Lana egin behar da beti
- Ezin etorkizunik ireki
- Bizi ninteke hobeki
- Nahiago nuke nola baneki

Orain neurtu:

**Lana egin beharra  
asko eta beti  
etorkizunik ezin  
halare ireki.  
Bizi ninteke noski  
gaur baino hobeki  
naiago nuke hori  
nola den baneki**

Lau oinok ez dago emaniko ordena berean eraman beharrik. Nobelatxo hori norberak nahi bezala edo ahal bezala molda lezake, oinen ordena horren arabera harturik. Adibidez:

- Atea nezaizuke ireki
- Nolakoa zaren ez baneki
- Hileta jotzen ari zara beti
- Bizi zara ni baino hobeki

Orain neurtu:

Atea nezaizuke  
agian ireki  
nolako jeneroa  
zaren ez baneki.  
Hileta jotzen ari  
zara hortxe beti  
halare bizi zara  
ni baino hobeki.

*Elkarrizketa. Zer zailena? Kontakizuna asmatzea? Lotura? Bete lana? Eta abar.*

*Ikasleek diotena bildu eta eztabaidatu ondoren, irtenbidea honela zentratu behar da.*

*Lehenbizi, beti bezala, azkena ondo erabaki. Bertsoa nora eramango dugun pentsatu. Azken aurreko puntuan, hirugarrenean, kapotea bota, zezenari pase bat ematean bezala. Azkenari bidea eman. Beraz, lotura zuzen samarra behar du, loturari buruz esaniko erlatibotasun guztiak kontutan direla. Zerbait hurbil samarra, azkena bala galdua gerta ez dadin.*

*Lehen bi puntuak guztiz betegarriak izan litezke. Eta horra bertso osoa egi-na. Hona nola beste adibide zehatzago batez:*

Oinak:           Urrea  
                      Errea  
                      Haserrea  
                      Barrea

Oin hauetariko batekin azkena erabaki behar dugu. Hitzen ordena alda litekeela esan beharrik ez dago. Zein moldatuko dugu azkena? Segun zer esan nahi dugun edo zer datorkigun lehenen gogora. Demagun adibidez norbait ipurterrea dela esan nahi dugula.

Azkena:           Nola liteke hain ipurterrea?

Orain hirugarren puntua. Adibidez, honekin loturik, har dezagun, **BARREA**. Gauza asko esan liteke, lotura hurbil samarra duenik:

- Galdu du barrea
- Sortzen zait barrea
- Garrazturik du barrea

Eta abar.

Idea horiek ipurterrearekin bat datozenak dira denak. Har dezagun adibidez, azkenengoa:

### **Garraturik du barrea**

Orain lehen bi puntuetarako bi oin geratzen zaizkigu. Horiexekin atondu beharra dago. **URREA, HASERREA**. Behin azkena erabakirik edukiz gero, oin hauekin ere nolabaiteko lotura ez da hain nekez etorriko, oso hitz aldrebesak ez badira. Burua ez da hain anarkoa. Zerbait pentsatu badu, haren hurreko pentsamendua urrungoa baino errezago bururatuko da. Ura aldapan behera eramatea gorantz eramatea baino errezagoa den bezala.

Ustez lotura haundirik lortzen ez bada ere, lasai. Egin bete lana. Oso aurka eta urrun ez badoa, bertsoa azkenean bere lekura helduko da, leku hori erabakirik baita azken bi puntuetan. Nola oso kontra eta urrun ibiltzeko arriskua ebitatu? Gauza orokorrak edo konkrezio gutxikoak esanez. Adibidez:

**Mundua dena ez da urrea  
Horrek ematen dit haserrea  
Garraturik du barrea  
Nola liteke hain ipurterrea?**

Orain neurtu:

**Mundu honetan ez da  
guztia urrea  
horrexek ematen dit  
niri haserrea.  
Ai zer garratza daukan  
lagunak barrea!  
Nola izan liteke  
hain ipurterrea?**

*Egin honelako ariketak, konfidantza pixka bat hartu arte. Asper erazi gabe, ordea, hurrengo kapituluan ere gauza berdintsuari ekingo baitiogu.*

## XXIII

# ENTZULEAK ETA BERTSOLARI LAGUNAK

MUTIL ZAHAR BATI (Pello Zabaleta)

- 1) Bertso berri batzuek  
behar ditut jarri  
mutilzar batentzako  
zerbait tentagarri.  
Ezkontzeko asmuak  
omen ditu sarri  
andregaiaren bila  
dabil herriz herri.
- 2) Inor baldin badago  
ezkontzeko zale  
mutilzar hori nor dan  
egin zazu galde.  
Etzera geldituko  
senargairik gabe  
eta egingo zera  
puska onen jabe.
- 3) Nobio jaun hori da  
kosta aldekoa  
Debatikan honera  
etorritakua.  
Langile ona eta  
ezkongai bapua  
edozeinentzako ere  
bazera naikua.
- 4) Hogeita hamasei urte  
oraindik gaztia  
gorputz ederrekua  
txit balientia.  
Suertatzen bazaio  
gustoko andria  
jaiero pasiatzen  
ibiliko dia.
- 5) Jaiero pasiatu  
eguraldi onian  
zinera juango dira  
denbora txarrian.  
Handik biak etxera  
ilunabarrian  
ondo biziko dira  
alkartasunian.
- 6) Neskatxa bat gustatzen  
zaizu Errenterin  
benturaz berak ere  
naiko du zurekin.  
Azkar hobe diozu  
mandatua egin  
engainatu baino len  
besteren batekin.
- 7) Lenbizi pentsatzen du  
puskak egitia  
oia muelle onakin  
ta mesanotxia.  
Maia marmolezkua  
oso dotoria  
beste armario bat  
espiluz betia.
- 8) Ez bazaio gertatzen  
andrerik hartzia  
puskak pentsatuzten du  
irrifan jartzia.  
Orduan hobe dezu  
etsia hartzia  
eta mutilzarraren  
bandera agertzia.



Lehen bi puntuetan gauza orokorrak edo konkrezio gutxikoak esan dugu. Hori bertsoaren azkenari buruz. Baina baliteke oso zer konkretuak sartzea ere, azkenik konpromizoa sartu gabe. Bertsolaritzan ingurua beste ezertan baino funtsezkoagoa da. Lehenago ere inguru hori sarritan aipatu dugu. Inguru nagusia jendaurrea da, bai eta bertsolari laguna edo kontrarioa ere, bakarrik kantatzea salbuespena baita.

Inguru horretan, beraz, jendeari edo bertsolari lagunari hainbat gauza esan lekiok, oso konkretua izanik ere, bertsoaren azkenari oztoporik jarriko ez diona.

Norbere buruari edo norbere buruaz ere hainbat gauza esan liteke, jendaurrean edo bertsolari lagunaren ondoan izan ezik, zentzurik ez lukeena.

Hona lau oin:

Osoa  
Gozoa  
Besoa  
Usoa

Demagun lagunari ziplada bat sartu nahi diogula. Adibidez:

**Lagun hau ez da burutik osoa**

Hirugarren puntua:

**Ez da esateko gauza gozoa**

Orain lehen bi puntuak, geratzen diren oinekin:

— Ni ez naiz usoa  
— Hego ordez luzatzen dut besoa

Orain laurak neurturik:

**Dakizuen bezala  
ni ez naiz usoa  
hego ordez luzatzen  
ari naiz besoa.  
Esatera noana  
ez da hain gozoa  
nire lagun hau ez da  
burutik osoa.**

Lehen bi puntuak entzuleei zuzenduak dira. **Besoa luzatzea** jestuz ere laguntzekoa da. Zer gauza konkretuagorik? Hala ere ez du bigarren zatirik apurtzen.

Demagun orain azken puntuan beste ideia oso desberdin bat kantatu behar dugula. Adibidez:

**Gartzelan egin behar  
bizitza osoa**

**Dakizuen bezala  
ni ez naiz usoa  
hego ordez luzatzen  
ari naiz besoa.  
Esatera noana  
ez da hain gozoa  
gartzelan egin behar  
bizitza osoa.**

Gaizki al dago?

Alda dezagun orain bigarren zati guztia, azkena **GOZOA** oinez utzirik.

Adibidez:

**Auntzarentzat akerra  
haragi gozoa**

Hirugarren puntua orain:

**Itxusia naiz baina  
neurean osoa**

Bertso osoa:

**Dakizuen bezala  
ni ez naiz usoa  
hego ordez luzatzen  
ari naiz besoa.  
Itxusia naiz baina  
neurean osoa  
auntzarentzat akerra  
haragi gozoa**

Ikusten lehen bi puntuek zer ideia desberdinetarako balio duten? Entzulerik aurrean ez balitz, ez legoke baliakizun honetaz jokatzetik. Lagun artean ere jende aurrean bezalatsu da. Ihardun kolektiboa izatean dago gorabehera.

Entzuleengana bezala, bertsolari lagunaren edo lagunengana ere berdin jo liteke.  
Hona lau oin:

Hutsa  
Goruntza  
Gorputza  
Putza

Demagun bigarren zatia honela dela:

Demokrazi hau dugu  
berriketa hutsa  
zerbait bazelakoan  
zakurraren putza.

Orain lehen zatia bertsolari lagunari zuzendurik:

Begira zazu, lagun  
behetik goruntza  
ez al duzu kirrizkaz  
sentitzen gorputza?  
Demokrazi hau dugu  
berriketa hutsa  
zerbait bazelakoan  
zakurraren putza

Alda dezagun orain bigarren zatia, lehenengo berarekin utzirik. Adibidez:

Begira zazu, lagun  
behetik goruntza  
ez al duzu kirrizkaz  
sentitzen gorputza?  
Konparazioz gure  
bizitza da putza  
oraintxe zerbait eta  
bat batean hutsa.

Axularrek sinatzeko moduko bertsoa da hau. Begira zer ideia desberdinen betegarria den lehen zatia.

Hemen azterketa luzeak eta arretagarriak egin litezke, beste helburu batez ari ez bagina. Gure helburua zortziko txikia osatzea da. Horretarako bete lanaz ari gara. Eta bete lan horretarako aproba desberdinak egiten ari gara, ez hainbeste teoriak sartzeko, segurtasun praktikoa ezarri nahiz baizik.

Hala ere, esandako guztiaren bilgarritzat, arau nagusi bat eman gabe ezin utzi. Esaldi betegarri horiek nortasun propiorik gabeak dira edo nortasun zorrotzik

gabeak. Orduan segun zer esaldi nagusi datorren, hartara orientatzen dira berehalaxe, sateliteak planeta inguruan eta planetak izar inguruan bezala. Esaldi horiek erreferentzia baten beharra dute. Baten ordeztu beste bat sarturik, hartara orientatzen zaizkizu. Bildotsak bezala. Hauen senak amari jarraitzea eskatzen die. Amarik ez badute, mugitzen den edozein multzori jarraituko diote. Eta sarritan, ama eta guzti ere, badakite galtzen, beste zerbaiten edo norbaiten atzetik. Azkenengo bertsoaren lehen puntua hauxe zen:

**Begira zazu, lagun  
behetik goruntza**

Esaldi honek demokrazia berriketa hutsa eta zakurraren putza izatearekin bat egiten du entzuleen buruan. Agintariak, ministroak, parlamentariak edo horrelakoak goian situatzen baitira, laguna eta entzuleak behean daudelarik. Axularrek sinatuko lukeela esan dugun bertsoan ere, beheara eta goia zentzuzkoak dira. Biziaren ezereztasuna aipatzean, mundu hau eta bestea, lurra eta zerua, berehalaxe asoziatzen baitira. Beste hainbat eta hainbat kasutan ere, aprobarik egiten baduzue, berdintsu gertatuko da.

Honek ez du esan nahi beti ondo egokituko denik. Bildotsak ere zuri aisa jarraituko dizu, baina telebista bat topera hoska hurreratzen badiozu, agian atzera egingo dizu.

Azkenez beste gauza bat ere kontuan eduki beharrekoa da. Bertso bakarra satelite galdua bezala da. Bertsoak sailean joaten dira. Bakarka hinsteste zentzu eduki ez arren, errezkan doazela, askoz ere errezkiago zentzuan sartzen dira. Gauza asko aurretik esana dago. Gaia ere aurretik dabil, inguruak eskatzen dituen xehetasunak emanak daude. Bertsolariak ez dauka dena situatu beharrik, entzuleen gogoan baitago. Honela bakarka oso urrun dabilela dirudien bertsoak ere, sailka hari osoa hartzen du. Teilatu haundi bat bezala, baina alderantziz. Gure teilaturik gehienek gailurra erdian daukate. Honela izan behar du, ura alboetara botatzeko. Gailurra ertzak baino beheago balego, ur guztiak erdira letozke. Antzeko zerbait gertatzen da bertsoetan ere, saioa aurrera doanean. Esaten ari garen bete lana egiteko, abantail haundia ematen du honek.

## BETEGARRIEN ARIKETAK

NIKOLASA HAUNDIA (Zeferino Mujika)

- 1) Nikolasa haundia  
da nere grazia  
Naparruan jaio ta  
Bizkaian hazia.  
Oraindikan ez nago  
mirabe itxusia  
buruko ilea daukat  
urdintzen hasia.
- 2) Berrogeita sei urte  
daukat edadia  
zazpi arroa banaiz  
ezkondu gabia.  
Alondegira sarri  
bilatu biria  
zurrutian badaukat  
abilidadia.
- 3) Aguardintarik ez zait  
gustatutzen kasik  
atzo ere ez nuen edan  
kuartilo bat baizik.  
Ardo zuria ere  
dedanian pozik  
ezin dedan denboran  
egoten naiz hutsik.
- 4) Majo bat izandu det  
lengo egunean  
hitza eman diogu  
pozik degunean.  
Konformatu gerade  
txit modu onean  
ez gerade hasarre  
hontan gaudenean.
- 5) Gau batean egin dit  
bere etorrera  
ez gera ailegatu  
estadu txarrera.  
Mozkortuta erori zait  
zerraldo lurrera  
bolamotza bezela  
neronen aurrera.
- 6) Jan gutxi egin zuen  
edan berriz fuerte  
asko samar sartuak  
galdu zuan parte.  
Zutik ezin egonda  
etxia aparte  
mututurik egon zan  
egunsenti arte.



- 7) Hori da neretzako moduko gizona aspalditxuan badu mozkortzen dan sona. Palta hori badu baina borondate ona ezkontzeko agindu dit perkalezko gona.
- 8) Erregali horrexek poza eman zidan betiko sartu bada nere bihotzian. Hidrolika zakuak badazkala etxian kamisa ere agindu dit haiek garbitzian.
- 9) Horrelako kamisa gustatzen zait neri jazteko pozak nago josi al baledi. Puska askotakua joskura ugari hatz egingo diogu arkakosuari.
- 10) Esposatzeko daukat jazkera grabia fandangolaria naiz entero trebia. Emango det len baino itxura hobia kamisa izango det bordatu gabia.
- 11) Oraintxen kontentu da Doña Nikolasa oraindik ez negoan mirabe eskasa. Txuleta ederrak jan zurrut egin lasa oraindaino ez ditut egun txarrak pasa.
- 12) Erregaliak ditut oso modakuak tapatuko ditugu betik gorakuak. Biok tokatu gera gogo onekuak esposatu biagu gero gerokuak.

Goazen orain ariketa bereziak egitera, oin zerrenda bat emanez. Adibidez:

Hala  
 zabala  
 dala  
 dezala  
 bezala  
 apala  
 atala  
 makala  
 tamala  
 berehala  
 petrala  
 katedrala  
 azala  
 ostirala  
 argala

hegala  
kaporala  
seinala  
atabala  
BALA

Adibidez:

**Buruan behar ditu  
dozenerdi bala**

Puntu honek Xenpelarren «**bala bat sartu buruan**» gogarazten du. Ideia honek zentzu osoa dauka berak bakarrik, bertsolariak bere lagunaren aurka esanik. Kantatzean, laguna seinala liteke jende aurrean. Lagun bati esateko gogorregia badirudi ere, segun zer gai den, ondo datorrena izan liteke. Norbere kontrarioa-rengatik ez ezik, beste norbaiten aurka ere esatekoa gerta liteke, gaiak norbaitegatik zerbait gogorra esatea eskatzen badu.

Xehetasun hauek eginik, goazen hirugarren puntura. Adibidez:

**Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

Bertso erdi honi aurreko erdia bete dezaiogun orain, oinak binaka eta errezkan harturik:

**Esan beharra daukat  
noba edo hala  
entera dadin gure  
jendaurre zabala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

**Sarritan bai jendea  
nazkagarri dala  
ez dakienik bada  
aditu dezala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

**Esan behar dut orain  
sentitu bezala  
harro dabilenen bat  
jartzeko apala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

**Osorik baldin bada  
badator atala  
oraingoa haxe ez da  
arrazoi makala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.**

Pentsatu hutsak ere  
sortzen dit tamala  
zer egingo nukeen  
hona berehala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Hona egi haundi bat  
nola katedrala  
amorratioz daukat  
erretzen azala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Igande naiz larunbat  
edo ostirala  
bihotzik ez daukanak  
arima argala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Hemen hegoa eta  
hor berriz hegala  
ondoan daukadana  
ai zer kaporalala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Nor zer den entzuleek  
dezaten seinala  
pregoi jotzera doa  
nire atabala.  
Nola liteke izan  
hain gizon petrala?  
Buruan behar ditu  
dozenerdi bala.

Kanta ditzagun orain denak errezkan. Zer iruditzen zaizue? Sinesten al duzue bete lana egiteko ez dela hain irudimen zorrotzik behar? Bete lan arrunt samarra noski. Beste gauza bat da bete lan bizia eta dotorea egitea. Esana dugu bete lana artea dela. Baina minimoa gainditzen duena nork jakin hortik noraino iritxi litekeen?

Norbaitek agian oin zerrenda hau honela aurrez prestatu ote zegoen zalantzak izango ditu. Egin beste edozein zerrenda ezer pentsatu gabe eta gutxi gora behera berdin aterako da. Sinesteaz edo ez sinesteaz aparte, ariketa hau eginago eta betegarrien sena landuago gertatuko da. Eta era berean, aurrerago azaldua dugun bezala, oinen balorapen desberdinaz jabetu. Egokiera erreza ala zaila duten oinek berez agertuko dute beren burua. Goragoko zerrendan adibidez, bistan dago KATEDRALA, OSTIRALA edo ATABALA egoki sartzen zailagoa dela DALA, BEZALA, BEREHALA eta abar baino. Ideia horretan ez ezik, beste ideia posible guztietan ere, hitz horiek, izen konkretuegiak direlako, beste hauek baino sargaitzagoak izango dira beti, berak sartzea zuzenki tokatzen den gaia ez bada.

BOST  
ZORTZIKO HAUNDIA

## ABIATZEN

## TXANTXANGORRIA (Bitoriano Iraola)

- 1) Nork ezagutzen ez du lur hontan  
nork gure txantxangorria?  
Jostailu ezin egona eta  
bide txokoko txoria.  
Kaxko biribil begi argiak  
moko me txorrotx txikia  
berde gorrixta eta petxua  
luma fin gorritz jantzia  
purruxtakako hegalaria ta  
gainera xaltalaria.
- 2) Goiz goiz jaiki ta artian ondo  
zabaldu gabe eguna  
agur eginaz hau da xaltoka  
bideratutzen zaiguna.  
Fiatua da graziz betia  
xanko beltz txukun txukuna  
baserrietan nola kalian  
danak maitatzen deguna  
gure lurreko adiskidia  
urte guziko laguna.
- 3) Txori txikia arbol gaintetik  
jatxi baino len larrera  
ikusiko da xalapartaka  
nola betzen dan lurrera.  
Josta moduan altxatu ere  
lar punta baten gainera  
bidez eltxorik arkitzen badu  
kolpe tiriaz aidera  
purruxtan gero sartzen dan arte  
erreka txulo batera.
- 4) Ez dira aitzen mendi gainetan  
lengo irrintzi zantzuak  
baizikan haize txistuak eta  
kazkarabar erasuak.  
Bakar bakarrik alaitzen ditu  
zelai borda ta basuak  
txori berrixu petxu gorrien  
kantatxo xamur goxuak  
kanpo guziak atseginduaz  
pasiaz negu osuak.
- 5) Udaberrian azaldutzian  
kukuak euskal mendira  
ku-ku eginaz beren arraultzaz  
katibatutzen ez dira.  
Ez dakit nola biltzen dituzten  
txantxangorrien kabira  
eta umiak ama on harrek  
ateratzian argira  
eskergebiak etxien jabe  
ondoren egiten dira.
- 6) Beldur haundiko negu beltzian  
elurte gogor haietan  
txori leiala inguratzen da  
edozein etxe txarretan.  
Janari bila hain fiatua  
sarturik estalpietan  
katu zitalak nola egoten  
diraden erne txeletan  
han erortzen da inozentia  
beraren hatzaparretan.



7) Beren sarrera egiten dute urteko apirilian kontentu eta alai kantari guztizko talde luzian. Azaltzen dira eguzkiaren argian gisa goizian horrengatik eiztari batek txori leial hau hiltzian esan liteke penik ez dala sartzen hain bihotz hotzian.

8) Negu goiz batez txori umil hau estrata bide txokuan arkitu nuen puxtutua ta etxera eraman nuan. Esne epelez argal gaixua zerbait piztu zan orduan utzi ta joan zan pozez kantari txori librien moduan ta zeinek daki zeramazkien esker on haiek petxuan.

Aurreko kapituluan zortziko txikian esaniko guztiek zortziko haundirako ere berdin balio digute. Hango azalpenik errepikatu gabe, ariketak bakarrik egingo ditugu hemen.

1) Lau oinak emanda. Adibidez:

Papera  
Batera  
Aukera  
Atera

Orain nobelatxo bat asma dezagun lau oinok in, esaldi luzetxoagoak eginez, zortziko haundia baita:

— Dirua izan ezker o garestia da papera  
— Nire patrikan ez da izaten berde asko batera  
— Aberatsa zara eta hau nire aukera  
— Ostu dituzunak mesedez atera

Orain neurtu: Diruarena izan ezker o garestia da papera nire patrikan ez da izaten berde askorik batera. Zu aberatsa zaren medioz hauxe da nire aukera ostu dituzun denak mesedez hemen bistara atera.

2) Oin berak beste ordena batez:

— Gauza aldrebesak ikusteko bada aukera  
— Gizon batek zer egin didan kontuak atera.  
— Neuri ostu eta jan du milako papera  
— Lotsagabea eta tentela batera.

Orain neurtu: **Gauz aldrebesak ezagutzeko bada sarritan aukera gizontxo batek zer egin didan jaunak, kontuak atera. Neroni ostu eta ber bertan jan du milako papera hori bai dela lotsagabea eta tentela batera.**

3) Beste lau oin:

**Komuna  
Eguna  
Duguna  
Laguna**

Pentsa dezagun azken bat. Adibidez:

**Gizonarentzat eserlekurik maiteena komuna**

Orain hirugarren puntua laugarrenarekin zerbait lotua:

**Bada zoko bat maiz bisitatzen duguna**

Orain beste biekin lehen zatia bete:

- **Ez dakienak nirekin badu laguna**
- **Arrazoiak kantatzeko baita gaurko eguna.**

Esaldi hauek edozein segidari ondo doazkionak dira, hain orokorrak baitira. Hona laurak errezkadan:

- **Ez dakienak nirekin badu laguna**
- **Arrazoiak kantatzeko baita gaurko eguna**
- **Bada zoko bat maiz bisitatzen duguna**
- **Gizonaren eserlekurik maiteena komuna.**

Neurturik:

**Ez dakienak nirekin badu enteratzeko laguna arrazoi batzuk kantatzeko baitugu gaurko eguna. Bada zoko bat etxe denetan maiz bisitatzen duguna gizonarentzat eserlekurik maiteena da komuna.**

4) Orain hain sarrera zabalaren orde, lehen bi puntuak entzuleei zuzenduak:

Oinak:           Egurra  
                      Samurra  
                      Bildurra  
                      Muturra

Azkena:           Haizkolariak ez gara baina  
                      tokatzen zaigu egurra

Hirugarrena:     Mendian eder baina soinean  
                      ez da hain karga samurra

Orain entzuleei zerbait esateko, BILDURRA eta MUTURRA ditugu.

Hona adibidez: Ez al duzue ikusten nola  
                      dabilen mire muturra?  
                      Behar bezala esplikatzeke  
                      badaukat neure bildurra.  
                      Mendian eder baina soinean  
                      ez da hain karga samurra  
                      haizkolariak ez gara baina  
                      tokatzen zaigu egurra.

Bigarren zatia guztiz alda dezagun orain, lehenengoa berdin utzirik:

Ez al duzue ikusten nola  
                      dabilen nire muturra?  
                      Behar bezala esplikatzeke  
                      badaukat neure bildurra.  
                      Harria bota nion suari  
                      akabatzean egurra  
                      puzka ta puzka ere ez zegon  
                      hura piztutzen samurra.

Hona zer bertso desberdinak, lehen erdia berbera izanik.

5) Lehen bi puntuak bertsolari lagunari zuzenduak.

Oinak:           Ura  
                      Gura  
                      Modura  
                      Ardura

Azkena:           Herri hau libre ikusi gabe  
                      hiltzerik ez nuke gura

Hirugarrena: **Bene-benetan hitzegiten dut  
sentitzen dudan modura**

Orain lehen puntuak bertsolari lagunari:

**Aizazu, lagun, ba al dakizu  
zein den gaur nire ardura?  
Ardo beroa baldin bazara  
ni ere ez nauzu ura.  
Bene-benetan hitzegiten dut  
sentitzen dudan modura  
herri hau libre ikusi gabe  
hiltzerik ez nuke gura.**

Alda dezagun orain bigarren zatia:

**Aizazu, lagun, ba al dakizu  
zein den gaur nire ardura?  
Ardo beroa baldin bazara  
ni ere ez nauzu ura.  
Zure galtzetan pasiatzerik  
ez nuke inola gura  
mundu guztiak hartu ez nazan  
arrote baten modura**

Horra zer bertso desberdinak sarrera berberaz.

## BETEGARRIEN ARIKETAK

## FUERUEN GAINIAN (Txirrita)

- 1) Orain bi mila urte inguru bezela ziran hasiak erromatarrak berendu nairik gure zazpi probintziak. Garai hartako abarkadunak ziran jenioz biziak baziran penaz amildu eta beren hezurak hautsiak lastimosuak izandu ziran haien orduko antsiak.
- 2) Denbora hartako gerrero zarrak ziran gizon onraduak aziuetan irabazita jazten zituzten graduak. Hirurogeita lau urtekuak bazebiltzan soldaduak orain bezela etzuen inor engainatutzen diruak Legobide ta Osabal ziran Kantabriako buruak.
- 3) Aitona hoiek zer pentsatu zuten azkeneko heriotzian ez genduela jakin izandu pena daukat bihotzian. Arrats guzian otso guardian egunez erdi gosian zenbait naigabe sufritu zuten Ernioko gurutzian haien orduko oraziuak ederrak izango zian.
- 4) Gure izeben amen amonen osaben aiten aitonak hemen fueruak defenditutzen ibilitako gizonak. Bertan batalla irabazita gero Erromara juanak Otavianok galdu zituen bere herriko lagunak haundi gaiztuak diran tokian pagatzen du txiki onak.
- 5) Arroza baino zabalagoko gure zazpi probintziak baratza eder bat bezela zeuden barziak lorez jantziak. Lau Espainian morroi gaudenak hiru han ditu Frantziak gizon gaizto bat dala medio hondatu ginan guziak beste munduan ikusten badet eman biaizkat graziak.
- 6) Pertsegituak izandu gera juan dan zenbait urtian asko zebiltzan agindu nairik Kantabriako partian. Mantxa gabeko lore ederrak estalirikan lurpian errespetua guardatzen zuten Lartau hemen zan artian oraindik ere denbora dago berriro saia gaitian.



- 7) Geren sailari segi zaiogun  
ez bestetara mugitu  
motiborikan asko badaukat  
ongi esan nai banitu.  
Ni engainatzen ez baldin banaiz  
Euskal Herriak baditu  
Kantabriaren izenik ere  
nai ez dutenak aditu  
zazpi senide aita batenak  
egin gerade unitu.
- 8) Zazpi senide aita batenak  
danak euskaldun garbiak  
Tubal zarraren artaldetikan  
banatutako ardiak.  
Dira aitona nungua zuten  
ez dakitenak erdiak  
utzi ditzagun bide ilunak  
bila ditzagun argiak  
beti betiko bere izena  
izan dezan Kantabriak.
- 9) Beren idea beste gauzarik  
ez daukatenak buruan  
gaurko egunian halako asko  
baditugu inguruan.  
Esaten zaie Kantabria honek  
bere jabia nor duan  
kontra egiten hasten zaizkigu  
setosuaren moduan  
geren anaiak ez ditugula  
esan gentzake orduan.
- 10) Baldin egiaz egina bada  
aurreko zorren papera  
zazpi probintzi euskerazkuak  
Kantabrietarrak gera.  
Bere bihotzak daukan asmua  
beti dijua pakera  
bide askotatik martxa zuzenik  
ezin gentzake atera  
onena zein den ongi neurtuta  
bildu gaitazan batera.
- 11) Zazpi senide aita batenak  
egotia honen triste  
fortunatu da desgrazi batez  
baino ez genduan uste.  
Maitatzen dute etorri dana  
besteren gauzaren eske  
egunen batez haserre samar  
ikusi bihar gaituzte  
jakin dezaten bagerala gu  
izena degun hainbeste.
- 12) Mundu honetan ezin bizi ta  
ez degu juan nai bestera  
gezurra esanda ez dago handik  
etorritzerik ostera.  
Arrazoi gabe eman ziguten  
lege kontrako jazkera  
gainera berriz kontari daude  
galduko dala euskera  
gogor egiten ez bazaiote  
hoientzat aina ez gera.
- 13) Kolka txarraren azpian dauden  
txito urrikalgarriak  
hamarretatik bost hiltzen dira  
beste bostak elbarriak.  
Pizti gaiztuen bildurrez beti  
gora begira jarriak  
indar gutxiko gorputzak eta  
suspiriuak berriak  
kastigu horren mendian bizi  
gera gaur Euskal Herriak.

Goazen orain oin zerrrenda batez betegarrien ariketak egitera. Adibidez:

Aria  
garia  
saria  
aharia  
nabaria  
haragia  
hobaria  
gidaria  
gudaria  
ugaria  
janaria  
eskaria  
nagia  
haria  
ataria  
madaria  
ZAHAGIA

Demagun norbaiti mozkortia dela esan nahi diogula. Adibidez:

Hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Hirugarrena:

Galipot saldaz ere egingo  
luke honek edaria

Bertso osoak:

Bakoitzak bere buruarekin  
badauka zertan aria  
ogia egin behar duenak  
bilatu behar gara.  
Galipot saldaz ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Bertso hau izan dadila zuen  
arretarentzat saria  
kolpe txiki bat jotzera noa  
baina ez naiz aharia.  
Galipot saldaz ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Zenbait gorputzek ikusi hutsez  
ere dute nabaria  
azala zimel daukatenean  
eta ubel haragia.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Tratuan ari diren geienek  
maite dute hobaria  
beste askoren bizitzan berriz  
zurruta da gidaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Ez dakienak nolakoa den  
zurrutaren gudaria  
aurrean dugun honekin badu  
argibide ugaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Gorputzarentzat beharrezkoa  
omen dugu janaria  
beste zerbaitek ere badauka  
batzumentzat eskaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Behar denean orratza sartzen  
ez naiz langile nagia  
baina bildur naiz oraingo hontan  
faltako zaidan haria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Ez da sarritan hutsik egongo  
tabernako ataria  
lagun bat daukat harrak goiz jota  
gorritu den madaria.  
Galipot saldez ere egingo  
luke honek edaria  
hona herrian ardorik geien  
hartzen duen zahagia.

Beste mila zerrenda eginik eta nahi den amaiera hautaturik ere, berdin egin liteke. Tranparen bat nonbait badela uste baduzue, jar dezagun beste zerrenda bat. Eginak erakutsiko du. Zail egiten bazaizue, ez da tranparik dagoelako, bete lana sen bat delako baizik. Sen guztiak bezala, hori ere landu egin behar da eta horretan gabiltza.

## XXVII

### SAIOA GAIAK JARRITA

#### HOGOI URTETAN BEZALA (Xalbador)

- 1) Ostatu baten barnean entzundut ahapaldi zoroa beren ustetan oro dazkiten gazte batzuen leloa:  
«Zaharrendako salda ona ta gaztentzat amodioa»  
Gezurra dela jakin dezaten kantatzen hasterat noa.
- 2) Berrogoi eta hamar bat urte badu ene emazteak berrogoi eta hamahiru nik iragan udan beteak.  
Maitasunezko sentimendutan oraino gaude gazteak amodioa zintzoa bada ez dira konda urteak.
- 3) Laster laguna hartzekoa du gure haurretan gaztenak lehendik ere bi baditugu ezkondukan daudenak.  
Bakotxa bere lagunarekin etxerat biltzean denak ohartzen gira guhaur girela denetan loriosenak.
- 4) Maitemindurik emaztearen inguruan nabilala galdetzen diot maite nauenez otoi segurta nezala.  
Arrosa bezain gorri eginik begiak apal apala baietz segurki ihardesten daut hogoi urtetan bezala.
- 5) Sartzerat noa berrogoi eta hamabortz garren urtean eta gaztetan bezain lorios ni zure beso artean.  
Bizitzen denak amodioa gaztentzat dela ustean zer erran liro gure arteko zoriona ikustean?
- 6) Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan memento baten epearentzat Jainko banindaike izan.  
Mana nezoke iguzki horri nehoiz ez dadila etzan zorionezko bizitza hunek azkenik izan ez dezan.
- 7) Zu zira ene zorionaren iturri ta nagusia mundu hunetan jarraikitzeo dutan arrazoin guzia.  
Zure dohainen gozoz ez banu ene gogoia hazia lore gabeko udaberri bat laiteke ene bizia.
- 8) Gaztek diote: «Amodiorik ez da zahartzearekin»  
Gu zahartzeak ez gaitu aldiz geiago baizik bat egin.  
Jaunari diot biak batean har gaitzan noizbait berekin zoragarritzko lorategi hau bi zati egin ez dadin.

Bertso saio bat egin dezagun orain. Azaltzeko guztiak azalduak ditugu. Azkena lehenen pentsatu beharra arautzat dugu. Lehen bi puntuetan bete lana egitea ere bai. Orain azkenengo zer berria hirugarren puntua da. Hau azkenaren zubi bezala jotzen genuen. Kolpea emateko bidea prestatu. Noiz egiten da hau?

Orain arte azkenaren hurrengo egiten genuen, lehen bi puntuak bereziki tratatzeko. Baina bat bateko bertsogintzan ez da horrela. Bertsolaria azkena pentsaturik hasten da. Lehen bi puntuak edo betegarriak kantatzen ari dela, hirugarrena pentsatuko du, azkenaren arabera. Hirugarrena berriz martxan pentsatzen du, ez baita izan ere azkena bezain garrantzikoa. Hauek honela, lehenbizi azkena pentsatuko dugu. Gero lehen bi puntuak eta azkenik hirugarrena. Beraz, azkena erabakitakoan, beste guztia goitik behera jarraian.

## ZORTZIKO TXIKIAN

Hona gai bat: **Goizean ohetik jaikitzeo turrina jotzen dizun iratzargailuari.**

Azkena: **Eskerrik asko baina  
ni ez nauk jaikiko**

Bertso osoa: **Erloju hau nik ez dut  
batere begiko  
ez al da geratuko  
muturik betiko?  
Jotzen badu kasurik  
ez egin ta kito  
eskerrik asko baina  
ni ez nauk jaikiko.**

Norbaitek pentsa lezake lehen bi puntuak ez direla betegarriak. Bai eta ez. Ez balira ere, bete lana egitean azkena pentsaturik baitago, ez da hain zaila gaiaren elementuren bat aipatzea eta horretaz zerbait esatea. Kasu honetan erlojua. Lehen bi puntuak beste bertso baterako ez dute balio, aurrerago eginak ditugun zenbait ariketetan bezala. Egin zitekeen hala. Baina hemen pausotxo bat gehiago eman dugu.

Lehen zati zabal horri bigarrenak ematen diola zentzua eta orientabidea esaten genuen. Entzuleak, bertsoa amaitzean, hala hartzen du, osotasun bat bezala, nahiz eta lehen puntuak oso bertso desberdinetarako balio izan.

Hemen esaten duguna da, azkena gogoan duen bertsolariarentzat, ez dela zaila bete lan hori gaiaren zerbait aipatuz egitea. Hitz bat aski da horretarako, haren inguruan zerbait esanez. Hemen erlojua bezala, beste gai batean beste zerbait. Segun zer oin gogora datorren, haiexek sartzeko bete lana egiten da.



Guzti hauek kontutan direlarik, ea gai horri nolako bertsoa edo bertsoak kantatzen dizkiozuen. Hasi!

## GAI BIKOITZA

Orain beste gai bat, baina bikoitza. Batak bestearen aurka. Hori oraindik binaka egiteko gehiegi bada, talde erdiak beste erdiaren aurka. Gaia:

**Bat batean asto bat sartzen zaigu eskolan. Zer nahi ote du? Batzuk asto horren ofizioa eta beste batzuk ikasleona.**

Talde bakoitzetik hiruren bat bertso osaturik dituzuenen, kantatzen hasiko gara. Hasi! Bat. Bi. Hiru. Hasi kantatzen.

Astoa: Azkena:

**Hemen heldu da zuen  
arrantzen soinura.**

Bertsoa:

**Egun on edo gau on  
lege den modura  
sartzea pentsatu dut  
zuen ikuilura.  
Aspaldion lagunik  
ez zedukan hura  
hemen heldu da zuen  
arrantzen soinura.**

Ikasleak: Azkena:

**Eseri zaitetz lasai  
gure inguruan.**

Bertsoa:

**Egun on zuri ere  
lege den moduan  
gizalege pixka bat  
ikasi zenduan.  
Belarri biak jarriz  
bertso liburuan  
eseri zaitetz lasai  
gure inguruan.**

Eta abar.

## ZORTZIKO HAUNDIAN

Gai bakarra: Ovni bat aurrean lurreratu zaizu eta esan dizute: Martzianoak gara.

Hasi. Talde bakoitzetik batzuk amaitzean, kantatzen hasiko gara. Adibidez:

Azkena: Martzianoa esan du baina ematen du Martzelino

Bertsoa: Barregarriak kantatu behar gaiak horrela baitino plater batetik atera zaizkit dozena bat demonino. Ez zait holako jende klaserik suertatu oraindino Martzianoa esan du baina ematen du Martzelino.

Eta abar.

Gai bikoitza: Ilargiarekin elkarrizketa. Batzuk ilargia zarete eta besteok goizaldean kantatzen ari diren bertsolariak.

Talde bakoitzetik hiruren bat prest daudenean, kantatzen hasiko gara.

Ilargia: Azkena:

Gauetz pasatzen naizen guztian beti azpian zaudete

Bertsoa: Batzutan oso txikia nago baina gaur berriz naiz bete hola osorik nagoenean ez nau jende gutxik maite. Bertsolariok noski neronen lagun zaharrak zarete gauetz pasatzen naizen guztian beti azpian zaudete.

Bertsolariak: Azkena:

Gau batengatik zergatik jaisten ez zara lagun artera?

Bertsoa:

**Afaltzen geunden eta orduak  
kanpora gaitu atera  
laguntzat hartzen zaitugulako  
gabiltz kaletik kalera.  
Hainbat mendetan zu ere hortxe  
zabiltza gora ta bera  
gau batengatik zergatik jaisten  
ez zara lagun artera?**

Eta abar.

Azkena pentsatzeari buruz azken oharra. Gehienez zortziko txikian puntu osoa pentsatzen da, laburra baita. Zortziko haundian, ordea, azken lerroa sarritan aski izaten da, mendeko esaldia edo ez bada. Zortziko silabek nahiko tarte ematen dute ideia oso bat sartzeko, batez ere bertsoa denean.

SEI  
HEGAN

## XXVIII

### PAPERETIK ASKATZEN

#### ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA (Xalbador)

- 1) Amodioa gauza tristea  
bihotzen higatzailea  
guziz enea bezala bada  
esperantzarik gabea.  
Gizonarentzat hau baino malur  
haundiagorik badea?  
Ikusten eta ezin eskura  
maitatzen duen lorea  
hunela bizi baino aunitzez  
hobe litaik e hiltzea.
- 2) O, Jainko ona, zendako bada  
egin nauzu hoin maluros  
begien bixtan izar eder bat  
ezarri dautazulakotz,  
ikus orduko maite nuena  
nik ditutan indar oroz?  
Harek ordainez ez du enetzat  
ez begi eta ez bihotz  
nehoiz ikusi izan ez banu  
hobeko nuen ondikotz!
- 3) Oi, ene maite ezin ukana  
zoin zaren xarmegarria  
maite dut zure begitartea  
maite zure boz eztia.  
Halaber zure irri gozoa  
zure izaite guzia  
zuretzat baizik ez dut begirik  
zare ene iguzkia  
gau eta egun zuri pentsatzen  
deramat ene bizia.
- 4) Martxoko hormak galduko duen  
lore pollit goiztiarra  
ta eihartzerat bortxatua den  
haizeak hautsi abarra.  
Ene bihotza ez ditaikela  
gauza horier konpara?  
Nehoiz enea ez da izanen  
maitatzen dutan izarra  
hortaz oroitz maiz etortzen zaut  
nigarra begietara.
- 5) Aitortzen dautzut, ene maitea  
goiz aski banakiela  
etzintaizkela enea izan  
bertze batentzat zinela.  
Bainan halere maitatu zaitut  
ez bainezaken bertzela  
ene bihotza bizi naizeno  
izanen zaizu fidela  
zuretzat bizi ez banintzaikela  
zuretzat hil nadiela.



Orain arte paperetik ibili gara. Taldean norbait ibiliagorik baldin bazen, hori bere onerako izango da, baina orain arteko gutzia papera tresnatzat harturik egiteko zen. Baliteke hutsetik hasirik ere, buruz abiatzen denik izatea. Hori ere bere onerako.

Oro har eta hutsetik hasia den taldeari begira, oraintxe hasten gara papera uzten, ikasbide honetan behintzat. Jauzi haundia eta liluragarria ematera goazena. Txoriek lehen hegaldian edo haurrek lehen oinezaldian, edo bizikletan ikasten ari denak lehen joanaldian, senti lezakeen lilura.

Haurren lehen oinezaldia? Hori bakarrik al da ikasi duguna? Ez da gutxi. Haurrak denbora luzea eraman du arrastaka, eskuak, zangoak eta senak landuz, gero tente baina zerbait heldurik luzaro, eta azkenean tak, hiru edo lau urrats bakarrik egiten ditu. Esperientzia harrigarria, kontatzen baleki. Hiru edo lau urrats horiek berehala gehitzen dira. Egun batzuren buruan haurra tiki taka dabil. Oraindik tikili tokolo, baina ibili.

Zer alde dago aulki bati heldurik egotetik lehen hiru urratsak berak bakarrik egitera? Alde kualitatiboa, baina ez hain zaila. Haurraren senak aurretik bide luzeak eginak dira. Uste baino prestakuntza haundiagoa daukate. Bestela ez legoke tak ibiltzen hasterik.

Horixe egin behar dugu orain. Papera utzi eta tak. Ea halaxe gertatzen den. Ezer ez balitz bezala.

## OROIMENA LANTZEN

**Kopla txikia.** Has gaitezen kopla txikitik.

*Irakasleak kopla bat astiro kantatu eta ikasle batek jarraian hura buruz kantatu. Hitzez hitz ez bada, antzekoa. Adibidez:*

**Hona orain kopla bat  
buruz ikasteko  
hainbeste egiterik  
ez nuen usteko.**

*Ikasleak errepikatu. Ariketa honetarako kopla sorta bat bildu behar da. Era bat une batean ikasleek kopla bana egitea da. Berehalaxe dira mordoa. Orduan batek kantatu eta beste batek errepikatu. Ikastaroan zehar bilduz joanikoak ere izango dira koadernoetan.*

*Beste era errez bat zortziko txikiak bi zatitan kantatzea da, kopla doinuan. Horrela bertso batekin bi kopla ditugu.*

*Entzun eta batera kantatzea gehiegi bada, idatzi egin liteke. Entzun eta bakoitzak idatziz jaso. Baina gero buruz kantatu. Horrela berdin berdina ez bada ere, antzekoa aisa egiten da. Jasotze hori bakoitzak bere paperean egin behar du, martxan entzuten ari dela. Horregatik baliteke hitzez hitz ez jaso ahal izatea.*

**Kopla haundia:** Hemen ere berdin, kopla txikian bezala. Kopla haundia zailago gertatzen da hasieran, luzeagoa baita. Adibidez:

**Kopla haundia buruz hartzeko  
ez ote da lan geiegi?  
Hasi naiz baina ez dakit ia  
nola edo nondik segi.**

*Ikasleak errepikatu. Kopla txikian esaniko hiru erek berdin balio dute. Behin kantatzea hasieran gutxiegi bada, bi aldiz kantatzea ere hor dago.*

**Zortziko txikia.** Hemen bat batean osorik errepikatzea gehiegi liteke.

Hona mailak: — Behin entzun, oinak paperean jasoz. Bertsoa paperean berregin eta gero buruz kantatu.

— Behin entzun oinik jaso gabe. Paperean berregin eta buruz kantatu.

— Behin entzun oinak paperean jasoz. Bigarrenez entzun bakarrik eta jarraian, oinei tarteka begiraturaz edo begiratu gabe, kantatu.

— Behin entzun oinak jasoz eta kantatu.

— Bi aldiz entzun ezer jaso gabe eta kantatu.

— Azkenez behin entzun ezer jaso gabe eta berehala kantatu.

**Zortziko haundia.** Zortziko txikian bezalaxe, luzeagoa eta, beraz, zailagoa dela jakinik.

*Ariketa honetan bada oso kontuan eduki beharreko gauza bat, hots, bertso guztiak ez direla berdin oroiterrezak. Bertso deskribatzaileak edo narratiboak errezkiago hartzen dira. Egiturak eta tankerak ere asko esan nahi du. Bertso bortxatu samarrak bertso naturalak baino askoz zailagoak izango dira, teknikaz hutsik ez izan arren. Horregatik irakasleak ariketa honetarako bertsoak hautatzen kontu pixka bat eduki behar du.*

## XXIX

### BAT BATEAN

Aurreko kapituluko lana buruz entzuna jasotzea bazen, orain sortzea bera ere buruz egitera goaz.

**KOPLA TXIKIA:** Gai bat ipini eta mailaketa honela eraman liteke:

- Osorik idatzi eta buruz kantatu.
- Bigarren puntua osorik eta lehen oina idatzirik.
- Bigarren puntua bakarrik idatzita.
- Bi oinak idatzita.
- Bigarren oina bakarrik idatzita.
- Azkenez dena buruz.

**KOPLA HAUNDIA:** Kopla txikian bezala. Mailaketa hau eramateko, gaiak alda litezke. Bestela aspergarri gerta liteke. Gainera gai berari hainbeste kopla desberdin kantatzea askorentzat gehiegi da. Irakasleak neurtzekoa da hori.

**ZORTZIKO TXIKIA:** Hemen ere gaia jarri, gorago esaniko aldatzea kontuan edukirik. Gai librean ere egin litekeela esan beharrik ez dago.

**Mailaketa:**

- Dena idatzi eta buruz kantatu.
- Azken bi puntuak idatzi eta lehen bi oinak idatzita.
- Azken puntua eta aurreko hiru oinak idatzita.
- Oinak bakarrik idatzita.
- Azken bi oinak bakarrik.
- Azken oina bakarrik idatzita.
- Azkenez, dena buruz.

**ZORTZIKO HAUNDIA:** Zortziko txikian bezala.

*Ariketa guztietan ikasleen maila irakasleak neurtu behar du. Beherago nekez dabilenari goragoko mailarik eskatzerik ez dago. Beti progresioan eraman behar da lana. Ikasleak ezinaren aurrez jartzeak ez du ezertarako balio, desanimatzeko besterik. Beste ihardun guztietan bezala, hemen ere aurrerakuntza irakaslearen gora beheran dago. Ikasle txarrantzat irakasle onik ez dagoela egia da, baina irakasle txarrarekin ikasle onak ere ez du askorik aurreratuko.*

## XXX

### PUNTURA

Hona ikasbide honetako azken kapitulua, bertso gintzari buruz.

— Puntura azkena? —galdegin lezake norbaitek—. Gu hasi egiten gaituk hortik.

Sarritan horixe uste da, puntura txandaka egitea erreza delakoan. Ez dut esango bertso osoa egitea baino zailagoa denik. Baina paperean berehala bertso osoa egitea baino zailagoa bai. Beraz, tokatzen zaion lekuan sartzekotan, gehienez ere hamairugarren kapitulutik gora behar du. Horrainoko maila guztiak hau baino beheragokotzat jotzen ditut.

Horra, ordea, asko, ondo ustez, puntura kantatzetik hasten direla, errezenetik hasten direlakoan. Hortik, denbora eta denbora joan arren, beti berdintsu jarraitzea. Urtebete igaro eta hobekuntza haundirik ez bada, metoduaren hutsa da hori. Teilatura zuzen saltatu nahi duen zakurrak ez du, ekin arren, ezer aurreratzen. Eskaileretan gora doan katuak, ordea, teilatu ertzetik burlaz begiratzen dio.

Puntura egitea zaila da, geratu gabe egitekotan. Eta hala egin behar da, ez apo saltoka. Zaila da azkarra delako eta nolabait elkarrekin haria edo joscara eraman behar delako. Bai eta sarritan elkarri oinak jaten zaizkiolako ere.

Jarraian egiteak bere garrantzia dauka. Hemen geratu eta hor hasi ere egin liteke, bai. Etengabe itzaltzen eta piztutzen ari den auto zaharra bezala. Ariketa hori ez da batere pedagogikoa. Ni behintzat ez naiz horren aldekoa.

— Orain arteko bertsoariak nola ikasi zuten, ba? —galde lezake beste norbaitek.

Lehen go bertsoariak, oraingoek eta gerokoek ere ahal bezala ikasten dute. Honek ez du horretarako ezer esan nahi. Lehen go eta oraingo euskaldunak gehienek ere hizkuntza «berez» ikasi dute. Horrek ez dio hizkuntz metodologiari ezer kentzen.

Horrez gainera ez da berdin tabernan muturra beroturik kantatzea eta ikastaro bat taldean egitea. Hemen ikastaroan gabilta. Eta taldean.

Azkenez, hemen azaltzen den metodologiari muzin egiten dionak lan erreza dauka: Itxi liburua eta segi bereari. Ikastaro hauetan sinesten ez duenak lan erreza dauka: Etxean geratu eta besteontzat ere bakea.

Inguru solas horretatik puntu saiora itzulirik, jarraian eta erritmoz eramaterik ez dagoen bitartean, hobe da ez ekin. Noizbait hori behar da, jakina. Baina martxarik hartzen denik ikusten ez bada, hobe da beheragoko maileri ekitea.

Zergatik da hain garrantzitsua jarraian egitea? Bitarteko isilune horiek oso izorragarriak direlako. Isilune aritmikoak gainera. Tarteka geraldaldi txiki batzuk egin arren, ez dio ardura. Baina tarte horiek maiz eta luze samarrak direnean, taldeko giroa hoztutzeko arrisku handia izaten da. Erori ere bai, deskuidatzen bazara.

Talde baterako isilune luze horiek baino okerragorik ez dago, aurrez erabakitako isiluneak ez direnean. Horregatik ariketarik gehienetan, kantatzen hasi aurretik, mordo batek bertsoa eginga edukitzea arautzat erabili dugu. Isilune ezarri horiek ez dute gaitzik egiten. Bai, ordea, kantatzen hasiz gerokoak. Horregatik da zaila puntura itxuraz egitea, eskolan behintzat. Tabernan hor konpon.

Hiru mailatan egin dezakegu puntu saioa:

- 1) Bertso jarriak puntura kantatu.
- 2) Oin zerrenda bat jarri eta haiei jarrai. Oin bakoitzak ematen duena kantatu, loturari begiratu gabe. Adibidez:

Garra  
txarra  
zaharra  
belarra  
indarra  
senarra  
zatarra  
dolarra  
beharra

eta abar



Lauren artean:

Bata: **Puntuetan hasteko  
badaukat nik garra**

Bia: **Neu ere hortarako  
ez nago hain txarra.**

Hirua: **Nor da hemen gaztea  
eta nor zaharra?**

Laua: **zuentzat geiegi da  
astoen belarra.**

Bia: **Belarrak ere badu  
beraren indarra**

Hirua: **zu al zara gaueko  
sorginen senarra?**

Laua: **Itxura beintzat dauka  
naikoa zatarra**

Bata: **zuek sosak zarete  
ni berriz dolarra.**

Eta horrela aurrera.

Hirunaka ere egin liteke, hasten duenak amaituz. Bai eta binaka ere. Baina horretarako bizkortasun gehiago behar da.

Oin zerrendaz puntura egiteak eragozpen batzuk ebitatzen ditu eta bide batez errima lanketa da.

- 3) Puntu librean, baina errima batzuk hautaturik. Arbelean errima mota batzuk jartzen dira. Adibidez: LA, TSA, RRIA, SIA/ZIA, etabar. Orduan puntua hasten duenak horietariko errimaren bat hartu behar du beti. Hau ere launaka, hirunaka nahiz binaka. Banaka egitea ez litzateke puntura egitea izango.
- 4) Guztiz librean, launaka, hirunaka edo binaka, segun jendea nola dabilen. Binaka egiteko gai denak ez du esan nahi launaka eta hirunaka egin behar ez duenik. Bertso saiorik gehienetan launaka edo hirunaka izaten da. Egin behar ez dena da launaka ozta-ozta dabilenari binaka eragitea.

## XXXI

### ERRIMA LANTZEN

Bertsogintzan doinua, neurria eta errima direla osagai nagusiak esaten hasi ginen. Doinu kontua edo musika erreza zela esaten genuen. Erriman ere minimora iristea ez dela zaila ikusi dugu. Neurriari eta bertsoaren egikerari ekin diogu gehien.

Erriman, ordea, zer egin, minimotik gorantz abiatzeko? Nola oihan amaigabe hori arakatzen hasi? Horretara goaz.

#### HIZTEGI ERRIMATUA - BERTSOLARITZA 2

Hor dago errimaren oihana, motaka ordenaturik eta mota bakoitzaren barrua ere sailkaturik. Hor dago errima lantzeko tresna nagusia. Nola erabili tresna hori? Era askotara har liteke. Hemen ariketa posible desberdin batzuk azalduko ditut, hiztegi horri onura ateratzeko.

##### 1) Oin zerrenda zabalak

Errima mota bat hartu eta oin zerrenda luze bat egin, mota hartan diren maila gramatikal denetatik sartzten saiatuz. Zerrenda luze hori egindakoan:

- a) Lehenbizi azterketa bat egin. Errima mota horrek zenbat daukan, nondik den ugaria eta nondik urria, maila gramatikalei buruz. Eta abar. Hitz batez, errimaren ikuspegia hartu.
- b) Zerrenda horrekin puntura dagoen bezala egin, txandaka goitik behera eramanez. Oin bakoitzak gogarazten duena kantatu, loturari gehiegi begiratu gabe. Jostea lortzen bada, hobe.
- d) Oinak launaka hartu eta bertsoa osatu. Oinak emanda esaten dena.
- e) Zerrenda beretik irten gabe, saio bat egin, koplaz edo bertsoz, bakoitzak komeni zaizkion oinak zerrenda horretatik harturik.

##### 2) Oin zerrenda hautatuak

Errima mota baten ikuspen orokorra lortutakoan, barrutia estutzea komeni da, onenak edo baliotsuenak aterarik.

- a) Oin laukoteak, boskoteak edo seikoteak egin. Ez gehiegi, bestela alferrik ari baikara hautatzen. Hautaketa bi irizpidez egin liteke: hotsezko irizpidez eta irizpide kontzeptualez. Hotsezko irizpidez oso errima estuak eta arretagarriak egin litezke, baina egokiera gutxiakoak. Artifizialak ere bai, gehiegi tiratzen bada. Demagun, adibidez, laukote hau:

**Erdera**  
**Berdera**  
**Lerdera**  
**Agerbera**

Errima hau noizbait ondo etor liteke, baina laukote hau ez dago kasu askotara egokitzerik, artifizialkerian erori gabe, nahiz eta lehen hiru oinak nahiko egokiera zabalekoak izan.

Horrez gainera, artifizialkeriarik ez dela emanik ere, horrelako errimakera ez al da kargatuegia? Ez al da astunegia, batez ere sarritan erabiltzen bada?

Irizpide kontzeptualak egokiera haundiko oinei gehiago begiratzen dio. Adibidez:

**Gera**  
**Atera**  
**Sobera**  
**Joera**

Laukote hau ez da aurrekoa bezain errima estua hotsez. Baina oin hauekin lehengoekin baino mila bider gauza gehiago esan liteke. Eta errima ona gainera, denetan ERA ageri baita, A hori artikulua izan gabe.

Beraz, bi irizpidez oin sortak egin litezke, irizpide kontzeptualari garrantzi gehiago emanez.

**3) Nola jakin oin sorta batek balio duen ala ez eta zenbat balio duen?**

- a) Saio bat egin sorta berarekin, ea zenbat ideia desberdin esateko bidea ematen duten.
- b) Gai desberdinak oin sorta berarekin kantatu.
- d) Puntura txandaka ere bai, oin berekin zer desberdinak esaten saiatuz.

Honelako aprobak egitean, oin bakoitzak hantxe agertuko du bere nortasuna. Lehenengotan ustez baliotsua zenari praktikak jipoia emango dio. Ustez garrantzi gutxikoa zenak, ordea, baliteke puntu asko irabaztea. Dena dela, kontutan izan errima arloa oso zaulia eta era askotara hartzekoa dela. Irudimen guztientzat lekua dago hemen.

**4) Hitzaren Kirol Nazionala**

Azkenez, **BERTSOLARITZA-1 HITZAREN KIROL NAZIONALA** liburuan errimari dagokion kapitulu luzea ikustea komeni da, errimaren ikuspen orokor sakona hartzeko. Aurreko ariketok egin ondoren, teoriak aisa sartuko dira, ez baitira hain zailak ere.

## ARIKETEN BILDUMA

Hona orain liburuan zehar erabilitako ariketarik garrantzitsuenen zerrenda. Ikuspen orokor bat edukitzeko eta nahi denean nahi denari ekiteko, ez da gaizki etorriko.

### PAPEREAN

- 1) Bertso jarriak ikasi.
- 2) Bertso jarriak kantatu.
- 3) Bertso jarriak erritmoz irakurri.
- 4) Bertso jarriak errezipatu.
- 5) Koplak entzun eta buruz errepikatu. Zortzikoak bi zatitan kantaturik, bi koplak egin litezke.
- 6) Bertsoak entzun eta buruz errepikatu.
- 7) Batek esaldi bat eta besteak puntu batera neurturik kantatu.
- 8) Zortziko txikitik zortziko zaharrera.
- 9) Zortziko txikitik zortziko haundira.
- 10) Zortziko haunditik zortziko zaharrera.
- 11) Zortziko haunditik zortziko txikira.
- 12) Bertsoak eta koplak jarri, gai desberdinak harturik.

### BAT BATEAN

- 1) Errezipitapenak txikian eta haundian:
  - a) Errimatu gabe
  - b) Oin zerrendaz
  - d) Buruz errimaturik
- 2) Luza-laburkuntzak. Liburuan irakurri eta aldakuntzak bat batean egin:
  - a) Txikitik zaharrera
  - b) Txikitik haundira
  - d) Haunditik zaharrera
  - e) Haunditik txikira
- 3) Puntura:
  - a) Oin zerrendak jarriarik
  - b) Librean

## ERRIMA LANTZEKO ARIKETAK

- 1) Errima bat hartu eta bi edo gehiagoren arteko dema, nork gehien irauin, bakoitzak oin desberdin bana txandaka esanez.
- 2) Oin zerrendak jarri eta puntura egin, zerrenda horiei jarrai.
- 3) Zerrenda luzeetatik sorta hautatuak atera, laukoteak edo boskoteak, gehien balio lezaketen oinekin. Honek gehienez taldean eztabaida ekarriko du, batzuk halako oinak eta beste batzuk bestelakoak egokiagotzat jorik.
- 4) Errima ugaria bada, oin sorta hautatu desberdinak egin:
  - a) Errima irizpidez
  - b) Kontzeptu irizpidez
- 5) Oin laukote bat hartu eta berarekin gai desberdinak kantatu. Ofizioka ere egin liteke. Honela agertuko da hautaturiko oinen balioa zabala den, ala estua agian.
- 6) Bertsoaren azken puntua berbera delarik, bakoitzean oina aldatu. Orduan bertsoa aurretik atzera bete, bakoitzean errima desberdinez. Adibidez, hona bertso bat amaitzeko puntu posible bat:

**Asto hau perratzea  
ez da bate errez**

- Edo:
- Asto hau perratzea  
ez da bate erraz.
  - Asto hau perratzea  
ez da errez bate.
  - Asto hau perratzea  
bate errez ezta.
  - Asto hau perratzea  
ez da hain erreza.
  - Asto hau perratzea  
ez da hain erraza.
  - Asto hau perratzea  
hain errez ez dago.



- Asto hau perratzea ez dago hain samur.
- Asto hau perratzea ez da hain samurra.
- Ez dago bate errez asto hau perratzen.
- Ez dago bate errez perratzen asto hau.

Ikusten ideia berbera zenbat errima desberdinez kanta litekeen? Errima desberdinak, batasun orokor baten barruan, bertsoak ere desberdinak ekarriko ditu. Alderantziz esana, oin desberdinez ideia berdinak kantatzen ikasi.

## XXXIII

### HAU AMAITU DA

Honetantxe amaitzen dugu bertso ikaspide hau. ZU ERE BERTSOLARI dio izenbururak. Bertsolari al zarete?

Segun zeri esaten zaion bertsolaria. Ez zarete agian bertsolari profesionalak. Horrenbestetik ez genuen itxaroten ere. Baina bai zarete bertsolariak, bertsogintzan jokatzeko moduan baitzaudete.

Auto karneta ateratzea bezala. Orain autoa eramaten badakizue. Hortik automobilismora bide luzea dago. Baina aurrera zoazte. Eta batez ere orain aurrera joateko moduan zaudete. Noraino? Hori bideak esango du.

Autoan ibiltzen badakizue. Gutxi al da?

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
BAT. NORA.....	9
I. Doinua, errima eta neurria .....	11
II. Terminologia .....	18
III. Doinua.....	23
BI. KOPLA TXIKIA .....	25
IV. Giltzak .....	27
V. Gaia edo esankizuna.....	36
VI. Lotura .....	39
VII. Esalditik koplara.....	45
VIII. Kopla txikian aurrera.....	52
IX. Gaia jarrita .....	59
X. Errezitapenak kopla txikian .....	67
HIRU. KOPLA HAUNDIA .....	73
XI. Doinuak eta hastapenak .....	74
XII. Zehazpena: txikitik zaharrera.....	80
XIII. Hornikuntza .....	86
XIV. Laburkuntza.....	90
XV. Kopla haundian aurrera .....	93
XVI. Gaiari jarraitzen.....	99
XVII. Errezitapenak kopla haundian .....	104
XVIII. Bete lana .....	108
XIX. Bete lana lantzen .....	112
XX. Betegarriez trebatzen .....	118
XXI. Saio orokor bat.....	122
LAU. ZORTZIKO TXIKIA .....	125
XXII. Abiatzen .....	127
XXIII. Entzuleak eta bertsolari lagunak .....	132
XXIV. Betegarrien ariketak.....	137
BOST. ZORTZIKO HAUNDIA.....	141
XXV. Abiatzen .....	143
XXVI. Ebetegarrien ariketak.....	148
XXVII. Saioa gaiak jarrita .....	152

SEI. HEGAN.....	157
XXVIII. Paperetik askatzen .....	159
XXIX. Bat batean .....	162
XXX. Puntura.....	163
XXXI. Errima lantzen.....	167
XXXII. Ariketen bilduma .....	169
XXXIII. Hau amaitu da .....	172

## BERTSOAK:

Galai bat .....	11
Markesaren alaba (Iturrino).....	18
Ardoaren azainak.....	27
Potajiarenak (Bilintx) .....	36
Jai-Jai (Bilintx) .....	37
Urzo xuri polit bat.....	39
Urzapal bat (Etxahun).....	40
Otxalde preso (Xetre) .....	45
Xenpelar eta Ardotx Lezon .....	46
P. Bakallo eta Xenpelar.....	46
Iturengo harotza .....	52
Belateko lapurrak .....	52
Txabalategi eta zabala.....	54
Bizkaiko txerriarenak (Uztarri) .....	59
Dohaina eta lana (Xalbador).....	68
Pello eta Txirrita.....	74
Maisuari (P. M. Otaño) .....	77
Neskazar bat tentatzen (Txirrita) .....	80
Nere senarrarekin (Xenpelar).....	86
Iriarena.....	90
Loriak udan (Bilintx).....	93
Nere andre honekin.....	99
Ijituena (Txirrita) .....	104
Primaderari (Xalabador) .....	108
Aita semeak (P. M. Otaño).....	112
Ume eder bat (Iparragirre).....	113
Arbola bat (Arrese Beitia) .....	118
Naparroari (Xalbador).....	122
Bere aitaren hiltzailea .....	127
Mutil zahar bati (Pello Zabaleta) .....	132
Nikolasa haundia (Zeferino Mujika) .....	137
Txantxangorria (Bitoriano Iraola).....	143
Fueruen gainian (Txirrita).....	148
Hogoi urtetan bezala (Xalbador).....	152
Esperantzarik gabeko amodioa (Xalbador).....	159